PhD Thesis

Birgaitze energetikoak gizarte etxebizitzan
Portaera termikoaren analisia

Energy retrofits in social housing
Analysis of its thermal behaviour

Jon Terés Zubiaga

Zuzendariak
Prof. José María Sala Lizarraga
Prof. Rufino Hernández Minguillón

Otsaila
2014

eman ta zabal zazu

The University of the Basque Country
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Birgaitze energetikoak gizarte etxebizitzan

Portaera termikoaren analisia

Energy retrofits insocial housing

Analysis ofits thermalbehaviour

Jon Terés Zubiaga
(jon.teres@ehu.eus)
(Architect / Arkitektoa)

Makina eta Motor Termikoak Sailaren Ingeniaritza Termiko Doktorego Programan
Doktore – Gradua lortzeko Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztutako Tesia.

Dissertation presented at the University of the Basque Country (UPV/EHU) in fulfilment
of the requirements for the degree of PhD of the Thermal Engineering PhD program of
the Department of Thermal Engineering.

Under supervision of / Tesi zuzendariak:

Prof. José María P. Sala Lizarraga
Prof. Rufino J. Hernández Minguillón

Bilbao, 2014ko Otsaila

- Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Argitalpen Zerbitzua
- University of the Basque Country - UPV/EHU Press
- ISBN: 978-84-9082-404-7 (Eus)

This PhD Thesis was supported by the Basque Government, through the Department of Education, Universities and Research's Personnel Research Training Program (BFI09-81).

Doktorego Tesi hau Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin garatu zen, *Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren* Doktore Aurreko Programaren bidez (BFI09-81).

Laburpena

Doktorego – Tesi hau eraikinen birgaikuntza energetikoaren ebaluazioan datza, prozedura honek barne hartzen dituen atal ezberdinak, datu – eskuratzea eta monitorizazioa, datuen tratamendua (eraikinen ereduak erabiliz) eta lortutako emaitzen analisiak esaterako.

Tesi honen interesa gaur egungo egoera energetikotik sortu zen. Gaur egun, eraikinetan erabiltzen den energia kontsumoa Europar Batasuneko energia kontsumo osoko %40 baino gehiago da. Gainera, kontsumo hau azken urteetan zergati ezberdinen ondorioz goratu da, biztanleriaren etengabeko ugalketa edo barne erosotasunari lotutako estandar altuagoen eskaria esaterako. Beraz, energia iturrien beharra murriztea funtsezko faktore bat da. Horregatik, eraikinen eraginkortasun energetikoa Europar Batasunaren lehentasunezko helburu bat bihurtu da, eta ingurune eta energia egoera honek eraikinen portaera energetikoaren hobekuntzaren beharra ekarri du. Europar Batasuneko eraikin parkearen adina kontuan hartuz, eta batik bat, Espainiakoarena, eta garai batean eskatutako betebehar termiko baxuak, energia kontsumoa murrizteko, existitzen den eraikin parkean arreta jarri behar dela adierazi daiteke.

Egoera energetiko hau karbono dioxidoaren isuriei oso lotuta dago. Munduko ekonomiaren deskarbonizazio ugari bat beharrezkoa da, bizi estandarrak hobetzen diren bitartean. Hala eta guztiz, eraikinen portaera energetikoa aztertzean beste alderdi batzuk kontuan hartu behar dira. Premia ekonomikoek ingurumen kontzientziazioa deuseztatzen duteneko lekuetan edo biztanleriaren sektoreetan, eta klima aldaketari buruzko ardurak nahikoa ez diren lekuetan, eraikinen birgaikuntza energetikoa, pobrezia energetikoa leuntzeko estrategia oso erabilgarria izan liteke. Birgaikuntza energetikoaren onurak, karbono dioxidoaren isurien murrizketan eta energia aurrezteaz gain, alderdi ekonomikoan eta sozialean ere ikus genitzake, pobrezia energetikoaren izan dezakeen eragina kasu.

Hortaz, birgaitze energetiko ezberdinen eragina zehaztasunez neurtzeko metodologiak gero eta beharrezkoagoak dira, eraikinen birgaikuntza energetikoan barne izandako eragileek erabiltzeko.

Beraz, birgaitzeko estrategien eraginak aztertzeko metodologiak gero eta arrakasta handiagoa dute eraikinen birgaitzean lan egiten duten eragileen artean (legegileak, ingeniariak, arkitektoak). Legegileek, legeak eskatzen duten betebehar minimoak betetzen diren egiaztatzeko batetik, eta bestetik birgaitze bati emandako laguntzak egoki inbertitu diren aztertzeko erabiltzen dituzte estrategia hauek. Ingeniariek eta arkitektoek, birgaitzeko jokaerarik egokienak identifikatzeko erabiltzen dituzte berriz, eraikin bakoitzarentzat eta zona klimatiko bakoitzean.

Hortaz, doktorego tesi honen garapenak eraikinen birgaitze energetikoen analisia egiteko urratsak aurre ematen ditu. Euskadiko eraikinen parkearen analisi batekin hasten da. Geroago, datuak lortzeko bi metodologia posible aurkezten dira: batetik, etxe huts batean monitorizazioa, eraikin edo etxebizitzaren eraikuntza elementuen portaera termikoa definitzeko erabiliko den datuak lortzeko; bestetik, hamar etxebizitzak ezberdinen urte bateko monitorizazioa, etxebizitza sozialaren biztanleen energiari lotutako erabilera profilen informazioa lortzeko erabiliko dira. Bi landa azterketetan lortutako datuak bi eredu mota garatzeko erabiliko dira geroago. Azkenik, aipatutako ereduekin lortutako emaitzen azterketa zehazki erakusten da.

Aipatutako lanaren garapena erakusteko, tesi hau lau zatitan banatu da. Lehenak, **sarrerak**, lehen eta bigarren kapituluak barne hartzen ditu. Kapitulu hauetan, tesi honetan zehar aipatutako aspektuei buruzko literatura azterketa bat aurkezten da, eta helburuak eta jarraitutako metodologia deskribatzen dira.

Tesi honen bigarren atalean, egindako **atal esperimentala** erakusten da. Lehenik eta behin, hamar etxebizitza sozialaren landa azterketa bat aurkezten da hirugarren kapituluan. Etxebizitza hauen hautaketa egiteko, XX. mendeko etxebizitza parkearen adierazgarritasunaren irizpideak jarraitzen dira. Landa azterketa honek etxebizitza sozialen parkearen portaera termikoa ezagutzeko erabilgarri diren datu ugari ematen ditu. Etxebizitza bakoitzean barne tenperaturak eta hezetasun erlatiboa hamar minuturo neurtu dira urte batean zehar. Horrela, barne erosotasun termikoari buruzko informazioa lortu ez ezik, etxebizitza bakoitzean dauden erabilera profilei eta biztanleen portaerari buruzko informazioa ere lortu egin da. Energia fakturen bidez, energia kontsumoari buruzko informazioa biltzen da. Gainera, biztanleek galdeketak bete dituzte, beste iturrietatik lortutako informazioa osatzearren. Landa azterketa honek etxebizitza sozialaren portaera energetikoari buruzko ikuspegi orokorra ematen du. Bestalde, etxebizitza sozialaren erabilera profilak definitzeko erreferentzia garrantzitsua izango da geroago.

Era berean, laugarren kapituluak etxebizitza adierazgarri baten monitorizazioaren deskripzioan arreta jartzen du. Etxebizitza hau lehen kapituluan aurkeztutako sailkapena jarraituz hautatzen da. Bi egoera monitorizatzen dira: Lehena, 2012. urteko neguan garatuta, eta bigarrena urte bat geroago, 2013. urteko neguan eginda, leiho aldaketa bat egin ondoren. Etxebizitzan, hirurogei sentsore inguru jartzen dira, estazio klimatiko txiki bat bezalaxe. Monitorizazio honen bidez, etxebizitzaren eraikuntza elementuen portaera termikoak definitzeko behar diren datuak lortzen dira.

Geroago, atal esperimentalean lortutako **datuen tratamendua** garatzen da bi simulazio ereduren bidez. Aipatutako ereduen garapenak hirugarren atal honetan erakusten dira. Bi kapitulu barne hartzen ditu: bosgarren kapitulua (kutxa zuriaren eredua, TRNSYS) eta seigarren kapitulua (kutxa grisaren eredua). Laugarren kapituluan erakutsitako monitorizazioan lortutako datuak erabiltzen dira RC eredua (kutxa grisarena) definitzeko batetik, eta eredu biak baliozkotzeko eta egokitzeko bestetik. Bitartean, hirugarren kapituluan erakutsitako monitorizazioan lortutako datuak (hamar etxebizitzaren monitorizazioan) etxebizitza sozialaren erabilera profil adierazgarriak definitzeko erabiltzen dira.

Azkenik, tesi honen azken atalak simulazioen diseinuan eta aipatutako simulazioen bidez lortutako **emaitzen ebaluazioan** arreta jartzen du. Bi kapitulu ezberdinetan erakusten da. Inguratzailearen hobekuntzarako neurrien bidez lortutako energia aurrezteak, zazpigarren kapituluan erakusten eta aztertzen dira, alderdi energetikoak, ekonomikoak eta ingurumenari eta barne erosotasunari lotutakoak kontuan hartuz. Eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzeko, hirurogeita lau energia aurrezteko neurriren emaitzak erakusten dira. Aztertutakoen artean, konbinazio bat hautatzen da, eta berokuntza kontrolerako estrategia ezberdinek energia kontsumoan eta barne erosotasunean duten eragina ebaluatzen da.

Bitartean, zortzigarren kapituluan, ikuspegi exergetikoak duen erabilgarritasuna aztertzen da. Kapitulu honek eraikinetan erabilitako ikuspegi exergetikoari buruzko literatura aztertze motz bat barne hartzen du. TU Delf-eko Arkitektura Fakultatean (Herbeheretan), 2012. urteko bigarren hiruhilekoan Sabine Jansen-ekin garatutako bi artikulu erakusten dira jarraian. Artikulu hauek, eraikinen birgaitze energetikoen analisian ikuspegi exergetikoaren aukerak aztertzen dituzte, tesi honetan garatutako etxebizitza erreferentea oinarrizko kasu hartuz.

Doktorego tesi honetan aurkeztutako ikerketa kontuan hartuz, alderdi ezberdinak azpimarratu litezke. Eraikinen birgaitze energetikoak potentzial handia dauka eraikuntza sektoreari lotutako karbono dioxidoaren isuriak murrizteko, baina honez gain, eskala ezberdinean onura sozial eta ekonomikoen sortzaile ere badela esan liteke. RC eta TRNSYS ereduak eraikinen energia kontsumoa aztertzeko erabilgarriak eta tresna egokiak izan daitezke. Azkenik, eraikin parkea aztertzean, ikuspegi holistiko bat erabiltzearen garrantzia frogatzen da tesi honetan, beste hainbat aspekturen rolak bezalaxe, hala nola, biztanleen portaerarena. Erabilera profilenak (tesi honetan erakutsitako simulazioek %50 inguruko diferentziak erakusten dute hartutako erabilera profilen arabera) eta berokuntza kontrolerako estrategiarena energia kontsumoan jokatzen duena.

Bi ildo identifikatzen dira etorkizunean garatzeko. RC ereduaren hobekuntza jorratzearen beharra, eta geroago, RC eredu honen eta TRNSYS ereduen arteko interakzioa. Bi ildo hauen Eraikuntzarako Sistema Termikoen Instalazio Esperimentalaren artekoa ere aztertu behar da.

Gainera, doktorego – tesi honetan egokitutako TRNSYS ereduaz gain, lehen lortutako emaitzak ere erabili behar dira eraikinen birgaitze energetikoari buruzko eskuliburu bat egiteko, eraikuntza sektorearen eragile ezberdinentzat erabilgarria izan dadin. Eskuliburu hau, Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategiaren laguntzarekin garatua izango da, birgaitze energetikorako estrategia ezberdinen emaitza ekonomiko, energetiko eta ingurumenari loturikoak jorratzea helburu izanik, eraikin ezberdinetan, area klimatiko ezberdinetan, simulazio dinamikoan eta datu esperimentaletan oinarrituta.

Resumen

La presente tesis doctoral trata la evaluación de la rehabilitación energética en edificios, abordando las diferentes partes involucradas en el proceso: la monitorización y adquisición de datos, el tratamiento de los datos (mediante modelos) y el análisis de los resultados obtenidos.

El interés de la tesis nace de la actual situación energética en la que más del 40 % del consumo energético total de la Unión Europea corresponde al sector de la construcción. Además, el consumo energético en la edificación se ha mantenido en constante crecimiento en los últimos años debido al crecimiento de la población y al aumento de la demanda de un ambiente interior saludable y confortable, y un aumento en esos estándares de confort. Así, la reducción de la dependencia de fuentes energéticas es un aspecto crucial en el desarrollo hacia un futuro energético sostenible. Por esta razón, la eficiencia energética en edificios es un objetivo prioritario para la Unión Europea, y esta situación energética y medioambiental exige la mejora del comportamiento energético del parque edificatorio. Observando la antigüedad del parque inmobiliario en la Unión Europea, y concretamente en España, y las bajas exigencias existentes en el pasado en lo referente al comportamiento térmico en edificios, se puede afirmar que para reducir el consumo energético asociado a la edificación, el principal esfuerzo debe ser dirigido en la mejora del parque existente.

Esta situación energética está íntimamente relacionada con las emisiones globales de dióxido de carbono. Es necesario alcanzar una reducción drástica de las emisiones al mismo tiempo que mejoran los estándares de vida de la población global. Sin embargo, el estudio del comportamiento energético en la edificación ha de tener en cuenta otros aspectos. En determinadas áreas y sectores de población, las prioridades económicas inmediatas se anteponen a las preocupaciones ambientales, y la lucha contra el cambio climático por sí solo no es suficiente motivación. En estos casos, debe tenerse en cuenta que la mejora de la eficiencia energética en edificios es también el camino para reducir la llamada pobreza energética. Esto es, la rehabilitación energética de los edificios, además de las implicaciones y beneficios en la reducción de emisiones de dióxido de carbono y ahorro energético, también afecta positivamente a aspectos sociales y

económicos, muy relacionadas entre sí, tales como la reducción y la lucha contra la mencionada pobreza energética.

Así, las metodologías para evaluar de un modo exacto el efecto de diferentes estrategias de rehabilitación posibles son cada vez más demandadas por los distintos agentes que participan en las distintas fases del sector de la rehabilitación de edificios -legisladores, ingenieros o arquitectos-. Para los primeros, (los legisladores), de cara a comprobar por una parte si una rehabilitación dada cumple los requisitos mínimos exigidos por la ley; y por otra parte, si un incentivo dado a una actuación concreta se ha invertido de manera efectiva o no. A ingenieros y arquitectos, quienes participan en la ejecución de la rehabilitación, de cara a identificar entre todas las posibles, las actuaciones más adecuadas para un edificio concreto en una zona climática específica.

De esta forma, el desarrollo de esta tesis afronta los pasos necesarios en todo análisis de eficiencia energética en edificios. Comienza con el análisis del parque inmobiliario existente en el País Vasco. Después, se presentan dos metodologías posibles de adquisición de datos, destinadas a obtener resultados de distinta naturaleza: por una parte, la monitorización de una vivienda vacía, para obtener datos que serán utilizados posteriormente especialmente para definir el comportamiento térmico de los elementos constructivos del edificio o vivienda, y del edificio o vivienda en su globalidad; por otra parte, una toma de datos realizada en varias viviendas a lo largo de más de un año que en esta tesis se utilizará posteriormente para obtener información de los comportamientos y perfiles de los ocupantes en el aspecto energético. Los datos obtenidos de ambos estudios se utilizan posteriormente para definir dos tipos de modelos. Finalmente, se presenta de forma detallada la evaluación de resultados obtenidos con esos modelos.

Para presentar el desarrollo de dicho trabajo, esta tesis se ha dividido en 4 bloques diferenciados. La primera, la introducción, incluye los Capítulos 1 y 2, donde se presenta una revisión bibliográfica de los diferentes aspectos tratados a lo largo de la tesis, y se describen los objetivos y la metodología seguida.

El segundo bloque de la tesis describe y detalla la parte experimental llevada a cabo. En primer lugar, en el Capítulo 3 se recoge un estudio de campo de 10 viviendas sociales.

Estas viviendas se seleccionan en base a criterios de representatividad de los diferentes tipos de edificación construidas a lo largo del siglo XX en la región. Este estudio proporciona una gran cantidad de datos de gran utilidad para conocer el comportamiento térmico del parque inmobiliario social. Se monitorizan temperaturas y humedad relativa en el interior de cada vivienda durante un año, con una frecuencia de 10 minutos. Con ello, se ha obtenido información no sólo de confort interior, sino también de las condiciones de operación de cada vivienda y del comportamiento de los usuarios. También se recoge la información de consumos energéticos, utilizando para ello las facturas energéticas (tanto de electricidad, como de gas natural, en su caso). Además, los ocupantes de cada vivienda rellenaron un cuestionario sobre distintos aspectos tales como perfiles de uso y ocupación o concienciación energética entre otras, complementando la información recogida por el resto de fuentes mencionadas. Este estudio ofrece así una panorámica del comportamiento real energético de viviendas sociales, así como una importante referencia para posteriormente definir unas condiciones de operación y perfiles de ocupación representativos de la vivienda social.

El Capítulo 4 se centra en la descripción de una monitorización en detalle de una vivienda representativa. Ésta se selecciona teniendo en cuenta la clasificación realizada previamente en el Capítulo 1. La monitorización cubre dos escenarios: el primero, en el invierno de 2012, y el segundo, en el invierno de 2013, después de una sustitución de ventanas realizada con objeto de obtener una mejora del comportamiento térmico. Se sitúan en torno a 60 sensores de temperatura dentro de la vivienda vacía que toman datos con una cadencia de 1 minuto. Se obtienen así datos suficientes para caracterizar en detalle el comportamiento térmico tanto de los distintos elementos constructivos (ventanas, fachadas, particiones...) como del conjunto de la vivienda.

El tercer bloque de la tesis aborda el desarrollo y definición de dos modelos de simulación, utilizando para ellos los datos experimentales obtenidos previamente, en el bloque anterior. El Capítulo 5 presenta la definición y calibrado de un modelo de la vivienda de "caja blanca", con TRNSYS. El Capítulo 6 define y calibra un modelo de caja gris. Los datos obtenidos en la monitorización en detalle de la vivienda, se utilizan para definir el modelo RC (de caja gris), así como para validar y calibrar tanto el modelo RC como el de TRNSYS. Además, la información obtenida de la monitorización de 10 viviendas se utiliza para posteriormente definir perfiles de ocupación y de operación representativas de la vivienda social que serán incluidos en los modelos desarrollados.

Finalmente, el último bloque de la tesis incluye los capítulos 7 y 8. Se ha centrado en el diseño de la simulación y la evaluación de los resultados obtenidos con dichas simulaciones. En el Capítulo 7, se presentan y evalúan los ahorros energéticos obtenidos tanto mediante posibles mejoras en la envolvente como de los sistemas de calefacción. Para esta evaluación se ha tenido en cuenta criterios económicos, energéticos, medioambientales y de confort. El estudio se ha realizado a escala de vivienda. Las simulaciones muestran primeramente los resultados de 64 posibles combinaciones de medidas de ahorro energético a llevar a cabo sobre la envolvente del edificio. Después de seleccionar una de las combinaciones evaluadas, se presenta el impacto de diferentes estrategias de control de calefacción en el consumo final de energía y confort interior.

En el Capítulo 8 se presenta y evalúa la utilidad del enfoque exegético, donde se expone una breve revisión bibliográfica de la aplicación de este concepto aplicado a la edificación. Se acompaña de dos artículos desarrollados por el autor en la Escuela de Arquitectura de la Universidad Tecnológica de Delft (TU Delft). Estos artículos exploran las posibilidades de este enfoque el análisis de rehabilitaciones energéticas a escala de edificio, usando como caso base e estudio el edificio de referencia de esta tesis.

Como conclusiones del trabajo desarrollado a lo largo de esta tesis, se puede destacar diversos aspectos. Las rehabilitaciones energéticas en edificios presentan un gran potencial para reducir de forma significativa las emisiones de dióxido de carbono asociadas al sector de la edificación. Estas rehabilitaciones energéticas presentan también importantes beneficios económicos y sociales en distintas escalas. Los modelos RC y TRNSYS pueden ser una herramienta útil y adecuada para evaluar el consumo energético en edificios. Finalmente, se remarca la importancia de considerar un enfoque global en la evaluación del consumo energético del parque de edificios, así como el papel que aspectos tales como el comportamiento humano, condiciones de operación (simulaciones presentadas en esta tesis muestran diferencias de alrededor de 50% en el consumo energético dependiendo de las condiciones de operación consideradas) o las estrategias de control juegan en el consumo energético global del edificio o vivienda.

Por último, se identifican las líneas de trabajo a desarrollar en el futuro cercano. Se debe desarrollar la mejora y ajuste del modelo RC, para posteriormente, trabajar en la interacción del modelo RC con el modelo de TRNSYS, y de ambos con la Planta Experimental de Instalaciones Térmicas en Edificios (ubicada en el Laboratorio para el Control de Calidad en la Edificación, del Gobierno Vasco). De esta forma, la línea de trabajo seguida en el grupo de investigación se iniciaría en el estudio de campo de un edificio dado, cuyos datos obtenidos se utilizaran para definir su modelo RC mediante el cálculo de los parámetros característicos. El modelo RC definido se utiliza para calcular demandas de calor, las cuales alimentan al modelo de TRNSYS, que a su vez está conectado con la Planta Experimental de Instalaciones Térmicas en Edificios. Así se pueden evaluar en el laboratorio diferentes sistemas energéticos mediante ensayos semi-virtuales teniendo como referencia demandas definidas en condiciones reales.

Además, el modelo de TRNSYS calibrado en esta tesis, así como los primeros resultados obtenidos de él, y presentados en el bloque 4, son la base para el desarrollo de una guía de rehabilitación energética de edificios, dirigida a los distintos agentes del sector de la construcción. Esta guía, que puede ser desarrollada en colaboración con el Laboratorio para el Control de Calidad en la Edificación del Gobierno Vasco, presentará resultados económicos, energéticos y medioambientales de distintas estrategias de rehabilitación aplicadas en los diferentes tipos de edificios existentes, en diferentes áreas climáticas. Estos resultados estarán basados en simulaciones dinámicas a su vez definidos y alimentados de datos experimentales.

Abstract

This PhD thesis deals with the evaluation of energy renovations in buildings, facing the different parts involved in that process, such as data acquisition and monitoring, data treatment (by means of building models) and analysis of obtained results.

The interest of the thesis was awoken by the current energy situation where the construction sector is responsible of over 40 % of the total energy consumption in the European Union. Besides, building energy consumption has kept rising in the recent years due to several factors, such as a growth in population, an increasing demand for healthy comfortable indoor environment and for higher comfort standards. Hence, reducing the need for energy sources is a key factor in the development towards a sustainable energy future. For that reason, energy efficiency in buildings is a priority goal for the European Union, and this energy and environmental situation requires improving the energy performance of buildings. Taking into account the age of the building stock in the European Union, and specially in Spain, and the low thermal requirements existed in the past, it can be stated that in order to reduce the energy consumption, the main effort must be focused on the challenges of improving the existing stock.

This energy situation is closely related to global CO_2 carbon emissions. A massive decarbonisation of the world economy needs to be achieved while improving the life standards of the global population. However, other aspects must be taken into account when energy issue is treated in buildings. In those areas or population sectors where immediate economic priorities override environmental concerns and climate change alone is often not sufficient, improving energy performance in buildings is also a way driven to alleviate the so called fuel poverty. Implications and benefits of energy renovations thus have consequences not only in the reduction of CO_2 emissions and energy savings but also in financial and social aspects, closely connected amongst them, such as the reduction of mentioned fuel poverty.

Thus, methodologies for evaluating in an accurate way the effect of different energy renovations are needed more and more by the different agents involved on building retrofits. For policy makers it is useful, on the one hand, to check whether a given energy

renovation fulfils the conditions required by law; on the other hand, to check whether a given incentive has been invested in a suitable way or not. As for architects and engineers, to identify the most adequate energy renovations for a specific building and climatic area.

Thus, the development of this thesis faces the different steps given in every analysis on building energy performance. It is started with the analysis of the building stock in this region. Afterwards, two kind of data acquisition are presented: in an empty dwelling, for obtaining data mainly from the passive characteristics of the building; and in several occupied dwellings, more led to obtain data about occupants' behaviour and profiles. Obtained data from both studies are used afterwards to define two different building models. Finally, possibilities of evaluation of results obtained from mentioned building models are described.

For presenting the development of mentioned work, this PhD thesis is divided into 4 different parts. The first one, which is the **introduction**, encompasses Chapter 1 and Chapter 2, where the state of art of the different aspects treated in this thesis are presented, and objectives and methodology are described, respectively.

The second part exhibits the **experimental research** carried out in this thesis. Firstly, a field study of 10 social dwellings is reported in Chapter 3. Ten dwellings are selected to be representative of the different types of buildings built during the 20th century. This study provides a huge amount of data about the current situation of the social building stock. Indoor temperature and relative humidity is logged in each dwelling during a year, obtaining information not only about indoor comfort, but also about operating conditions of each dwelling and occupants' behaviour. Energy consumption information is gathered, by means of energy bills. Additionally, questionnaires are filled in by the occupants, complementing the information obtained by other sources. This study provides an overview of the real energy performance of the social apartments, as well as an important reference for defining later a representative operating condition profiles on social building sector.

Analogously, Chapter 4 is focused on the description of a detailed monitoring of a representative dwelling, selected according to the previously carried out classification. This monitoring covers two scenarios: The first one, carried out in winter 2012, and a second one, carried out in winter 2013, after a thermal improving by means of a windows replacement is executed. Around 60 temperature sensors are placed within the vacant dwelling, obtaining data for characterizing in detail the thermal performance of the constructive elements of the dwelling.

Afterwards, the **treatment of the data** obtained from this experimental part is carried out mainly using two kinds of simulation models. The development of mentioned models is dealt with in the third part. It embraces Chapter 5 (the white box model, TRNSYS) and Chapter 6 (grey box model). Data obtaining in the second monitoring (the detailed monitoring of the selected dwelling) are used for defining the RC Model, and validating and calibrating both the RC Model and TRNSYS model. Meanwhile, information obtained from the monitoring of the ten social apartments is used to define occupation and operating profiles representative of social building apartments.

Finally, the last part of this thesis has focused on the simulation design and **evaluation of results** obtained from the above mentioned simulations. It is explained in two different chapters. Energy savings obtained as a result of improvements both on building envelope and heating systems, is presented and evaluated in Chapter 7, under economic, energy, environmental and comfort criteria. This study is carried out on a dwelling scale. The simulations show firstly the results of 64 possible combinations of energy savings measurements on the building envelope. After choosing one of the evaluated combinations, the impact of the different heating control strategies on the final energy consumption and indoor comfort are presented.

Meanwhile, the exergy approach usefulness is evaluated in Chapter 8, where a brief literature review about this concept in buildings applications is presented, followed by two papers developed in the Faculty of Architecture of TU Delft. These papers explore the possibilities of this approach on the analysis of energy renovations on an entire building scale, using as base case the reference building of this PhD Thesis.

Taking into account the work presented in this PhD Thesis, different aspects can be highlighted. The energy renovations in buildings present a great potential for reducing (in an important manner) the CO_2 emissions of the construction sector, but also present significant social and economic benefits in the different scales. RC models and TRNSYS models can be a very useful and suitable tool in order to evaluate energy consumption in buildings. Finally, the importance of considering a holistic approach when energy consumption the of building stock is evaluated, has also been remarked in this thesis, and the role that aspects such as human behaviour, operating conditions (simulations in this thesis present differences of around 50% on energy consumption depending on the assumed operating conditions) and control strategies play in the global energy consumption is proved.

In the close future, two different lines are identified to develop. The improvement and adjustment of the RC model must be developed, and later, the interaction of the RC model with the TRNSYS model, and both of them with the Energy System Plant (experimental plant for testing different building energy systems) must be explored. This way, a workflow starts on the field study of a given building which is used for defining the RC Model. Defined RC model calculates the energy demands, and that energy demands feeds the TRNSYS model, which is connected to the Energy Systems Plant. Thus, different energy systems are tested in laboratory under real conditions of energy demands.

Moreover, the TRNSYS model calibrated in this PhD Thesis, as well as the first results obtained from it in the last part of this PhD Thesis must be the base to develop a building energy renovations handbook, useful for the different agents of the construction sector. This handbook, which can be developed with the support of the Laboratory for Quality Control in Buildings of the Basque Government (LCCE) will present economic, energy and environmental results of different energy renovation strategies, on different kind of existing buildings, in different climatic area, based on dynamic simulations and experimental data.

Eskerrak - Agradecimientos - Aknowledgements

Dice K. Jornet que *"Una cima no es un punto geográfico, una fecha y un crono. Una cima son recuerdos, emociones almacenadas dentro de nosotros, son las personas que nos acompañaban o nos esperaban abajo"* En el fondo, el desarrollo de una tesis se puede asemejar a una ruta de montaña. Y ante su presentación, no puedo olvidarme de las personas que, de una u otra manera, han participado en esta travesía (las que acompañaban, y también las que esperaban abajo). Sirvan estas líneas para expresar y transmitir mi más sincero agradecimiento a todos ellos.

En primer lugar a mis directores de Tesis. A José Mari, por recibirme y asumir el reto de dirigirme en este camino. Por aportar soluciones a los distintos obstáculos que surgían. por la sensatez y experiencia aportada a lo largo de estos cuatro años, siendo en todo este tiempo guía y llevando el mapa de ruta. A Rufino, por sus consejos, por tratar de aportar el enfoque arquitectónico en esta tesis.

A Álvaro, quién fue mi primer contacto con el departamento y ha acabado siendo un "tercer director" de esta tesis, aportando en ideas y soluciones. Por ser en todo este tiempo una referencia de la que aprender y a la que seguir día a día. También a Esti, Gonzalo e Iker, (e Itxaso y Eneko, en estos últimos meses) con los que a lo largo de esta ruta he tenido el privilegio de compartir camino. Por la gran ayuda prestada: tanto directamente en la tesis, aportando ideas, corrigiendo, cuestionando y enseñando; como creando ese buen ambiente en el día a día.

Al resto de compañeros del departamento, por su apoyo, por su disposición sincera y por facilitarme las cosas siempre que ha estado en su mano. A Koldo por la parte de las termografías, y a Aitor, por su implicación y el tiempo dedicado a revisar los datos de la monitorización. A los que han dedicado tiempo a las revisiones.

Al grupo del Laboratorio de Control de Calidad en la Edificación del Gobierno Vasco, por su apoyo técnico y humano. A Carlos, Dani y los que se vieron implicados en las monitorizaciones de Otxarkoaga. A César, por su inestimable ayuda en los capítulos 4 y 6. También a Viviendas Municipales de Bilbao, en especial a Koldo y Txari, por su disponibilidad y ayuda en los distintos aspectos tocados en la tesis.

To the Department AE+T of the Faculty of Architecture of TU Delft, for the opportunity brought to me to complete my scientific and personal training. To professor Andy van den Dobbelsten and Peter Luscuere for their support and making the stay possible. To Sabine, for being the best possible colleague to work with, and for the pleasant and fruitful time spent working together; to Mohammed, Babak, Noortje, Remco, Marjolein, Yayi and the rest of the people who I met in The Netherlands, for making me feel at home during my stay in Delft.

Reservo unas líneas también a la Escuela de Arquitectura de Pamplona: a la gente del Departamento de Estructuras, con quienes empecé a vislumbrar “qué era eso de la investigación”; a César, con quien aprendí a dar los primeros los primeros pasos en el mundo de la energía en la edificación en el Departamento de Instalaciones.

A todos mis amigos y compañeros: los de Portu, Santutxu, Pamplona; que han vivido de cerca el desarrollo de esta tesis. Tanto los que en algún momento me han resuelto dudas técnicas, como los que, sin entrar en esas cuestiones me han dado los momentos de descanso y distensión necesarios en toda ruta. A mi familia, los más cercanos y los más lejanos (físicamente) que a pesar de la distancia, han sido testigos de este camino. A mi tío Javi, quién ya desde aquellos años en los que me abrió las puertas de su casa, me inyectó la inquietud por la sostenibilidad y la Eficiencia Energética en todos los campos, siendo ésta una de las motivaciones para el desarrollo de la tesis.

A Jacinto, Remi, Sara, María y Ander, quienes también han "sufrido" de cerca los años de tesis, y cada uno a su forma, me han hecho la ruta mucho más llevadera, especialmente en los momentos de cansancio.

Mención especial a mi aita y ama, a mi amama y a mi hermana Goizalde, que me llevan "aguantando" día a día 30 años y quienes han vivido de cerca todo este camino, por su apoyo y la ayuda prestada en todo momento y en todos los aspectos (no sólo un apoyo moral, sino también, en ocasiones, técnico). Porque han vivido todo el proceso, y han celebrado conmigo cada pequeño logro. No hay palabras ni páginas suficientes para transmitirles mi agradecimiento.

A Cristina, por su presencia y su apoyo en todo el recorrido; por ser el agua en este GR.

A todos ellos va dedicado este trabajo.

“The only ecological architecture is the one that is not built”

Frei Otto

"The idea that low energetic consumption buildings are respectful with the environment and that, through the construction of more buildings of this type, we will fulfill the promises done in the Rio de Janeiro Summit in order to reduce the emission of CO_2 *for 2005 to a 25 per cent of the existing ones in 1990, is, naturally, a stupidity. A new building never saves energy, but it generates new energetic needs, and the qualification of new land to urbanize is basically anti ecological."*

Gunther Moewes

Gaien aurkibidea / Table of contents

LABURPENA - RESUMEN - ABSTRACT

ESKERRAK – AGRADECIMIENTOS - ACKNOWLEDGEMENTS

GAIEN AURKIBIDEA / TABLE OF CONTENTS

NOMENKLATURA ETA LABURTZAPENAK / NOMENCLATURE

1. SARRERA

2. HELBURUA, EGITURA ETA METODOLOGIA

3. GIZARTE ETXEBIZITZAREN PORTAERA TERMIKOA. LANDA AZTERKETA

4. GIZARTE ETXEBIZITZA ADIERAZGARRIAREN ZEHATUTAKO AZTERKETA

CHAPTER 6. GREY BOX MODEL BASED ON RC-NETWORK. MODEL DEFINITION

CHAPTER 7. STRATEGIES TO REDUCE ENERGY CONSUMPTION

CHAPTER 8. DETAILED BUILDING-SCALE ANALYSIS. EXERGY APROACH

CHAPTER 9. CONCLUSIONS, CONTRIBUTIONS & FUTURE WORKS

APPENDICES - ERANSKINAK

Nomenklatura eta laburtzapenak / Nomenclature and Abbreviations

Abbreviations / Laburtzapenak

ASHRAE	American Society of Heating, Refrigerating and Air - conditioning Engineers
BSH	Bilbao Social Housing / Bilboko Udal Etxebizitzak
CDF	Cumulative distribution functions / Banaketa - funtzioak
CTE	Spanish Technical Building Code / Eraikuntzaren Kode Teknikoa
DHW	Domestic Hot Water / Etxeko ur bero
DPP	Depreciated Payback Period / Berreskuratze – denbora (depreziatua)
ESIR	Energy Savings to Investment Ratio / Energia-aurreztearen eta inbertsioaren arteko ratio
ESM	Energy Savings Measures / Energia Aurrezteko Neurriak
EUSTAT	Statistics of the Basque Country / Euskal Estatistika Erakundea
EVE	Basque Energy Agency / Energiaren Euskal Erakundea
INE	Spanish Statistical Office / Espainiako Estatistika Erakundea
IRR	Internal Return Rate / Barne-errendimenduaren tasa
LCA	Life Cycle Assessment / Bizi – zikloaren Azterketa
LCCE	Laboratory for the Quality Control in Buildings / Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategia
NG	Natural Gas / Gas Naturala
NPV	Net Present Value / Balio eguneratu garbia
P.E.	Primary Energy / Energia primarioa
PLR	Partial load operation / Karga partziala erabilera
PMV	Predicted Mean Vote
PPD	Predicted Percentage Dissatisfied
PRBS	Pseudorandom Binary Sequence
PWF	Present Worth Factor
RH	Relative Humidity / Hezetasun erlatiboa
ROLBS	Randomly Ordered Logarithmic distributed Binary Sequence
SIR	Savings to Investment Ratio / Aurreztearen eta inbertsioaren arteko ratio
TH	Thermo Hygrometer / Termohigrometroa

Nomenclature / Nomenklatura

A	Area / Azalera
C	Heat Capacity / Bero – ahalmena
c	Cost / Kostua
cp	Isobaric heat capacity / Bero – ahalmen espezifikoa (isobarikoa)
D	Exergy Destruction / Exergia - suntsiketa
E	Electricity / Elektrizitatea
e	Thickness / Lodiera
ED	Energy Demand / Energia - eskaria
En	Energy Consumption / Energia – kontsumoa
f	Expenses related to operation / Erabilerari lotutako gastuak
F	Exergy Factor / Exergia – faktorea
G	Global Irradiation / Erradiazio globala
H	Heating consumption (In Chapter 6, Conductance is also referred as H) / Berokuntza kontsumoa (6. Kapituluan, H konduktantzia da ere)
I	Investment / Inbertsioa
L	Exergy losses / Exergia – galerak
LS	Lifespan / Bizitza – teknikoa
m	Mass / Masa
N	Lifetime / Bizitza – teknikoaren urte kopurua
n	Time period / Epearen urte kopuru
P	Power / Potentzia
PEF	Primary Energy Factor / Energia primario faktorea
Q	Heat and sensible heat / Beroa eta bero sentigarria
r	Market discount rate / Merkatuaren deskontu tasa
R	Resistance / Erresistentzia
S	Savings / Aurrezteak
T	Temperature / Tenperatura
t	Time / Denbora
U	Heat Transfer Coefficient / Bero transferentziako koefizientea
V	Volume / Bolumena
Vent	Ventilation / Aireztapena
x	Exergy / Exergia

Greek symbols / Letra grekoak

Δ	Increment / Gehikuntza
ε	Emissivity / Emisibitatea
η	Energy Efficiency / Eraginkortasun energetikoa
ρ	Density / Dentsitatea
Φ	Flow / Fluxua
Ψ	Exergy Efficiency / Eraginkortasun exergetikoa
τ	Time constant / denbora - konstantea

Superscripts / Goi-indizeak

BB	Black Body / Gorputz - beltz

Subscripts / Azpiindizeak

0	Reference / Erreferentzia
a	Related to air / Aireari lotuta
aft	After / Ondorengo egoera
B	Related to Base Case / kasu – baseari lotuta
bef	Before / Aurretiko egoera
c	Related to heaters / Berogailuei lotuta
CHP	Related to co - generation system / Baterako sorkuntza sistemei lotuta
conv	Related to convection / Konbentzioari lotuta
del	delivered / Gorputz - beltz
dem	demand / Hornitutakoa
e	Related to envelope / Inguratzaileari lotuta
E	Related to Electricity / Elektrizitateari lotuta
str	Related to structure / Egiturari lotuta
exp	exported / Esportatuta
ext	Related to external / Kanpoko egoerari lotuta
fi	Related to floor / Beheko forjatuari lotuta
fs	Related to ceiling / Goiko forjatuari lotuta
h	Related to horizontal / Horizontalari lotuta
H	Related to heating system / Berokuntza sistemari lotuta

HR	Related to heat recovery / bero – berreskuratzaileari lotuta
i	Stream / Korrontea
in	Indoor / Barne
inf	infiltrations / Infiltrazioak
inl	inlet / Sarrerako (korrontea)
Inp	Input / Sarrerako (datuak)
int	internal / Barneko
m	Related to indoor partitions / Barneko paretei lotuta
max	Maximum / Maximoa
min	Minimum / Minimoa
op	Operative (temperature) / (tenperatura) operatiboa
out	Outdoor / Kanpoko
outl	outlet / Irteerako (korrontea)
outp	output / Irteerako (datuak)
p	Related to pillars / Zutabeei lotuta
rad	Related to radiation / Erradiazioari lotuta
ret	return / Itzulera
s	Related to solar / Eguzkiari lotuta
sol	solar gains / Eguzki – irabaziei lotuta
sp	Setpoint
ST	Related to Solar thermal / Eguzki – energia termikoari lotuta
sum	Related to summer / Udari lotuta
sup	Supply / Hornidura
surf	Related to surface / Azalari lotuta
TES	Related to Thermal energy storage system / Energia termiko metatzeko sistemari lotuta
TESHT	Related to TES (High temperature) / TES-ari lotuta (tenperatura altuak)
TESLT	Related to TES (low temperature) / TES-ari lotuta (tenperatura baxuak)
trans	Transmission / Transmisioa
vent	ventilation / Aireztapena
v	Related to vertical / Bertikalari lotuta
w	Related to windows / Leihoei lotuta
wint	Related to winter / Neguari lotuta
X	related to exergy / Exergiari lotuta

1. ATALA
LITERATURA AZTERTZEA
PART 1. STATE OF ART

> *"If Nature had been comfortable, man never would have invented architecture"*
>
> *Oscar Wilde (1854 - 1900)*

1. KAPITULUA

SARRERA

LABURPENA

Kapitulu hauetan, tesi honen sarrera aurkezten da. Eraikinen birgaikuntza energetikoaren efektuak eta motibazioak (ez soilik energiari lotutako alderdiak, baizik eta alderdi sozialak eta ekonomikoak ere). Geroago, Eraikinen birgaikuntza energetikoaren elementu giltzagarrienen literatura aztertze bat aurkezten da: teknologia eskuragarriak eta ohiko estrategiak (Isolamendu termikoan eta inertzia termikoan oinarritutakoak, batik bat); eraginkortasun energetikoaren ebaluazioa eta biztanleen portaeraren eraginak eraikinen energia – kontsumoan; eraginkortasunari buruzko lege – eremua; amaitzeko, Euskal eraikin parkearen ezaugarriei buruzko ikuspegi orokorrean, eta parke honen sailkapen bat garatzen dira.

ABSTRACT

This chapter presents the introduction of this thesis. It starts a brief mention to the effects and motivations of energy renovations in buildings (not only energy aspects, but also social and economic aspects). Afterwards, a literature review of the different key elements of energy renovations in buildings is presented: available technologies and usual strategies (mainly based on Thermal insulation and/or thermal inertia); evaluation of energy efficiency and the effects of users and occupants on energy consumption; the legal framework on this field; and finally, an overview of the Basque building stock characteristics and its classification.

1 Sarrera

Gaur egun, fosil energia iturrien agorpena dela eta, baita berotze globaletik ere, energia sistema jasangarriak garatzea gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da [1]. Energia kontsumoa murrizteko hiru aukera daude: energia eskaria txikiagotu, sistemen eraginkortasun energetikoa maximizatu, eta energia baliabide berriztagarriak erabili.

Hauen guztien ondorioz, herrialde askotan, karbono dioxidoaren isuriak murrizteko helburua duten lege anitz garatu dira. Aldi berean, gobernu askok energia berriztagarrien erabilera proportzioa handitzeko neurriak ezarri dituzte.

Eraikinek eragin handia daukate baliabide naturalen kontsumoan, baita karbono dioxidoaren isurietan ere. Horrez gain, eraikinetako kontsumoak gora egin du azken urteetan, biztanleriaren hazkundea, barne ingurune osasuntsuagoa, erosoagoa eta produktiboagoaren eskaria, klima aldaketa globala, etabarren ondorioz. Gaur egun, eraikinetan erabiltzen den energia kontsumoa Europar Batasuneko energia kontsumo osoko %40 baino gehiago da [2].

Horregatik, berrikuntza giltzagarria bihurtu da eraikinetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Espainiako Herri Lan Ministerioaren datuen arabera, 26 milioi etxebizitza baino gehiago zeuden 2011. urtean [3], 2002. urtetik 2008. urtera bitarteko aldian, %2.5eko urteko batez besteko hazkundea izan zelarik. Hala ere, 2008. urtetik hona, etxebizitzen eraikuntza erritmoa jaitsi da: adibidez, 2010. urtean, etxebizitza parkea %1.08 handitu zen soilik.

Bestalde, Espainiako Estatistika Erakundeak (INE) garatu zuen biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuak Espainiako etxebizitza parkearen %56 1979. urtea baino lehen eraiki zela erakusten du, hau da, Espainiako aurreneko eraikinetako erregulazio termikoa (NBE - CT 79) onartu aurretik. Euskal Autonomia Erkidegoko egoera oso antzekoa da. Euskal etxebizitza parkearen %70 1980. urtea baino lehen eraiki zen [4]. Beraz, energia kontsumoa murrizteko esfortzurik handienak existitzen den etxebizitza parkera bideratuta izan behar dira. Alabaina, existitzen den etxebizitza bakoitzean egindako inbertsioari so eginez, Europar Batasuneko kopururik txikiena Espainia dagoela ondorioztatzen da (%30 inguru); Suedian edo Erresuma Batuan, ordea, ratio hauek %67.9 eta %62.1 dira hurrenez hurren [5].

Bien bitartean, gobernu askok esfortzu garrantzitsuak egin dituzte beraien etxebizitza parkearen energia - eraginkortasuna sustatzeko eta hobetzeko. Aldi berean, eraginkortasun hori hobetzera bideratuta diren aukerak aztertzeko eta garatzeko hainbat ikerketa egin dira, hala nola [6,7].

Ikerketa ugarik frogatu dutenez, eraikinen birgaitze energetikoak onura asko dauzka, baina erronkak ere badituztela aipatu beharra dago. Alde batetik, eraikinen birgaitze energetikoaren bidez, energia eraginkortasuna hobetzea, mantentze lanetako gastua urritzea edo etxebizitzaren barneko erosotasun termikoa gehitzea lor daiteke. Eskala handiagoan, eraikinen birgaitze energetiko estrategia batek energia ziurtasun nazionala handitzea eta enplegua sortzea lor dezake.

Bestetik, erronka handienetako bat estrategiaren hautaketan eragiten duten ziurgabetasunak dira (okupazio profila, gobernuen politikak, etab). Eraikinetako azpisistema ezberdinetako elkarrekintzek ere eragina dute, hautaketa hau konplexuagoa bihurtuz. Gobernuen diru laguntzak baldin ez badaude, etxebizitza alokairua hedatuta dagoen herrialdetan *"Split incentives"* (zatitutako sustapenak) beste oztopo bat dira, normalean birgaitzearen kostua etxebizitzen jabeei egokitzen baitzaie, nahiz eta birgaitzen onurei, berriz, errentariek onura ateratzen dizkieten. Hala eta guztiz ere, kontu hau ez luke arazo bat izan behar Espainian, herrialdeko biztanle gehienak bere etxebizitzaren jabe baitira. Alderdi honi oso lotuta dagoen beste oztopo mota bat biztanleen egoera ekonomikoa da [8]. Laburbilduz, aurretik aipatutako abantailak eta desabantailak kontuan hartzea, eta oreka egokiena aurkitzea beharrezkoak dira edozein eraikinen birgaitze proiektu iraunkorrean.

2 Eraikinen birgaitzeko ondorioak gizartean

Eraikinen birgaitzeak karbono dioxidoaren isuriak murrizteaz eta energia aurrezteaz gain alderdi ekonomiko eta sozialean ere onurak sortzen ditu. Haietako bat energia pobrezia deritzonaren murriztapena da. Energia pobreziak, bata eta besteari eragiten die. Energia pobreziaren inguruko literatura eta bibliografia nagusiena 1.1. eranskinean biltzen eta aurkezten da.

Beraz, pobrezia energetikoa kontuan hartuz, existitzen diren etxebizitza - eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzea estrategia nagusienetako bat da, karbono dioxidoaren isuriak murrizteko ez ezik, bero eskuragarria etxebizitzetara banatzeko ere. Bi alderdi hauek, hau da, energia - aurrezteak zein barne erosotasunaren hobekuntzak, birgaitze energetikorako proiektuetan kontuan hartu behar dira.

Izan ere, Baek eta Park-ek [5] etxebizitzen birgaitzearen politiketan lau helburu identifikatzen dituzte: portaera fisikoa hobetu, hirugarren adineko beharrekin bat etorri, energia - eraginkortasuna eta gizarte kohesioa hobetu eta ingurua biziberritu. Horietaz, energia primarioa murriztea eraikinen birgaitzea bultzatzeko beste arrazoi bat baino ez da, eta administraritzentzat eta gobernuentzat alderdi sozialak motibaziorik handienetako batzuk dira sarritan.

3 Giltzarri elementuak eraikinen birgaitze energetikoetan

M. Za et al.-ek aurkezten duten hautaketaren arabera [8], zeinahi eraikinen birgaitze energetikoan dauden giltzarri elementu batzuk deskribatzen dira atal honetan.

- **Eraikinari buruzko informazioa**

Kokapen geografikoa, eraikuntza - mota, neurria, antzinatasuna, erabilera, energia - iturriak eta eraikuntza ezaugarriak esaterako. Eraikin bat ahalik eta ondoen ezagutzen lehen urratsa izango da geroago birgaitzeko estrategikorik onena zehazteko.

- **Bezeroen baliabideak**

Bezeroen xedeek eta, batez ere, beraien baliabideek, proiektu baten helburuetan eragin handia daukate. Doktorego - tesi honek gizarte etxebizitzetan jarriko du arreta. Egoera hau errenta - maila txikia duen biztanleriari dago lotuta sarritan, baita haien baliabideei ere.

- **Birgaitze teknologiak**

Birgaitze energetiko baten irismena birgaitzerako eskuragarri dagoen teknologiaren arabera izango da. Birgaitze energetikorik onenak energia - eraginkortasunaren hobekuntza eta karbono dioxido isurien murrizketa bateratuko ditu. Hori dela eta, kostu - onuraren ikuspegitik, bi neurri hauen arteko oreka aurkitzea garrantzizkoa da. Kontu honetako laburpen bat kapitulu honen 4. atalean aurkezten da.

- **Giza faktorea**

Giza - faktoreak eraikinen energia - portaeran ondorioak izaten dituzte era berean. Erosotasun baldintzak, mantentze - lanak, erabilera eta eraikinen kudeaketa arlo honetan sartuta daude. Energia analisia egitean, birgaitze baten aurretik zein ondoren eragin hau kontuan hartzeko beharra dago. Kapitulu honen 5. atalean alderdi hauen inguruko literatura eta bibliografia nagusiena biltzen eta aurkezten da.

- **Politikak eta arauak**

Politiketan eta arauetan eraginkortasun energetikoaren estandarrak aurkezten dira. Haietan, eraginkortasun energetikoari dagokionez, eraikinen birgaitzerako gutxieneko baldintzak ezartzen dira. Batzuetan, Gobernuek eta administraritzek birgaitze energetikorako neurriak bultzatzeko diru - laguntzak eta erraztasun ekonomikoak eman ditzakete. Europar Batasuneko energia - arauei buruzko alderdi azpimarragarri batzuk kapitulu honen 6. atalean aurkezten dira.

- **Birgaitze energetikoari dagokion beste elementu garrantzitsu batzuk**

Z. Ma et al.-ek beste alderdi batzuk aurkezten dituzte [8]. Doktorego - tesi honen edukiak kontuan hartuz, jarraian aipatutakoak hartu dira interesagarrientzat:

- *Eraikin bakoitza bakarra da, ezaugarri ezberdinekin. Eraikin baten berriztatzerako onenak diren neurriak eraikin batean, agian ez dira egokiak beste eraikin batean.*

Horregatik, birgaitze arrakastatsu bat lortzeko edozein lan egin aurretik, eraikinaren analisi zuzena giltzarria da.

- *Eraikineko azpisistemen izaera elkarreragilearen ondorioz, Energia Aurrezteko Neurri anitz erabiltzearen onurak (ESM ingelesez: Energy Savings Measures) ez dira banakako ESM onuren batura, [9].*

Gai honi dagokionez, doktorego - tesi honetan ikuspegi sistemiko bat erabiltzen da, 3. kapituluan aurkezten den bezala.

- *Optimizazioa eredutan oinarritutako edo eredu gabeko hurbilketak erabiliz garatu daiteke.*

Horrela, tesi honetan, eredutan oinarritutako hurbilketa garatzen da; hau da, simulazio energetikoen bidez, hainbat Energia Aurrezteko Neurrien bidez lortutako energia - aurrezteak kalkulatzen dira. Ikerketa honen atal esperimentalaren ostean (3. eta 4. kapituluak), bi simulazio eredu erabiltzen dira, eta elkarren arteko konparaketa garatzen da (5. eta 6. kapituluak). Ondoren, hauetako eredu baten erabilera aurkezten da 7. eta 8. kapituluetan, etorkizunean egin ahal diren analisientzako hobetze iradokizun batzuk proposatuz.

4 Teknologia eskuragarriak eta ohiko estrategiak

T1.1 taulan aurkezten den bezala, birgaitze energetikorako neurrien sailkapena, lau azpi taldeetan zatitu daiteke. Alde batetik, birgaitze energetikoak eraikinetan daukaten portaeraren arabera banatu daitezke (pasiboa eta aktiboa). Bestalde, estrategia motaren arabera beste sailkapen bat egin daiteke, bi estrategia mota bereiziz: energia eskaera murrizteko estrategiak batetik (bero - galerak sahiestuz), eta inguruko energia - fluxuei probetxu ateratzeko estrategiak bestetik (eraikinaren energia sarrerak erabiliz; esaterako fatxadetako inertzia termikoa areagotzea, metatze termikoaren probetxu ateratzeko).

Eraikinen birgaitze energetikoaren beste sailkapen bat birgaitzean jorratutako elementuan oinarritzen da. Ikuspuntu honi dagokionez, hiru estrategia identifikatu daitezke: fatxadaren portaera termikoa hobetu, leihoen portaera termikoa hobetu eta instalazioen eraginkortasun energetikoak hobetu. Teknologia eta estrategia hauei buruzko alderdi azpimarragarri batzuk atal honetan aurkezten dira.

	Energia eskaera murrizteko	**Inguruko energia - fluxuen erabilera**
Portaera pasiboa	- Isolamendu termikoa fatxadetan - Leiho - aldaketak - Infiltrazioa murriztu	- Metatze termikoa - Aireztapen naturala - Beroaren berreskuratzea
Portaera aktiboa	- Instalazio eraginkorrak	- Eguzki - instalazio termikoak - Eguzki - instalazio fotovoltaikoa - Biomasa - energia - Energia geotermikoa

T1.1. Eraikinen birgaitzerako teknologien sailkapena

4.1 Erakinen fatxaden hobekuntza

Eraikinen fatxadei dagokionez, bi estrategia bereizi daitezke: fatxadaren erresistentzia termikoa hobetzera bideratzen diren estrategiak eta eraikinaren inertzia termikoa aldatzera bideratzen direnak.

4.1.1 Isolamendu termikoa

Isolamendu termikoa funtsezkoa da energia - aurrezteak lortzeko. Isolamendu termikoari esker, fatxadetan bero - transferentzia murriztu ez ezik beste arazo batzuk ere saihesten dira, kondentsazioak paretetan esaterako. Horrenbestez, ikerketa ugari egin dira eraikinen isolamendu termikoen erabilerari buruz. Adibidez, Papadopoulos-ek isolamendu termikoen ezaugarri nagusiei eta Europan ematen zaien erabilerei buruzko lana aurkezten du [10].

Isolamendu termikoei dagokionez, bi alderdi azpimarratu daitezke: materialen ezaugarriei lotuta daudenak, eta lodiera – optimizazioari lotuta daudenak.

4.1.1.1 Isolamendu termikoak. Materialak

Al – Homoud-ek isolamendu termikoak energia - eskaria murrizteko duen garrantzia nabarmentzen du [11]. Berak, isolamendu termikoaren printzipioei buruzko ikuspegi orokorra aurkezten du halaber, eta ohiko materialen ezaugarriak biltzen ditu, erresistentzia termikoa, su - erresistentzia, iraunkortasuna, osasun arriskua edo kostua esaterako. Era berean, Lollini et al.-ek isolamenduek inguruan eta energia kontsumoan dituzten eraginak aztertzen dituzte [12]. Lehenik eta behin, eraikinetan erabili ohi diren isolamendu termikoen kostu - analisia garatzen dute, arreta italiar merkatuan jarriz. Fabrikazio - prozesuek ingurumenaren gainean duten eraginaren ebaluazioari buruzko literatura ugaria da. Papadopoulus-ek eta Giama-k bi isolamendu termikoren fabrikazio - prozesua aztertzen dute, bizi zikloren analisiaren bidez.

Areago, ikerketa batzuk hezetasun eta eroankortasun termikoaren bitarteko erlazioan kontzentratzen dira [13], baita tenperatura eta eroankortasun termikoaren bitarteko erlazioan ere [14].

4.1.1.2 Optimizazioa

[15]erreferentzian aipatzen denez, isolamendu termiko gehiagoren erabilerak ez du zertan emaitza hobeetan bihurtu. Izan ere, isolamendu termiko mota erabakitzea eta bere lodiera ekonomikoa kalkulatzea gai nagusiak dira ikerketa askotan. Isolamendu termikoaren optimizazioa alderdi ezberdinen araberakoa da, hala nola klima, barne baldintzak, erabilitako erregaia, erregaiaren kostua, isolamendu termikoaren kostua eta ezaugarriak, interes - tasa, inflazio tasa eta materialaren iraunkortasuna.

Ikerketa askotan isolamenduren lodiera hobezina kalkulatzen da hozte edo berokuntza - kargak kontuan hartuz; beste batzuk, ostera, bata eta bestea kontuan hartzen dira.

Aurkitutako erreferentzia askotan, egun - gradu kontzeptua erabiltzen da energia - eskaria kalkulatzeko. Kontzeptu hau, metodorik errazenetako bat izanda, egoera geldikorrak kontsideratuz erabiltzen da [16].

Hasan-ek ikuspegi sistemiko bat aurkezten du, Palestinako baldintzetarako erabiliz [17]. Ucar-ek eta Balok isolamenduaren lodiera hobezina Turkiako lau zonaldetan baldintzarako kalkulatzen dute [18]. Batan zein bestean 10 urteko iraunkortasuna onartzen da. Isolamenduaren lodiera optimizatuz, A. Hasan-ek 1 – 1.7 urteetako berreskuratze - denbora lortzen du arroka - zuntz erabiliz gero, eta 1.3 - 2.3 urteetakoa poliestireno erabilita. Özkan-ek eta Onan-ek fatxadaren eta leihoen azaleraren bitarteko proportzioa kontuan hartzen dute isolamenduaren lodiera hobezina ateratzeko [19].

Artikulu kopuru txiki batean, metodologia dinamikoak erabiltzen dira fatxadetako bero transferentzia zenbatzeko. Adibide bat [20] artikuluan aurkitzen da, non Energy Plus deritzon programaren bidezko simulazio dinamikoa erabiltzen da.

Analisi ekonomikoei dagokienez, hiru metodo dira nagusiki isolamendu termikoaren lodiera optimizatzeko erabiltzen direnak.

Alde batetik, berreskuratze - denbora sinplea (*simple - payback*) metodoa dago. Metodo honen bitartez, inbestitze bat berreskuratzeko behar den denbora zenbatzen da. Metodo honen desabantailarik handiena balio - galtzearen tasa kontuan ez hartzean datza.

Bizi - zikloaren kostuaren analisia metodorik ohikoena da. Sistema baten kostua bere bizitza osoan zehar zenbatzen da. 10, 20, 25 edo 30 urteko bizitza onartu daiteke, ikertzaileen arabera. Kasu honetan, energia - aurrezteak *"Present worth Factor"* (PWF) erabiliz kalkulatzen dira. PWF inflazio eta deskontu - tasa kontuan hartuz ateratzen da. Adibide bat [21] erreferentzian aurkitu daiteke.

Azkenik, beste ikerketetan P_1 - P_2 deritzon metodoa erabiltzen da, [22] esaterako. P_1 konstantea aipatutako PWF da. Konstante hau ateratzeko, hiru aldagai hartu behar dira kontuan: iraunkorra *(n)*, operazioaren gastuen inflazio - tasa *(f)* eta deskontu - tasa *(r)*. Askotan, erregaiaren kostua inflazio - kostua kontuan hartzen da ere bai. P_2 bizi zikloen gastuen eta hasierako inbestitzearen arteko ratio bat da. Inbestitze gehiago egon ezik (hasierako inbestitze salbu), $P_2=1$ onartu daiteke [23].

Literaturan beste alderdi gehiago ikasten dira ere bai, hala nola isolamendu termikoaren kokapenaren eragina zein den [24]. Analisi ekonomikoei buruzko informazio gehiago doktorego - tesi honen 7. kapituluan ematen da. Kapitulu horretan, ESM batzuk ekonomiaren ikuspuntutik aztertzen dira.

4.1.2 Inertzia termikoa

Inertzia termikoa ere funtsezkoa da energia - aurrezteak lortzeko. Inertzia termikoak eta isolamendu termikoak portaera fisiko ezberdinak dauzkate eraikinetan. Isolamendu termikoak bero - fluxua murrizten du fatxadetan; inertzia termikoa, berriz, beroa metatzeko aukera ematen du bero gehiegi dagoenean, bero hori epe freskoagoetan eskatuz.

Nahiz eta eraikinen inertzia termikoaren azterketa tesi honen irismenaren kanpoan dagoen, inertzia termikoa kontuan hartu behar da edozein eraikinaren azterketa energetikoa egiterakoan. Al – Homoud-ek masa termikoaren eraginak biltzen ditu [11]. Besteak beste alderdien artean, Al – Homoud-ek masa termikoak eguneko gradiente – termiko handiak dituzten klima lehorretan duen garrantzia azpimarratzen du. Al – Homoud-ek dioenez, isolamendu termikoa, berriz, esanguratsuagoa da klima hezeetan, eguneroko tenperaturaren aldaketak.

4.2 Leihoen portaera termikoaren hobekuntza

Eraikinen kontsumo energetikoa murriztean arreta jartzen duten ikerketen artean, asko dira leiho energia eraginkorren erabilera hozte eta berokuntza kargak murrizten duen garrantzia azpimarratzen dutenak. Leihoetako bero - fluxu hiru osagaitan deskonposatu daiteke: beroaren eroapena, leihoaren erresistentzia termikoarekin erlazionatuta dagoena; eguzki - erradiazioaren bidezko bero irabaziak, *g - balio*ren arabera; eta infiltrazioa, aire isuriei lotutakoa. Ikerketa batzuek diotenez kalitate txarreko leihoek energia galera handia suposa dezakete. Haietako batzuk hurrengo paragrafoetan aipatzen dira.

Horrela, Bojic et al.-ek [25] simulazio energetiko baten bidez, leihoa batuek Txinako bi etxebizitzen energia kontsumoan dituzten efektuak aztertzen dituzte. Era berean, Stegou - Sagia et al.-ek [26], simulazio energetikoa erabiliz, leiho batzuen eraginei buruzko ikerketa geratu zuten, leiho eta fatxadaren arteko ratioa kontuan hartuz. Itzala egiten duten elementuk klima beroetan dituen ondorioak aztertzen dituzten ikerketak literaturan aurkitzen dira halaber. Esaterako, Ebrahimpour-ek eta Maerefat-ek [27] Energy Plus programa erabiliz kalkulatzen dute energia kontsumoa, arreta fatxaden irtengunetako itzalaren efektuetan jarriz.

Urbikainek eta Salak [28] etxebizitzen energia - aurrezteak zenbatzeko hiru metodo aztertzen dituzte. Ikerketa honen egileek leihoentzako puntuazio energetiko sistema bat (*Windows Energy Rating System*, WERS) proposatzen dute.

4.3 Instalazioen etekinaren hobekuntza

Instalazioen hobetzea eraikin baten eraginkortasun energetikoa hobetzeko beste aukera bat da. Gai honi buruz, ikuspuntu ezberdinetatik jorratutako ikerketa asko egin dira azken urteetan, bai instalazio baten elementu bakarrean arreta jarriz, bai instalazio baten konfigurazio osoa kontuan hartuz. Kontu honi buruzko erreferentzia batzuk 8. kapituluan aipatzen dira, arreta ebaluaketa exergetikoan jarriz.

5 Eraginkortasun energetikoaren azterketa

Atal honetan eraginkortasun energetikoa aztertzean kontuan hartu behar diren bost faktoreak deskribatzen dira. Alde batetik, biztanleen portaerak eragin handia izan dezake edozein eraikinaren portaera energetikoan. Halaber, *"rebound effect"* deritzona (*errebote efektua*) biztanleekin erlazionatuta dago ere bai. Gai hau 5.2. atalean deskribatzen da laburki. Bestetik, literaturaren arabera, badaude eraikinen eraginkortasun energetikoa aztertzean kontuan hartu beharreko ratio batzuk. Ratio hauek 5.3 atalean aurkezten dira.

5.1 Biztanleen portaeraren eragina

Biztanleen portaerak eraikinen energia kontsumoan duen eraginari dagokionez, Annex 53-ek efektu handia eduki dezakeela adierazten du. Efektu honen eragina eraikinaren ezaugarri fisikoek edo beste faktoreek dutena baino handiagoa izan daiteke [29]. Ikerketa batzuk antzeko eraikinen energia kontsumoan alde handia nabarmentzen dute, biztanleen portaera dela eta [30,31]. Esaterako, van der Aa-k energia erabilera, biztanle - profil eta portaera ereduen arteko harremanak aztertzen ditu [32] erreferentzian.

Gai hau argitzeko asmoz, [33] erreferentziatik hartutako grafiko adierazgarria I1.1 irudian erakusten da. Grafiko honetan, antzeko 110 etxebizitzaren energia - erabilerak irudikatzen dira, energia - erabilerarik handiena energia - erabilerarik txikiena baino 12 aldiz handiagoa izanik. Biztanleen portaera salbu, etxebizitza denek antzeko ezaugarriak zeuzkaten.

Horregatik, eraikinetako energia aurrezteak intereseko gai izan da gizarte psikologiako arloan ere. 1970eko hamarkadako testuingurua krisi energetikoa bazen; gaur egungoari, ingurumen arazoak (hala nola, berotze globala) ere gehitu zaizkio. Energia - erabilera, beraz, gizakien portaerari lotuta dago eta, ondorioz, portaera - aldaketen bidez murriztu daiteke [34].



I1.1. Energia - eskaria [GJ] 110 antzeko etxebizitzatan

Doktorego - tesi honen helburu diren gizarte etxebizitzetan efektu hau gehiago nabaritzen da. Brunner et al.-ek errenta txikien eta etxebizitzatako biztanleen portaeraren arteko harremanari buruzko gogoeta interesgarri batzuk nabarmentzen dituzte. Egileek "*eguneroko bizitzaren maila askotan normaltzat hartzen duten estandarrak pixkanaka - pixkanaka handitu diren bitartean (esaterako, eraikinen barruko erosotasun tenperatura, E. Shove-k dioenez), errenta txikiak dituzten ikertutako familiek beraien bizitza estandarrak beheratu zituzten beraien mugaketei aurre emateko,"normaltzat" hartzen diren egoerak baino baxuagoetara moldatuz* [35]*"* azpimarratzen dute.

5.2 *Rebound Effect* (errebote efektua)

Eraikin baten birgaitze energetiko bat aztertzean kontuan hartu behar den beste faktore bat errebote efektua da [36]. Errebote efektua (*Rebound effect*, edo *take - back effect*, ingelesez) definitu zuen lehen ikertzailea Daniel Khazzom izan zen. Errebote efektuak energia - erabileraren eraginkortasun energetikoaren hobekuntzaren ondorioz sistema energetiko baten energia – eskarian ematen den igoera adierazten du [37]. Errebote efektuak sistema energetikoen kostu baxuagoek (eraginkortasun energetikoaren hobekuntzaren ondorioz) biztanleen portaeran daukaten efektua azaltzen du. Birgaitzearen ondorioz aurrezten den energiaren kontsumitutako zatia da, bai sistema ordu gehiagotan zehar erabiltzen delako, bai sistemaren produktuen kalitatea handiagoa delako birgaitzearen ondoren [38]. *Backfire* deritzona eraginkortasun energetikoa hobetu eta gero emateten den energia eskariaren handiagotzea da. Kontzeptu hauetako definizio zehatzak [39] erreferentzian ematen dira.

Ikerketa askok errebote efektuak eraikinen birgaitze energetikoengan dituen ondorioak aztertu dituzte, esaterako [40]. I. Hamilton et al.-ek errebote efektua zenbatzeko metodologia bat aurkezten dute [41]. M. Shipworth-en ikerketa batean [42], eraikin batzuen energia erabilera birgaitze energetikoa egin eta gero ez zen izan espero bezain ona, nahiz eta eraikinen eraginkortasun energetikoa handiagotu zen. Efektu hau, biztanleek eskatzen ez zuten arren barneko tenperaturen igoeraren ondorio zen. Era berean, ikerketa batzuek eraginkortasun energetikoaren hobekuntzek espero ziren energia - eskarien murrizketak ez lortzea balitekeela adierazten dute, nahiz eta konforteko hobekuntzak kontuan hartu [43].

5.3 Eraikinen eraginkortasun energetikoa neurtzeko parametroak

Eraikinen birgaitzeekin lortutako emaitzak ebaluatzeko parametro eta irizpide ezberdinatik erabili daitezke. Eraginkortasun energetikoari lotutako batzuk *Energy Efficiency E - Houses* deritzon europar proiektuan [44] aurkezten dira. Ratio hauek lau taldetan bildu daitezke:

- *Parametro teknikoak:* Energia aurrezteak zenbatzeko erabilgarriak direnak, eta beraz, eraginkortasun energetikoa neurtzeko.
- *Ingurumen - parametroak:* Parametro teknikoei oso lotuta daudenak, hauen araberakoak dira eta. Hau da, adibidez, zenbat eta kontsumo energetikoa txikiagoa izan, hainbat eta isuri gutxiago izan.
- *Parametro ekonomikoak:* kontsumo energetiko eta energiaren kostuei lotuta daudenak.
- *Gizarte parametroak:* eraikinen barneko erosotasunarekin erlazionatuta daudenak. Eraikinaren baldintza orokorrek erosotasunari eragiten diote (eraikuntzan erabilitako teknikak, eraikinaren inguratzaile termikoa eta barne - banaketa), baita sistema energetikoek eta mantentze - lanek ere (biztanleen portaera eta sistema energetikoa azpisistemak).

Lehen hiru parametro - motak neurri daitezke. Gizarte parametroak, ordea, soilik zeharka puntuatu daitezke. T1.2 eta T1.3 tauletan aurkeztutako zerrendetan aipatutako parametroak biltzen dira. Haietako batzuek bi eszenario elkarrekin konparatzean jartzen dute arreta (birgaitze egin baino lehen eta birgaitzea egin ondoren, adibidez); Hala ere, gehienak ez dira soilik erabiltzen birgaitze energetikoak ebaluatzeko, baizik eta edozein eraikien eraginkortasun energetikoa ebaluatzeko.

Taldea	Azpitaldea	Kontzeptua	Unitateak
Parametro Teknikoak	Berokuntza	Berokuntzarako kontsumoa (pertsonako)	[kWh/pertsona]
		Berokuntzarako kontsumoa (m^2 bakoitzeko)	[kWh/m^2]
		Berokuntzarako kontsumoa (berokuntzako egun - gradu)	[kWh/HDD]
		Energia primarioaren kontsumoa (m^2 bakoitzeko)	[kWh_{PE}/m^2]
	Hoztea	hozterako kontsumoa (pertsonako)	[kWh/ pertsona]
		hozterako kontsumoa (m^2 bakoitzeko)	[kWh/m^2]
		hozterako kontsumoa (berokuntzako egun - gradu)	[kWh/CDD]
		Energia primarioaren kontsumoa (m^2 bakoitzeko)	[kWh_{PE}/m^2]
	Argiztatzea	Argiztatze - kontsumoa (pertsonako)	[kWh/ pertsona]
		Argiztatze - kontsumoa (m^2 bakoitzeko)	[kWh/m^2]
		Energia primarioaren kontsumoa	[kWh_{PE}/m^2]
	Etxetresna elektrikoak	Etxetresna elektrikoen kontsumoa (pertsonako)	[kWh/ pertsona]
		Energia primarioaren kontsumoa (pertsonako)	[kWh_{PE}/ pertsona]
	Ur kontsumoa	Ur kontsumoa (pertsona bakoitzeko)	[litre/ pertsona]
	Etxeko Ur beroa (Eguzki energia termikoa)	Etxeko ur bero kontsumoa (pertsonako)	[kWh/ pertsona]
		Energia primarioaren kontsumoa (pertsonako)	[kWh_{PE}/ pertsona]
	Besteak	Beste kontsumoak (pertsonako)	[kWh/ pertsona]
		Beste kontsumoak (m^2 bakoitzeko)	[kWh/m^2]
		Energia berriztagarrien ehunekoa	[%]

T1.2. Eraginkortasun energetikoa eraikinetan aztertzeko parametro teknikoak

Taldea	Azpitaldea	Kontzeptua	Unitateak
Ingurumen - parametroak	Berokuntza, Hoztea, Argiztea	CO_2 isuriak (m^2 bakoitzeko)	[CO_2/m^2]
		Saihestutako CO_2 isuriak (m^2 bakoitzeko)	[CO_2/m^2]
	Etxetresna elektronikoa Etxeko ur beroa,	CO_2 isuriak (pertsona bakoitzeko)	[CO_2/pertsona]
		Saihestutako CO_2 isuriak (pertsona bakoitzeko)	[CO_2/pertsona]
Parametro ekonomikoak	Sistema guztiak	Energiaren kostua (pertsona bakoitzeko)	[€/pertsona]
		Energiaren kostua (m^2 bakoitzeko)	[€/m^2]
		Energiaren kostua (diru - sarrera per capita kontuan hartuz)	[€/pertsona/ diru - sarrera per capita]
		Energia aurrezteen kostua	[€/kWh]
		Errentagarritasuna (*additional cost approach*)	[€]
		Errentagarritasuna (*full cost approach*)	[€]
		Finantziazio publikoa	[%]
Gizarte parametroak	Erosotasuna	Tenperatura	[ºC]
		Hezetasun erlatiboa	[%]
		Haizearen abiadura	[m/s]
		Predicted Mean Vote indizea (PMV)	[-]
		Percentage People Dissatisfied (PPD)	[%]

T1.3. Eraginkortasun energetikoa eraikinetan aztertzeko parametroak. Ingurumen parametroak, parametro ekonomikoak eta gizarte parametroak

6 Lege-eremua. Eraginkortasunari dagozkion sustapen - neurriak eta betebeharrak

Legeetan aipatutako betebeharrek eta sustapen – neurriek rol garrantzitsua jokatzen dute edozein herrialdeko eraikin parkearen eraginkortasun energetikoaren hobekuntzan. Gutxieneko betebeharrek alde batetik, eta eraikinen birgaitze energetikoa bultzatzeko sustapen - neurriek bestaldetik, birgaitzerako estrategietan eragin handia daukate.

Baek-ek eta Park-ek birgaitzerako politiken berrikuspen bat aurkeztu zuten 2012. urtean [5]. Artikulu honetan, lau europar herrialdetako birgaitzerako politikak (Frantzia, Alemania, Danimarka eta Suedia) zehazki aztertzen dira. Gaur egungo politikek, soilik ezaugarri fisikoen hobekuntza helburu zuten iraganeko politikak ez bezala, ikuspegi globalagoa dutela baieztatzen dute, arreta adineko biztanleriaren igoeran jartzen baitute, eraginkortasun energetikoa hobetuz eta segregazio soziala saihestuz.

Bi alderdi gehiago azpimarratu behar dira. Lehena sustapen ekonomikoei lotuta dago. Etxebizitzen birgaitze energetikorako diru laguntza asko aldatzen dira ikerketako lau herrialdeen arabera. Horrela, edadetuen erosotasuna beste kontsiderazioen gainetik baloratzen da Danimarkan. Sustapenerako diru laguntza lortutako eraginkortasun energetikoaren araberakoa da Alemanian (baita Herbeheretan ere), eta eraginkortasuna hobetzea politika horren helburu nagusia da. Frantzian, gizarteratzea da gehien baloratutako alderdia. Bigarren puntua eraikinetako nahitaezko egiaztapenei lotuta dago. Berotegi - efektuko gasen isuriak murrizteko egiaztapen hauek erabilgarriak badira ere, egileek egiaztapen hauek ezartzean oztopo batzuk aurkitzen direla baieztatzen dute. Kontrolak egiteko egokienak diren elementuak identifikatzea, baita kontrol subjektuak erabakitzen dituen zundaketa antolatzea ere, giltzagarriak dira arlo honetan.

2012. urteko lehen hiruhilekoan, eraikinen birgaitzeei lotutako arauen berrikustea egin zen. Analisi honetan, lau europar herrialdetako arauak (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Espainia) bata bestearekin konparatu ziren, arreta eraginkortasun energetikoarekin lotutako betebeharretan jarriz. Espainiako gutxieneko betebeharrak beste herrialdekoak baino baxuagoak direla azaltzen da txosten honetan. Alderdi honek Espainiako hobekuntza potentziala nahiko handia dela erakusten du. Gainera, txosten honen arabera, Espainian, orain arte, ez da egon interes handirik birgaitze energetikoetan, alderdi hau soilik azken urteetan kontuan hartzen hasi delarik, batez ere europar zuzentarauen ondorioz. Joera hau aldatzen hasi dela ematen du azken bolada honetan, eta gizartearen kontzientziazioa gai honengan nabarmenki handiagotu da. Izan ere, 2009 - 2012ko Espainiako Birgaitzerako Plana 2 milioi etxebizitza eta 150,000 eraikin baino gehiago birgaitzeko asmoa zeukan, 25,200 milioi euroko inbestitze batekin.

Europako Batasunaren beste estatu kideetan bezala, Europar zuzentarauek eragin handia daukate Espainiako legeetan. Eraikinen eraginkortasun energetikoari lotutako europar zuzentarauak laburki zerrendatzen dira T1.4 taulako ezkerreko zutabean.

Eskuinekoan, zuzentarau horren transposizioa ezartzen duten Espainiako legeak aurkezten dira.

EUROPAKO LEGE - EREMUA		**ESPAINIAKO LEGE - EREMUA**	
Urtea	**Izena**	**Urtea**	**Izena**
1993	*KONTSEILUAREN 93/76 ZUZENTARAUA*, energia - eraginkortasuna hobetuz karbono dioxido isurtzeen mugak jartzeari buruzkoa(SAVE)	1998	RITE 98 (Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia, EITA)
2002	*2002/91/EC ZUZENTARAUA*, eraikinen energia errendimenduari buruzkoa. (EPBD)	2006	CTE (Espainiako Eraikuntzaren Kode Teknikoa, EKT)
		2007	RITE 07(Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia, EITA)
		2007	47/2007 Errege Dekretua, eraikuntza berriko eraikinen energia - eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena
2004	*2004/8/EC ZUZENTARAUA*, energiaren barne merkatuan bero erabilgarriaren eskarian oinarrituta, baterako sorkuntzaren sustapenaz dihardueną		
2006	*2006/32/EC ZUZENTARAUA*, energiaren amaierako erabileraren eraginkortasunari eta energia - zerbitzuei buruzkoa		
2009	*2009/28/EC ZUZENTARAUA*, energia iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea sustatzen duena		Ezarri barik
2009	*2009/72/EC ZUZENTARAUA,* elektrizitatearen barne - merkatuaren inguruko arau komunak ezartzen dituena	2012	13/2012 Errege Dekretua
2009	*2009/73/EC ZUZENTARAUA,* gas naturalaren barne - merkatuaren inguruko arau komunak ezartzen dituena		
2010	*2010/31/EB ZUZENTARAUA,* eraikinen energia - errendimenduari buruzkoa (bat egitea)	2013	240/2011 Errege Dekretua, eraikin berrien eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria arautzen duena 235/2013 Errege Dekretua, eraikuntzen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena
2012	*2012/27/EB ZUZENTARAUA,* energia eraginkortasunari buruzkoa		

T1.4. Europar Zuzentarauak eta haien transposizioak Espainiako arauetan

Azkenik, 2010/31/EU zuzentarauari dagokionez, Espainian 235/2013 Errege Dekretuaren bidez ezartzen da. Dekretu hau eraikinen energia - eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen du (2013ko apirilaren 13ko BOEa, eta

47/2007 Errege Dekretua indargabetzen eta bat egiten ditu). Euskal Autonomia Erkidegoan, 235/2013 Errege Dekretua Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren kanpoko kontrola arautzeko 2012ko Abenduaren 12ko aginduen bidez moldatzen da (EHAA 2013 - 1 - 22), eta 2013ko Apirilaren 2ko aginduaren bidez (EHAA 2013 - 5 - 20), eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien erregistroari buruzkoa.

7 Euskadiko etxebizitza parkearen ezaugarriak

Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza parkea milioi bat etxebizitza inguruk osatzen dute. Euskadiko etxebizitzen batez besteko azalera 87 m^2 da. Familia - etxebizitza nagusiena da, guztikoaren %84 biltzen baitu. Etxebizitza horien %73 hiri - inguruneetan kokatzen da. Etxebizitzen kopurua biztanleena baino gehiago handiagotu da azken 20 urteetan. Horren ondorioz, etxebizitza bakoitzeko pertsona kopurua beheragotu da, 2.72tik 1991. urtean, 2.16ra 2010. urtean (I1.2 irudia).



I1.2. Eraikin kopurua Vs populazioa (EVE, EUSTAT)

Euskadiko etxebizitza parkearen bi alderdi azpimarratu behar dira. Lehena, haien antzinakotasunari lotuta dago. EUSTAT-en datuen arabera, ia etxebizitzen %50 1961. urtetik 1980. urtera arteko aldian eraiki zen, eta EAEko etxebizitzen batez besteko antzinatasuna 39 urtekoa da. Etxebizitzen banaketa, eraiki zuten urtearen araberakoa, I1.3 irudian irudikatzen da.

Gainera, bukatutako etxebizitza kopuruak gutxiagotze handia izan du azken urteetan. Sektore honek hazkunde handia izan zuen 90eko hamarkadaren amaieratik aurrera.

Goreneko garaia 2002. urtean izan zuen, 18,200 eraikitako etxebizitzakin. Hala ere, 2005 urtetik aurrera beheranzko joera izan du (esaterako, 2011. urtean 11,300 etxebizitza eraikitzen bukatu ziren). Kopuru horrek behera egiten jarraitu du: izan ere, 2009. urtetik 2011. urtera bitarteko aldian soilik 7500 etxebizitza hasi dira urtean, batez beste.



I1.3. Eraikin kopurua, haien antzinakotasunaren arabera (EVE, EUSTAT)

Bi alderdi hauek kontuan hartuz, eraikinen birgaitzeak rol garrantzitsua jokatuko du hurrengo urteetan eta, beraz, Euskal etxebizitza parkearen errendimendu termikoa hobetzeko aukera. Gai hau argitzeko, Euskal parkearen energia eta berotegi efektuko gasen emisioei buruzko berrikusketa aurkezten da 1.2. eranskinean.

7.1 Eraikin sailkapenaren irizpideak

Eraikin parkearen ezaugarriak ezagutzea hobekuntza potentziala aztertzeko funtsezko alderdi bat da, eta, horrenbestez, birgaitzerako lanei modu egokian aurre egiteko. Beste herrialde batzuetan bezala, Espainiako etxebizitza parkea bere antzinatasunaren arabera sailkatu daiteke. Aipatu bezala eraikin baten ezaugarriengan eragiten duten beste faktore batzuek egoera soziala eta ekonomikoa, edo aipatutako lege eremua dira, esaterako. Espainiako kasuan, XX. Mendeko lehen hamarkadetan, Espainiako hiri batzuen lehen industrializazioak landa - nukleoetatik hirietarako biztanleriaren lekualdatzea ekarri zuen. Honen ondorioz, industrializatutako eskualdetako eraikin kopurua handiagotu zen, Bilbon gertatu bezala.

Espainiako Gerra Zibilaren ondoren, gerraosteko aldia egon zen, 50eko hamarkada arte. Desarrollismoa hamarkada horretan hasi zen. Desarrollismoan zehar bigarren industrializazioa izan zen, eta horren ondorioz, 50eko hamarkadatik 60eko hamarkadako azken urteetara bitarteko aldian Bilboko etxebizitza parkearen %20 baino gehiago eraiki zen.

Hala eta guztiz ere, eredu ekonomiko hori, industria astunaren menpekoa (metalurgia eta ontzigintzaren sektorea, adibidez), 1973. urteko krisiaren ondorioz kolapsatu zen. Bilboren kasuan, krisi industriala oso gogorra izan zen, eta eraikuntzen murriztapen adierazgarria gertatu zen urte horretan.

Bestalde, 1973. urteko krisi energetikoa eta gero, beste europar herrialdetan bezala, Espainian ere isolamendu termikoaren gutxieneko betebeharrak indartu egin ziren. Helburu honekin, Espainiako lehen araudi termikoa 1979. urtean garatu zen. Hala ere, beste europar herrialdetan ez bezala, Espainian ez zen egon beste araudi termikorik 2006. urtera arte. Urte horretan, Espainiako Eraikuntzaren Kode Teknikoa (EKT) [45] indarrean sartu zen.



I1.4.Bilboko eraikin kopurua, haien antzinakotasunaren arabera. (2013. Urteko eraikin kopurua: 10,406, INE)

Euskal etxebizitza parkea sailkatzeko, Bilbokoa erreferentzia moduan hartzen da. Bilboko etxebizitza parkearen antzinakotasunaren araberako sailkapena I1.4 irudian irudikatzen da. Antzinakotasunari dagokionez, bost epe identifikatzen dira 1900 urtetik aurrera, aipatutako gertaera gogoangarriak kontuan hartuz (I1.5 irudian). Aldi bakoitzaren fatxaden zeharkako sekzio adierazgarriak T1.5 taulan aurkezten dira. C (bero - ahalmena) eta U – balioak Eq. 1 eta Eq. 2 ekuazioen arabera kalkulatzen dira.



I1.5. XX. Mendeko eraikuntzaren epeak Bilbon

$$U_i = \frac{1}{R_{in} + R_i + R_{out}} \tag*{Eq. 1}$$

$$C = \sum \rho_i \times c_{p,i} \times e_i \tag*{Eq. 2}$$

non:

- R_{in} barneko azalaren erresistentzia termikoa da (0.13 m^2K/W) [46]
- R_i eraikuntza elementuaren erresistentzia termikoa da
- R_{out} kanpoko azalaren erresistentzia termikoa da (0.04 m^2K/W) [46]
- ρ_i i materialaren dentsitatea da
- Cp_i i materialaren bero - ahalmen espezifikoa da
- E_i i geruzaren lodiera da

Aipatutako sekzioak, ondoren zerrendatuko den bezala, hiru talde nagusitan sailkatu daitezke, haien estrategia termikoaren arabera. Izan ere, hiru fatxadaren eraikuntza - mota erabili izan dira tradizionalki klima epeletako eraikinetan [47]:

- **Bero - ahalmena:** Eraikin tradizionaletan aurkitzen den estrategia, inertzia termiko altuarekin bere fatxadetan, bero metatze moduan jokatzen dutena. F.a. 1. talde honetan dago. Egile batzuek, esaterako Dili et al.-ek [48] edo S. Martín et al.-ek [49] sistema honen abantailak erakusten dituzte (I1.6. irudian ezkerrean).
- **Geruzapena:** geruza askoko inguratzaileetan aire barrunbeekin aurkitzen den estrategia. Gerizpek erresistentzia termiko eskasa eskaintzen dute, esaterako F.b eta F.c. Ikertzaile askok arreta estrategia honetan jarri dute, hala nola K. J. Kontoleon-ek eta Bikas-ek [50] (I1.6. irudian eskuinean).
- **Erresistentzia termikoa:** Isolamendu termiko materialak bero - galeraren aurka oztopo termiko baten moduan erabiltzen dira estrategia honetan. F.d eta F.e talde honetan daude. Egile askok estrategia honen efikazia frogatzen dute, esaterako Stazi et al.-ek [51].



I1.6. Fatxaden bi adibideak. Ezkerrean, bero – ahalmenenean oinarritutako fatxada. Eskuman, geruzapenean oinarritutakoa

Fatxadaren eraikuntza - sekzioa

						
F.a	**F.b**	**F.c**	**F.c.1**	**F.c.2**	**F.d**	**F.e**

Barneko azaletik (ezkerra) kanpoko azala (eskuina)

U [w/m²·K] C[kJ/ m²·K]	Fatxadaren geruzak (barneko azaletik - kanpokora)	Aldia	U [W/m²·K] C[kJ/ m²·K]	Fatxadaren geruzak (barneko azaletik - kanpokora)	Aldia
F.a. **U: 1.11** **C:463.8**	Igeltsua Adreilu zulatua (37 cm) Zementuzko morteroa	1	F.b **U: 1.16** **C: 359.8**	Igeltsua Adreilu huts (12.5 cm) Aire - ganbera Hormigoizko horma (10 cm) Zementuzko morteroa (2cm)	1 - 2
F.c **U: 1.44** **C: 160.0**	Igeltsua Adreilu huts (4.5 cm) Aire - ganbera Adreilu huts (12.5 cm) Zementuzko morteroa (2cm)	3	F.c.1 **U: 1.27** **C: 180.0**	Igeltsua Adreilu huts (4.5 cm) Aire - ganbera Adreilu huts (12.5 cm) Zementuzko morteroa (2cm) Arindutako Zementuzko morteroa (2cm)	3
F.c.2 **U: 0.43** **C: 238.4**	Igeltsua Adreilu huts (4.5 cm) Aire - ganbera Adreilu huts (12.5 cm) Zementuzko morteroa (2 cm) Isolamendu termikoa (4 cm) Adreilu huts (9 cm) Arindutako Zementuzko morteroa (2 cm)	3	F.d. **U: 0.48** **C: 189.0**	Igeltsua Adreilu huts (4.5 cm) Isolamendu termikoa (3 cm) Aire - ganbera Adreilu zulatua (12.5 cm)	4
F.e. **U: 0.41** **C: 162.6**	Igeltsua Adreilu huts (4.5 cm) Isolamendu termikoa (6 cm) Aire - ganbera Adreilu huts (12.5 cm) Zementuzko morteroa (2cm)	4 - 5			

T1.5. Fatxadaren eraikuntza - sekzioak (Bilboko Udal Etxebizitzen arabera)

8 Gizarte etxebizitzaren sektorearen hobetze potentziala

Aipatutako arrazoien ondorioz, eraginkortasun hobekuntzak eraikinetan, gizarte etxebizitzaren sektorean hain zuzen ere, lehentasunezko helburu bihurtu dira Europar Batasunean. Sektore honen ezaugarriak direla eta, (errenta txikiak edo eraikinen ezaugarri termikoak, adibidez) energia - pobrezian jausteko sektore bat zaurgarrienetako da. Horregatik, gizarte etxebizitzaren energia - aurrezte potentziala zenbatzea lehentasun bat bihurtu da. Etxebizitza parkearen portaera termikoa aztertu baino lehen, eraikuntza sozialen ezaugarriak jakitea ezinbestekoa da.

Bukatzeko, eraikin parkearen hobekuntza potentziala aztertzea gai konplexua dela baieztatu daiteke. Eraikinen portaera termikoaren ebaluaketak Ikuspuntu holistikoa eskatzen du. Ikuspuntu honetan, eraikin bakoitza azpisistema batzuez osatutako sistema baten moduan ulertzen da. Horrela, doktorego - tesi honen helburuak eta metodologia 2. kapituluan aurkeztu eta gero, okupatutako hamar etxebizitzen landa - azterketa aurkezten da 3. kapituluan. Landa - azterketa honetan ikuspuntu holistikoa erabili zen.

9 Aipatutako eranskinak

1.1. Eranskina: Energia - pobrezia. Literatura aztertzea. (Ingelesez).

1.2. Eranskina: Eraikinen euskal parkearen berotegi - efektuko gasen isuriak eta energia - kontsumoa. Gakoak (Ingelesez).

2. KAPITULUA

HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

LABURPENA

Doktorego – Tesi honen helburu nagusiak aurkezten dira kapitulu honetan, baita aipatutako helburuak erdiesteko jarraitutako metodologiari eta egiturari buruzko sarrera labur bat ere.

ABSTRACT

The main objectives of this thesis are presented in this Chapter 2, as well as a brief introduction about the methodology and structure followed to achieving mentioned objectives.

1 Tesiaren irismena

Tesi honetan garatutako ikerketa ENEDI taldeko ikerkuntzaren ildoetan kokatuta dago. Ikerkuntza ildo hauen eskema I2.1 irudian irudikatzen da.



I2.1. ENEDI taldeak jarraitutako ikerketa – lerroen eskema

Laburbilduz, bi ildo garatzen dira tesi honetan; bata esperimentala, eta beste bat simulazio - ereduei dagokiona. Atal esperimentalak azpisistemen zein eraikin osoaren saiakuntza esperimentalak barne hartzen ditu. Ikerkuntza esperimental honen bidez, bibliografia oinarri duten ereduekin batera, ereduak kalibratzeko eta erabiltzeko beharrezkoa diren datuak hartu daitezke. Bestalde, kalibratutako eredu hauek eraikuntzarako Sistema – Termikoen Instalazio Esperimentalean egiten diren saiakuntza erdi – birtualetan erabili daitezke. Testa hauetan, denbora errealeko ordenagailu bidezko – simulazioen emaitzak instalazio esperimentalean erabiltzen dira. Simulazio hauen emaitzak instalazio esperimentalean erabiltzen dira, eta aldi berean, instalazio esperimentalean lortutako neurriak simulazioan erabiltzen dira. Modu honetan, simulazioa eta saiakuntza esperimentala elkarri lotuta daude.

Horrela, ikerketa hau I2.1. irudian erakutsitako eskemaren barruan kokatzen da. Doktorego - tesi honetan eskemako bi zatitan jartzen da arreta: "landa azterketak" deritzon zatia, baita "simulaziorako ereduak" deritzona ere. Hori dela eta, doktorego - tesi honen atal esperimentalean eraikinen monitorizazioak aritzen dira, bai eraikin okupatuak, baita hutsak ere. Lortutako emaitzak geroago eraikinetako portaera termikoaren eredu bi garatzeko erabiltzen dira: *"Grey box"* eredu bat, eta *"White Box"* eredu bat.

Aipatutako eskema modularra da halaber. Eskemaren zati bakoitza bi modu ezberdinetan erabili daiteke: eskemako beste zati batekin elkarri eragiteko edo zati horretako informazio espezifikoa lortzeko. Hau da, batzuetan, irudikatutako prozesu osoa jarraitu daiteke; beste batzuetan, aldiz, simulazio zatia edo ikerketa esperimentala nahikoak dira bilatutako helburuak lortzeko.

Alderdi hau kontuan hartuz, eraikinen portaera termikoaren ereduei eta landa - azterketei dagokionez, garatutako posibilitateen abantailak eta desabantailak aztertzen dira tesi honetan, haien helburuak zein diren kontuan hartuz kasu bakoitzean.

2 Helburuak

Doktorego - tesi honen helburu orokorra eraikinen birgaitze energetikoaren ebaluaketari aurre egitea da, hau da, eraikinen birgaitzearen analisi eta optimizazio - prozesua aztertzea ondorengo atalak barne hartuz:

- Datu - eskuratzea eta monitorizazioa
- Datuen tratamendua: Eraikinen ereduak
- Tresnen analisia, ikuspuntu exergetikoarena esaterako, lortutako emaitzak ebaluatzeko eta hobekuntza potentzialak identifikatzeko.

Helburu hau bi eredu garatuz lortzen da, eta ikuspuntu exergetikoa hobekuntzarako estrategiak aztertzeko erabiliz.

Aipatutako xedea lortzeko, hurrengo helburuak betetzea espero da tesi honekin:

- Euskal etxebizitza parkeari gainbegiratu ikuspegi orokorra eman, arreta gizarte etxebizitzen sektorean jarriz. Bilboko gizarte etxebizitzak zehazki aztertzen dira, alderdi anitz kontuan hartuz: eraikuntza ezaugarriak, barne - giroaren baldintzak eta energia - kontsumoak. Bilboko etxebizitza parke soziala (Udal Etxebizitzak)[1] aurkezten da, eta urte bat baino gehiagotan zehar okupatutako etxebizitzen datuak lortzeko balio duen landa – azterketa bat egiteko hamar etxebizitza esanguratsu hautatzen direlarik.
- Eraikin baten portaera termikoari buruzko informazio zehatza eskuratu, hautatutako etxebizitza huts baten monitorizazioaren bidez. Ikerketa honetan hiru hilabetetan zehar eskuratutako datu ugari etxebizitzaren portaera termikoa karakterizatzeko erabiltzen dira.
- *Grey box* eredu bat garatu, aipatutako monitorizazioan lortzen diren datuak direla medio. Eredu hau birgaitze energetikorako aukera ezberdinak ekartzen dituzten energia - aurrezteak ebaluatzeko erabilgarria izango da.

---

[1] Bere webgunean aurkezten duten bezala (https://www.bilbao.net/viviendas/), Udal Etxebizitzak erakundea baliabide eraginkorra da Bilboko Udalak etxebizitza babestuak sustatzeko politika aurrera eraman dezan. Helburua da beharrizana duten bilbotar guztiei etxebizitza baldintza duinetan eskaintzea eta, ahal dela, alokairuan. Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeak kudeatu eta zaintzen duen higiezinen parkea 3.994 etxebizitzak osatzen dute.

- Eraikin adierazgarri baten portaera termikoaren modelo bat definitu, TRNSYS tresnaren bidez. Modelo hau landa - azterketan lortutako datuak erabiliz kalibratzen da. Modelo hau, berokuntza eskariaren kurbak zein energia - kontsumo ohiturak lortzeko erabiltzen da, besteak beste. Eskari - kurba hauek beste motatako eraikinen birgaitze energetikoak ikertzean erabilgarriak izango dira (sistema pasiboetan nahiz aktiboetan).
- Bi modeloak elkarrekin konparatu: *grey box* eta *white box* (TRNSYS tresnaren bidez garatutakoa) ereduak, beraien erabilera potentzialak identifikatuz eta bakoitzaren abantailak eta desabantailak aztertuz.
- Berokuntza kontrolerako estrategia ezberdinetan eraginak ebaluatu.
- Sistema energetikoen berriztatzeak eta eraikinen birgaitze energetikoak ebaluatzeko eta garatzeko ikuspegi exergetikoak duen erabilgarritasuna erakutsi.

3 Doktorego - tesi honen metodologia eta egitura

Zhenjun Ma et al.-ek diotenez [52], edozein eraikinen birgaitzerako proiektuan bost fase bereizi daitezke: (1) eraikinaren azterketa, (2) ebaluazio energetikoa, (3) birgaitze - aukeren identifikazioa, (4) inplementazioa kokalekuan eta (5) inplementazioaren ebaluazioa. Hauetako lau fase esplizituki edo inplizituki kontuan hartzen dira tesi honetan (1.a, 2.a, 3.a eta 5.a). Fase hauek tesi honen egitura ikusiz identifikatu daitezke, lau ataletan zatituta baitago.

Lehen atalak tesiaren sarrera, literatura aztertzea eta ikuspegi orokorra aurkezten ditu, lehen eta bigarren kapituluak barne hartzen dituelarik. Tesi honen bigarren atalak lan esperimentala garatzen eta aurkezten du, eta 3. eta 4. kapitulua barne hartzen ditu.

Etxebizitza parke sozialaren portaera termikoaren ikuspegi orokorra hirugarren kapituluan aurkezten da, Bilboko hamar etxebizitzaren landa azterketa bat dela medio. Aurrez, Bilboko gizarte etxebizitzaren analisi bat garatzen da, 20. Mendeko eraikuntzarako teknika ezberdinei berrikustea emanez. Hamar kasu - azterketen selekzioa ikerketa hau kontuan hartuz egiten da. Kasu - azterketen berokuntza eskarien eta barne - inguruko egoeren emaitzak aurkezten dira kapitulu horretan halaber.

Laugarren kapituluan 60. hamarkadan eraikitako etxebizitza bat zehatz - mehatz deskribatzen da. Bi datu - eskuratze aldi deskribatzen dira kapituluan: lehena, 2012ko Urtarriletik Apirilera egiten da, eta bigarrena 2012ko abendutik 2013ko otsailera egiten da, leihoak aldatu ondoren. Bi monitorizazio epeen emaitzak kapitulu honetan eskuratzen dira, baita metodologiari eta jarraitutako prozedurari buruzko ondorioak ere.

Hirugarren atalak eredu matematikoen deskribapena barne hartzen du. Bi kapitulu daude atal honetan: 5. eta 6. kapituluak. Kapitulu hauetan TRNSYS ereduaren ebaluazioa eta *grey box* ereduaren garapena aurkezten dira.

Bosgarren kapituluak monitorizatutako etxebizitzaren TRNSYS tresnaren bidezko eredu garapenean arreta jartzen du. Kasu honetan, landa - azterketan lortutako datuak erabiltzen dira TRNSYS eredua baliozkotzeko. Eredu hau eraikin adierazgarri batek Euskal Autonomia Erkidegoko klima ezberdinetan dituen eskari kurbak definitzera dago bideratuta. Bestalde, beste eraikin baten eraikuntza ezaugarriak erabiliz beste eskari kurbak lortu daitezke.

Seigarren kapituluan, laugarren kapituluan deskribatutako landa – azterketan lortutako datuak erabiliz, etxebizitza baten *grey box* ereduaren garapena jorratzen da. Eredu honen bidez, eraikinaren berokuntza - kontsumoa, eta bere portaera termikoa, lortu daitezke, baldintza ezberdinak kontsideratuz. Gainera, portaera termikoaren hobekuntzarako estrategia posibleen lorpenak aztertu daitezke. Esaterako, eredu honek etxebizitzaren portaera termikoa erakusten du, leihoak aldatu baino lehen. Parametro karakteristikoak aldatuz, eredu honek eraikinaren portaera termikoa leihoak aldatu ondoren zein den erakutsi dezake. Horrela, baldintza beretan konparaketa baten bidez, hobekuntza baten eraginkortasuna neurtu daiteke. Kapitulu honetan metodo honen erabilgarritasuna frogatzen da, batez ere eraikuntza birgaitzeari lotutako kasu batzuetan:

- Eraikin baten egoera edozein birgaitzerako lana baino lehen aztertzeko.
- Hobekuntza termikorako posibilitate ezberdinak aztertzeko, energia - aurrezteak kalkulatuz.

- Edozein birgaitze energetikoaren ondorio errealak ebaluatzeko, birgaitze baten aurretiko eta ondorengo egoerak irudikatzen dituzten ereduak baldintza berbetan elkarrekin konparatuz.

Laugarren atalak ereduaren bidez lortutako datuen tratamenduari aurre egiten dio. Beraz, zazpigarren kapituluan, aurretik garatutako TRNSYS eredua energia - aurrezterako neurri batzuk (neurri pasiboak) aztertzeko eta sailkatzeko erabiltzen da. Sailkapen hori neurri bakoitzaren energia aurreztearen arabera egiten da. Geroago, energia aurrezterako estrategia bat erabakitzen da, eta berokuntza sistemari lotutako parametro ezberdinak ebaluatzen dira, sistemaren tenperaturak eta kontrolak esaterako. Ebaluazio honek parametro bakoitzaren eraginak bai eraginkortasun energetikoan bai barneko erosotasunean aztertzen ditu. Kapitulu honetan aurkezten den kasuistika aurrerago plataforma erdi - birtualan egingo dituen saiakuntzak definitzeko erabili daiteke.

Geroago, 8. kapituluan eraikin baten analisi exergetikoa deskribatzen da. Kapitulu honek S. C. Jansenekin lankidetzaren fruitua den lana aurkezten du. Lan hau, 2012ko martxotik ekainera luzatu zena, TU Delft-eko Arkitektura Goi Eskola Teknikoan garatu zen eta *Energy & Buildings* Aldizkariko bi artikulutan aurkezten da [53,54].

Honela, 8. kapituluak ikuspegi exergetikoak eraikin sistema energetikoak garatzeko duen erabilgarritasuna ikertzen du. Horretarako, bost sistema ezberdin hartzen dira. Eraikinaren energia erabilera ikuspuntu globaletik ulertzen da, eta energiaren bidea, eraikinen inguratzaile termikotik energia ekoizpeneraino ikasten da, hobekuntzak bai inguratzaile termikoan baita sistema energetiketan ere kontuan hartuz.

Azkenik, 9. kapituluan, doktorego - tesi honen konklusio azpimarragarrien laburpen bat aurkezten da, baita ekarpenak eta proposatutako etorkizuneko lanak ere.

2. ATALA

AZTERKETA ESPERIMENTALA

PART 2. EXPERIMENTAL STUDY

"The experimenter who does not know what he is looking for will not understand what he finds"

Claude Bernard (1813 - 1878)

3. KAPITULUA

GIZARTE ETXEBIZITZAREN PORTAERA TERMIKOA. LANDA - AZTERKETA

LABURPENA

Eraikinen portaera termikoa aztertzeko metodologia bat deskribatzea du xede kapitulu honek. Horretarako, ikuspegi holistiko bat erabiliko da. Bilboko gizarte etxebizitza parkeari buruzko ikuspegi bat aurkezten da. Hamar etxebizitza adierazgarri hautatu ziren, lehen kapituluan aurkeztutako sailkapenean oinarrituz. Landa - azterketa 10 hilabetetan zehar garatu zen. Berokuntza sistemen kontsumoak, baita barne egoerak ere, aurkezten dira. Beste alderdi batzuen artean, biztanleen portaerak etxebizitzen portaera termikoan rol garrantzitsu bat jokatzen du. Bestalde, kapitulu honen emaitza nagusiak "Field assessment of thermal behaviour of social housing apartments in Bilbao, northern Spain" artikuluan aurkezten dira. Artikulu hau Energy & Buildings aldizkarian argitaratu zen 2013. urtean [55].

ABSTRACT

This chapter aims to describe a methodology for analysing the thermal performance of buildings under a holistic approach. An overview of the thermal performance of the social housing stock in a city with a mild climate (Bilbao) is presented. Ten (10) representative dwellings were selected, based on the classification presented in chapter 1. A field study was performed during 10 months. Results of heating consumption as well as indoor conditions are presented. Amongst other factors, the occupants behaviour influence plays an important role in the final thermal performance of the dwellings. Moreover, the main highlights of this chapter were presented in the paper "Field assessment of thermal behaviour of social housing apartments in Bilbao, northern Spain", published in Energy & Buildings journal in 2013 [55].

1 Sarrera

Barne tenperatura eta hezetasun erlatiboa eraikinetan biztanleen erosotasun termikoaren adierazle giltzagarriak dira.

Birgaitze energetikoak dakarren energia aurrezteak kalkulatzeko simulazio eredu ugari garatu dira azken urteetan. Kavgic et al.–en arabera [56], operazio – baldintzenetarako erabilitako hipotesiak profil estandarretan oinarritzen dira landa – azterketetan oinarritu beharrean.

Etxebizitzen egoera estandarren eta egoera errealen arteko ezberdintasunek emaitza okerrak eman ditzake energia-kontsumoan, kontsumo honek setpoint - tenperatura aldaketaren menpekotasun handia baitu. Adibidez, duela gutxi berokuntza sistema zentrala zuen Erresuma Batuko etxebizitza baten inguruan egin zen ikerketa batean, berokuntza sistemako setpoint - tenperaturaren 2ºC igoerak kontsumo energetikoaren %15eko hazkuntza ekartzen duela frogatu zen. Kontutan izan behar da kontsumo hau eraikinaren beste ezaugarri batzuen menpekoa dela, esaterako infiltrazio tasa, inguratzaile ezaugarri termikoak edo erabilitako berokuntza-sistema.

Horregatik, gizarte etxebizitzan birgaitze energetikoaren potentzialaren analisi zehatzagoa lortzeko barne-egoeren landa-azterketak garatzea beharrezkoa da. Izan ere, barne ingurunea eta berari lotutako energia-kontsumoari dagokionez, datu enpirikoen gabezia dago, gizarte etxebizitzaren sektorean batik bat.

Kapitulu honetan, hamar etxebizitzen landa-azterketa bat aurkezten da. Azterketa hau ikuspuntu holistikotik egin zen, etxebizitza bakoitzaren portaera termikoaren ikuspegi bat lortzeko. Eraikin mota ezberdinetan barne-erosotasuna eta energia-kontsumoa aztertzeko asmoz antzeko landa - azterketa anitz aurkitu daitezke: energia - baxuko eraikinetan [30], bulegoetako eraikinetan [57] edo eraikin historikotan [48,49,58]. Hala ere, ikerketa mota hauek gizarte etxebizitzaren sektorean aurkitzea ez da hain ohikoa. Salbuespen bat aipatutako *Warm Front Project* taldeak egin dituen eskala handiko lanketetan aurkitu daiteke [59].

2 Kapitulu honen helburuak

Lehen kapituluan eraikinen birgaitze energetikoaren lege-eremuari eta eraikuntza ezaugarri orokorrei buruzko laburpen bat eman da. Hala eta guztiz ere, soilik alderdi hauek kontuan hartzea ez da nahikoa, eta eraikinen birgaitzea lantzerakoan eraikinen portaera termikoa ikuspuntu globaletik ezagutu behar da. Eraikuntzaren portaera termikoa sistema konplexu batean eragina duten faktore ezberdinen arteko elkarrekintzen ondorio bezala ulertu behar da.

Horregatik kapitulu honetan, Gizarte etxebizitza parkearen portaera termikoaren landa - azterketa bat aurkezten da. Horrenbestez, kapitulu honen helburu nagusiak hurrengoak dira:

- Eraikinen portaera termikoaren azterketa egiteko erabiliko den ikuspegi holistikoa aurkeztu eta zehaztu.
- Bilboko Gizarte Etxebizitza parkearen portaera termikoa ulertu, eta bere energia - kontsumo erreala identifikatu.
- Bilboko Gizarte Etxebizitza parkearen hobekuntza termikoaren potentziala kalkulatu, Bilbo klima epeleko hiri bat dela kontutan hartuz, bai neguan, zein udan ere.
- Hamar etxebizitza hauetako energia kontsumoa eta barne ingurunearen neurriak lortu. Datu hauek biztanleen profilak xedetzeko beste ikerketan erabili daitezke, eta horrela, estandar egoeretan oinarritako profilak ez lirateke erabili behar, landa azterketan oinarritakoak baizik.

- Metodo holistikoaren bidez hautatutako hamar etxebizitzen bidez, Gizarte Etxebizitza parkearen portaera termikoaren analisi konparatibo eta kualitatiboa garatu.

Kapitulu honen arreta ez da soilik energia kontsumoan oinarritzen, baizik eta etxebizitzen konfort termikoan ere. Alabaina, lehen kapituluan aipatzen diren osasunari lotutako alderdiak kapitulu honen irismenaren kanpo daude, nahiz eta edozein birgaitze energetikoen hobekuntzak ebaluatzean kontuan hartu behar diren.

Helburu hauek betetzeko asmoarekin, lehen kapituluan aurkeztutako diren irizpideen arabera Bilboko Gizarte Etxebizitza parkea sailkatu da. Sailkapen hau erreferentzia gisa erabiliz, XX. mendeko sasoi bakoitzaren adierazgarriak diren hamar Gizarte Etxebizitza, ikuspuntu holistikotik arakatzen dira. Lortutako emaitzek datu - base garrantzitsu bat emango dute euskal etxebizitza parkearen birgaitzearen potentziala zenbatzeko.

3 Planteamendua

Kanpo esposizio egoerek (mikroklimak) eta transmisio termikoa erregulatzeko inguratzaile termikoaren gaitasunak eraikinaren portaera termikoa ezartzen dute. Etxe barneko erosotasun termikorako baldintzak pasiboki termo - erregulatzeko gaitasun hau, inguratzailea osatzen duen materialen eta itxura geometrikoaren araberakoa da. Aldi berean, etxebizitzaren barne - banaketak, zein instalazio energetikoei pertsonek emandako erabilera, zein instalazio termiko hauen ezaugarriek eraikin baten portaera termikoa definitzen dute.



I3.1. Hartutako azpisistemak

Aipatutako alderdi guztiak kontuan hartzeko, azterketa honetan ikuspegi holistikoa erabiltzen da. Ikuspegi sistemiko honetan, eraikinek sistema ireki bezala jokatzen dute, beraien eta bere inguruaren arteko elkarrekintzak aintzat hartuz. Eraikin historikoak aztertzeko antzeko planteamenduak erabiltzen eta azaltzen dira [58] erreferentzian, baita Annex 53an ere. Annex honen arabera, sei faktorek parte hartzen dute eraikinen energia kontsumoan: Klima, inguratzaile termikoa, sistema energetikoak eta instalazioak, eraikinaren erabilera eta mantentze - lanak, biztanleen jarduerak eta portaera eta emandako barne - ingurumenaren kalitatea [29]. Z. Yu et al.-ek antzeko zerrenda bat aurkezten dute beste ikerketa batean [60]. Kapitulu honetan erabiltzen den planteamendua erreferentzia hauek kontuan hartuz garatu zen. Hartutako azpi - sistema ezberdinak erakusten dira I3.1 irudian.

Eraikuntza teknikak, inguratzaile termikoa eta sistema energetikoak "muga - azpisistema" batentzat har daitezke. Azpisistema honek barne eta kanpo ingurumenen arteko banaketa markatzen du [61]. Faktore hauen arteko elkarrekintzak etxebizitzaren portaera termikoa dakar.

Orokorrean birgaitze energetikoaren arreta hiru azpisistemen hobekuntzan jartzen da: Eraikuntza tekniketan (esaterako, zubi termikoen efektuaren murrizpenean), inguratzaile termikoan eta sistema energetikoetan. Hala eta guztiz ere, edozein birgaitzearen oinarria sarritan azpisistema hauen hobekuntzan dagoen arren, azpisistema guztien elkarrekintzak eta elkarrekintza hauen ondorioak etxebizitzaren energia kontsumo globalean aintzakotzat hartzea garrantzitsua da. Kapitulu honetan aurkezten den azterlana ikuspegi sistemiko hau kontuan hartuz garatu zen.

4 Metodologia

Landa - azterketa hau Bilbon garatu zen 10 hilabeteko iraupenarekin, 2011.eko Azarotik 2012.eko Irailera arte. Datu - eskuratzea egiten zen bitartean, etxebizitza guztiak okupatuta zeuden. Hauetako hiruren biztanleak jabeak ziren; beste kasu guztiak, berriz, errentako etxebizitzak ziren. Faktore hau alderdi ekonomikoei oso lotuta dago, eta familia - errentaren adierazletzat hartu daiteke, behintzat lan - azterketa honetan (jabeak ziren biztanleek ez zirenek baino errenta handiagoa zeukaten). Lehen kapituluan aipatu bezala, maila ekonomikoak biztanleen portaera energetikoan eragina du, eta horregatik, kontuan hartu behar da. Berokuntza sistemari dagokionez, hamar etxebizitzetan zehar ezberdintasunak aurkitu daitezke. Etxebizitzetako lauk gas naturala erabiltzen dute berokuntza eta ur berotarako, hiruk berogailu elektrikoak erabili zuten, batek keroseno - berogailua, beste batek butano - berogailua eta etxebizitza batean ez zegoen berokuntza sistemarik. Ikertutako etxebizitza bat bera ere ez zuen aireztapen mekanikorik.

Klimari dagokionez, Bilbo 43º N latitudean dago, eta itsasaldeko klima dauka. Itsasoaren hurbiltasunaren ondorioz, udako eta neguko tenperaturak epelak dira. Udako batez besteko tenperatura altuena 25 - 26 gradu inguru izan ohi da, eta neguko batez besteko tenperatura baxuena 6 - 7 gradu inguru izan daiteke.

4.1 Kasu - azterketen aukeraketa

Landa azterketa hau garatzeko hamar gizarte etxebizitza hautatu ziren (I3.2 irudia). Etxebizitza hauen hautaketa lehen kapituluan aurkeztu diren ezaugarrietan oinarritu zen ("Eraikuntza sailkatzeko irizpideak" atalean). Horrela, atal horretan aipaturiko sasoi guztietarako gutxienez bi etxebizitza zeuden laginean. Ikerketa honetan, 2005. urtean eraikitako etxebizitza berri bat ere gaineratu zen (Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartu baino urte bat lehenago). I3.2 irudian agertzen den puntu urdinak ikerketan erabili diren estazio meteorologikoaren kokapena adierazten du. Estazio hau etxebizitzekiko hurbiltasunagatik aukeratu da.



I3.2. Hamar kasu azterketen kokapena

Eraikuntzaren ezaugarriei dagokionez, hautatutako etxebizitzak ez dira soilik Bilboko gizarte etxebizitza parkearen adierazgarri, baizik eta eskualdearen hiri - herrialde askoko parkearenak ere.

Etxebizitza bakoitza egitura konplexutzat hartzen da, kasu batzuetan biztanleen beharra ezberdinetara egokitzeko eraldatu dena. Alderdi eta ezaugarri ezberdinak kontuan hartu ziren etxebizitza bakoitzean, kapitulu honen 3. atalean azaltzen den ikuspegiaren arabera. Alderdi hauetako batzuk zerrendatzen dira T3.1 taulan (I3.1 irudian aurkezten diren mailaren arabera)

Taula honetan etxebizitza bakoitzaren antzinatasuna, azalera (metro karratuetan), fatxadeko ezaugarriak (Lehen kapituluan aurkeztutako sailkapenari lotuta), fatxadaren U - balioa, leihoen ezaugarri termikoak (beira eta marko mota, leihoen U - balioa eta infiltrazioen maila) erabilitako berokuntza - sistema eta azkenik, etxebizitzaren jabetasun mota aurkezten dira. Okupazio faktore batzuk, hala nola biztanleen adina, biztanle kopurua edo okupazio aldia, aintzakotzat hartu ziren ere.

		B.I.	**Inguratzaile**			**Leihoak**			**S.E.**	**Okup.**
Izena	**Urtea**	**Azalera (m^2)**	**Sek.**	**U_{wall} [W/m^2.k] (kalk)**	**C_{wall} [kJ/m^2.K] (kalk)**	**Leihoak**	**U_{win} (kalk)**	**Inf.**	**Berokuntza**	**Jabetasuna**
D1	1921	53.33	F.a	1.11	463.8	Egurra (f); Beira 6	5.35	Altua	Butano	Alok
D2	1921	45.68	F.a	1.11	463.8	PVC (m); Beira 4/6/4)	2.38	Baxua	Berogailu elektr.	Alok
D3	1952	51.5	F.b	1.16	359.8	Al (f); Beira 6 – Egurra (f); Beira 6	5.35 - 5.70	Altua - Erdi.	Berogailu elektr	Alok
D4	1952	51.5	F.b	1.16	359.8	Al (m); Beira 4/6/4)	3.37	Altua	Ezer ez	Alok
D5	1960	47.68	F.c.1	1.27	180	PVC (m); Beira 4/6/4)	2.38	Baxua	Gas Naturala	Jabet
D6	1960	39.7	F.c.2	0.43	238.4	PVC (m); Beira 4/6/4)	2.38	Baxua	Berogailu elektr	Alok
D7	1960	47.65	F.c.1	1.27	180	PVC (m); Beira 4/6/4)	2.38	Baxua	Gas Naturala	Jabet
D8	1995	68.3	F.d	0.48	189	PVC (m); Beira 4/6/4)	2.38	Baxua	Gas Naturala	Alok
D9	1995	87	F.d	0.48	189	PVC (m); Beira 4/6/4)	2.38	Baxua	Gas Naturala	Jabet
D10	2005	58.5	F.e	0.41	162.6	PVC (m); Beira 4/6/4)	2.38	Baxua	Kerosen o	Alok

T3.1. Aztertutako etxebizitzen ezaugarriei buruzko laburpena, I3.1 irudian aurkestutako azpisistemen arabera

4.2 Landa – azterketa

Aipatutako ikuspegi sistemikoa aintzakotzat hartuz, etxebizitza bakoitzean landa - azterketa egin zen. Lortutako datuak sei taldetan antolatu ziren, I3.1 irudian aurkeztutako sei azpisistemen arabera. Landa - neurketaren eta datu bibliografikoen bidez, kanpoko egoeraren datuak hartu ziren. Termografien bidez, eraikuntza teknikei buruzko datuak eskuratu ziren. Sistema energetikoei dagokionez, faktura energetikoen eta inkesten bidez informazio ugari lortzen da. Barne – egoerari buruzko datuak lortzeko, planoak eta landa - neurketak erabiltzen dira. Azkenik, biztanleen azpisistemako datuak inkesten bitartez jaso ziren. Inkesten bidez lortutako datuak landa - neurketen bidez lortutakoekin balioztatzen dira (T3.2 taula).

Azpisistema	Datuak	Informazio - iturria
Kanpoaldeko ingurumena	Parametro Geografikoak (Lat, Long)	landa - neurketak, Datu bibliografikoak
	Zona klimatikoa, eguzki - erradiazio	landa - neurketak, Datu bibliografikoak
	Mikroklima, Kanpoaldeko tenperatura eta hezetasun erlatiboa.	WEB datuak, Neurketak.
Eraikuntza teknikak	Zubi termikoak	Termografia
Inguratzailea	Fatxadaren ezaugarri termikoak	Datu bibliografikoak
Sistema Energetikoak	Sistema energetikoak	Inkestak, Energia - fakturak
Barne - banaketa	Etxebizitzaren barne - banaketa	Planoa, landa - neurketak.
Biztanleak	Barne ingurumena: planoak, sekzioak, fatxadak	landa - neurketak
	Jarduerak, portaera, ingurumen kalitatea	Inkestak, landa - neurketak

T3.2. Bildutako datuak

4.3 Datu - bilketa

4.3.1 Tenperatura eta hezetasun erlatiboa

Tenperatura eta hezetasunarekin erlazionatutako datuak lortzeko landa - azterketa asko aurki daitezke bibliografian. E. J. Hutchinson et al.-ek [62] erreferentzian aurkezten dituzten irizpideak erabiltzen dira kapitulu honetan. Irizpide hau kontuan hartuz, barne - tenperatura eta hezetasun erlatiboaren datuak '*Temp - RH Hobo Data loggers'* termo - higrometroen bidez (HOBO U12 - 011) jaso ziren. Termohigrometro honen bereizmena 0.03 gradukoa (25 ºC) da tenperaturarentzat eta %0.03koa hezetasun erlatiboarentzat; bere zehaztasuna, ±0.35 ºC eta ±%2.5koa da hurrenez hurren. Leihoetatik eta bero -

iturrietatik urrun kokatzen dira, eta metro bat inguruko altueran. Altuera hau hautatu zen, estratifikazio termikoa egonez gero, altuera hori biztanleen sentikortasun termikoarenaren antzekoa kontsidera daitekeelako. Bestalde, 1 m-ko altuaren aukeraketa beste ikerketa batzuetan erabili da ere.

Datu - erregistratzaileak hamar minuturo datuak hartzeko programatzen dira. Bibliografian aurki daitezkeen beste maiztasunak, 20 minutuetatik [63] 2 ordutara [58] doaz. Hala ere kapitulu honetan, 10 minutuko maiztasuna hautatzen da, maiztasun honi esker, biztanleen portaerari buruzko informazioa lortu baitaiteke, esaterako berokuntza sistemaren erabilera edo aireztapen profilak. Erabili ziren datu erregistratzaileak aldez aurretik Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategian balioztatu eta kalibratu ziren. Termohigrometroa etxebizitza bakoitzeko gela nagusian (kasu gehienetan, egongelan) kokatzen da. Etxebizitza batzuetan, beste termohigrometro bat kokatzen da ere, logela nagusian alegia. (I3.3 irudian lau etxebizitzetako termohigrometroen kokapena irudikatzen da; Beste kasu guztiak 3.2. eranskinean aurkezten dira). Beste ikerketa askotan antzeko irizpideak jarraitu dira, esaterako [58] edo [43].



I3.3. Kasu – azterketa batzuen planoak (D1, D3 - D4, D6 eta D10)

Kanpo tenperaturari eta hezetasun erlatiboari buruzko datuak Deustun dagoen Eusko Jaurlaritzaren estazio meteorologiko batetik eskuratu ziren. Estazio honek aldagai anitz neurtzen ditu, besteak beste, aireko tenperatura, hezetasun erlatiboa, eguzki - erradiazio horizontala eta haizearen abiadura, Gainera, estazio honetan neurritzeko erabiltzen den maiztasuna 10 minutukoa da, eta termohigrometroarekin bat dator Bere kokalekua I3.2 irudian markatzen da puntu urdin baten bidez.

4.3.2 Energia - kontsumoa

Neguko berokuntzaren energia - kontsumoa kalkulatzeko, hipotesi batzuk burutu behar dira. Erabilitako informazio - iturriak etxebizitzaren arabera ezberdinak ziren: hamar etxebizitzetik seitan faktura energetikoak lortu ziren. Beste bi etxebizitzetan, berokuntza - kontsumoak galdeketa baten bidez lortu ziren. D4 etxebizitzan ez dago berokuntza sistemarik. Berez, berogailu elektriko bat erabiltzen da noizbehinka, baina bere kontsumoa baztergarritzat jo daiteke. D5eko kasuan berriz, faktura energetikoetatik lortutako datuak, kontagailuaren irakurketa batzuekin osatzen dira.

Etxebizitza bakoitzean bildutako datuak T3.3 taulan aurkezten dira. Bertan, etxebizitza bakoitzaren energia - kontsumoari buruzko informazio - iturriak aurkezten direlarik. Hala ere, data - multzo hauek beraien aldagarritasunaren ondorioz estandarizatzea beharrezkoa izan zen, (etxebizitza batzuetan soilik elektrizitatea erabiltzen zen, eta beste etxebizitza batzuetan, aldiz gas naturala etxeko ur bero eta berokuntza instalazioetarako). Kasu guztietan, berokuntza kontsumoa estrapolatu zen epe berdinerako (Abenduaren 1etik Apirilaren 1era), kasu guztietan berokuntza sistemak Abenduaren bigarren edo hirugarren astetik Martxoaren azken asterarte erabili baitzen.

$$En_B = \frac{En_{sum}}{n_{sum}} \qquad \text{Eq. 3}$$

$$H_{Wint} = En_{Wint} - n_{Wint} \cdot En_B \qquad \text{Eq. 4}$$

Neguko berokuntza kontsumoa kalkulatzearren, Eq. 3 eta Eq. 4 erabili zen. En_B batez besteko eguneko oinarri energia kontsumoa da; En_{sum} udan kontsumitzen den energia da; En_{win} neguan kontsumitzen den energia da; H_{wint} kalkulatutako neguko berokuntza kontsumoa da; n_{sum} udan ebaluatutako egun - kopurua da eta n_{wint} neguan ebaluatutako egun - kopurua da. En_B (kWh/egun) udako eguneko energia kontsumoa kontuan hartuz kalkulatu zen. Metodo hau berokuntza kontsumoa zenbatzeko hurbilketa on bat da, ur bero eta berokuntza horniketa gas naturala galdara baten bidez egiten denean batez ere. Etxeko ur bero kontsumoa urtean zehar aldaketa handirik ez daukala onar daiteke. Beraz, berokuntza kontsumoa (soilik neguan), neguko gas natural kontsumoaren (etxeko ur bero + berokuntza) eta udakoaren (etxeko ur beroa soilik) arteko kenduraren bidez kalkulatzen da.

		Datu - bilketa		Kalkulatutako kontsumoa (1 Abe-1 Api)
	Informazio iturria	**Aldia**	**Kontsumoa**	**Hipotesiak**
[D1]	Galdeketak	Negua	4 butano - bonbona	1)
[D2]	Faktura elektrikoak	24 Aza - 20 Mar	1840 kWh	3) (Oinarri kontsumoa: 4.16 kWh/day)
[D3]	Faktura elektrikoak	12 Abe - 11 Api	863 kWh	3) (Oinarri kontsumoa: 4.16 kWh/day)
[D4]	Ez - Aplikagarri	Ez – Aplik.		MESPRETXAGARRI
[D5]	Gas Naturalaren Fakturak	18 Abe - 17Api	3600 kWh	2) (Oinarri kontsumoa: 6 kWh/day)
[D6]	Faktura elektrikoak		datu erabilgarririk ez dago	
[D7]	Gas Naturalaren Fakturak	15 Abe - 14Mar	3936 kWh	2) (Oinarri kontsumoa: 6 kWh/day)
[D8]	Gas Naturalaren Fakturak	15 Aza - 14Mar	2145 kWh	2) (Oinarri kontsumoa: 6.7 kWh/day)
[D9]	Gas Naturalaren Fakturak	15 Aza - 14Mar	3990 kWh	2) (Oinarri kontsumoa: 5 kWh/day)
[D10]	Galdeketak	Negua	20 l keroseno	4)

T3.3. Berokuntza kontsumoen datuak

	Kalkulatutako Kontsumoa [kWh]	**Berotutako gelak**	**m^2 (Berot. azalera)**	**Kontsumoa [kWh/m^2.urte]**	**Zuzendutako kontsumoa [kWh/m^2.urtea]**
[D1]	636	Logelak (x2), Sukaldea	33.87	11.93	18.78
[D2]	1354	Etxebizitza osoa	45.68	29.64	29.64
[D3]	356	Egongela	10.31	6.91	34.52
[D4]		Ez - Aplik.			
[D5]	2880	Etxebizitza osoa	47.65	60.44	60.44
[D6]		datu erabilgarririk ez dago			
[D7]	3331	Etxebizitza osoa	47.65	67.37	67.37
[D8]	1335	Etxebizitza osoa	68.3	19.55	19.55
[D9]	3385	Etxebizitza osoa	87	38.91	38.91
[D10]	188	Egongela	12.6	3.21	14.92

T3.4. Bildutako berokuntza sistemaren kontsumoa eta kalkulatutako datuak

Horrenbestez, hurrengo hipotesiak hartu ziren oinarritzat, berokuntza kontsumoak kalkulatzeko:

1) 159 kWh / Butano - bonbona.
2) Eguneko oinarri - kontsumoa (berokuntza kontuan hartu barik) kalkulatzen da udako kontsumoaren datuak erabiliz (Eq. 3 ekuazioa). Neguko berokuntza kontsumo zenbatekoa Eq. 4 ekuazioaren bidez lortzen da.

3) Kasu honetan, IDAE-k dion oinarri - kontsumo elektrikoa erabiltzen da (etxebizitzaren udako kontsumoa oso aldakorra izan baitzen). Kalkulatutako neguko berokuntza kontsumoa Eq. 4 ekuazioaren bidez lortzen da.
4) Erabilitako kerosenoren berotze - ahalmena: 43,400 kJ/kg (9.4 kWh/l)

Berotutako azaleraren ezaugarri geometrikoak				
				
D1	D2	D3	D4	D5
				
D6	D7	D8	D9	D10

	Fatxadaren azalera (m², berotutako espazioarena)	IF		Fatxadaren azalera (m², berotutako espazioarena)	IF
[D1]	*Etxebizitzaren fatxada:* 32.5 (Fatxada) 6.5 (Leihoak; 20%) *Berotutako espazioarena:* 22.5 (Fatxada) 4.5 (Leihoak; 20%)	1.67	[D6]	*Etxebizitzaren fatxada:* 27.9 (Fatxada) 7 (Leihoak; 25%)	1.43
[D2]	*Etxebizitzaren fatxada:* 29.75 (Fatxada) 5.55 (Leihoak; 20%) *Berotutako espazioarena:* 29.75 (Fatxada) 5.55 (Leihoak; 20%)	1.51	[D7]	*Etxebizitzaren fatxada:* 41.25 (Fatxada) 10.23 (Leihoak; 25%) *Berotutako espazioarena:* 41.25 (Fatxada) 10.23 (Leihoak; 25%)	1.16
[D3]	*Etxebizitzaren fatxada:* 35 (Fatxada) 8.75 (Leihoak; 25%) *Berotutako espazioarena:* 7.5 (Fatxada) 1.95 (Leihoak; 26%)	1.37	[D8]	*Etxebizitzaren fatxada:* 46.8 (Fatxada) 11.5 (Leihoak; 25%) *Berotutako espazioarena:* 46.8 (Fatxada) 11.5 (Leihoak; 25%)	1.71
[D4]	*Etxebizitzaren fatxada:* 35 (Fatxada) 8.75 (Leihoak; 25%)	N/A	[D9]	*Etxebizitzaren fatxada:* 42.9 (Fatxada) 10.7 (Leihoak; 25%) *Berotutako espazioarena:* 42.9 (Fatxada) 10.7 (Leihoak; 25%)	1.59
[D5]	*Etxebizitzaren fatxada:* 41.25 (Fatxada) 10.23 (Leihoak; 25%) *Berotutako espazioarena:* 41.25 (Fatxada) 10.23 (Leihoak; 25%)	1.16	[D10]	*Etxebizitzaren fatxada:* 35.9 (Fatxada) 7.7 (Leihoak; 21%) *Berotutako espazioarena:* 14.95 (Fatxada) 2.72 (Leihoak; 18%)	0.86

T3.5. Berotutako azaleraren ezaugarri geometrikoak (IF: Inguratzaile Faktorea= Berotutako azalera (m^2)/Berotutako espazioaren fatxadaren azalera (m^2)

Bestalde, etxebizitza batzuek soilik gela batzuetan berokuntza sistema zeukaten (eta ez etxebizitza osoan). Kontu hau beste oztopo bat izan zen berokuntza kontsumoaren zenbatespena egiteko. Galdeketek eta neurketek erakutsitakoaren arabera, etxebizitza batzuetan (D1, D3 eta D10) soilik gela bat edo pare bat berotu ziren (ikusi T3.5 taula). Energia - kontsumoa egokitzeko eta metro bakoitzeko energia - kontsumoaren balio adierazgarriago bat lortzeko helburuarekin (kWh/m^2), berokuntza kontsumoaren (kWh) eta berotutako azalera errealaren (m^2) arteko harremana kalkulatu zen kasu bakoitzeko. Lortutako balio hauek, berez etxebizitzak elkarrekin konparatzeko erabili zirenak, T3.4 taulan biltzen dira.

Aipatutako etxebizitza bakoitzaren berotutako azalerari buruzko informazioa, baita inguratzaile termikoaren ezaugarri geometriko batzuk ere, T3.5 taulan zerrendatzen dira. Lehen lerroetan, etxebizitza bakoitzaren planoak irudikatzen dira, berotutako azalera gorriz nabarmentzen delarik. Beherago, etxebizitza bakoitzaren balio geometrikoak aurkezten dira, baita "inguratzaile - faktorea" (IF) ere. Faktore hau berotutako azaleraren eta berotutako espazioari dagokion fatxadaren azaleraren arteko ratioa da.

4.3.3 Termografiak

Landa azterketa egitean, termografietan oinarritutako azterketa bat burutu zen, bi azpisistema aztertzeko intentzioarekin: inguratzaile termikoa eta eraikuntza teknikak. Termografia erradiazio infragorrian oinarritutako teknika da. Zero absolutua baino tenperatura altuagoa edukitzeagatik, objektu guztiek erradiazio infragorria igortzen dute. Kamara infragorri batek erradiazio hau neurtzeko ahalmena du, eta gorputz beltzaren erradiazioaren legearen arabera azaleko tenperatura ematen du. Tenperatura hau, gorputz griserako emisibitatearekin zuzendu behar da.

Termografien bidez, inguratzailearen heterogeneotasun termikoak aurkitu daitezke (zubi termikoak, esaterako), edo U - balioaren aldaketak fatxadaren azal ezberdinetan. Jarraian ebaluazio infragorrian eragin handia daukaten alderdi batzuk definitzen dira [64]:

- **Emisibitatea (ε).** Azal batek igortzen duen energiaren eta tenperatura berberako gorputz beltz batek igortzen duenaren arteko ratioa da.

$$\dot{Q}_{rad}^{BB} = 5.67 \times 10^{-8} \times T_{surf}^{4}$$

Eraikuntzako material gehienek 0.85 eta 0.95 tarteko emisibitatea dute, horregatik kamara infragorrian 0.9ko balioa erabili ohi da. Baina emisibitate baxuko materialen bat aztertu nahi bada, parametro honen aldaketa kontutan izan beharko da, tenperaturaren neurketan errore handirik ez jasotzeko.

- **Hezetasun erlatiboa (RH).** Lizunaren agerpena ez da beti detektatzen erradiazio infragorriaren bidez. Hala eta guztiz ere, lizuna agertu daitekeeneko leku kritikoak identifikatzea posiblea da. Kasu zehatz batzuetan, %50ko hezetasun erlatiboa baino balio altuagoa baldintza nahikoa izan daiteke bere garapenerako.

- **ΔT.** Barne tenperaturaren eta kanpokoaren arteko diferentzia gutxienez 10 - 15 ºC izatea komenigarria da termografiak egiten direnean.

- **Eguzki - erradiazioa.** Eguzki-erradiazioak fatxadetan duen eragina saihesteko eguzki-argia dagoenean termografiarik ez egtea gomendatzen da. Hau horrela izanda, eraikinen inertzia termikoa aintzakotzat hartu behar da ere. Eguzkia ezkutatu ondoren, eraikineak egunean zehar hartutako eguzki beroa askatzen du, eta efektu hau bero - galerak bezala gaizki ulertu daiteke.

Beste faktore batzuk (objekturekiko distantzia, airearen tenperatura, aireko hezetasun erlatiboa, haizea edo islatutako tenperatura, adibidez) kontuan hartu behar dira ere bai, batik bat analisi kuantitatiboa egiterakoan.

Parametro hauen arabera, argazki termikoak FLIR kamara infragorri batekin (PS60 eredua) egin ziren. Bere zehaztasuna tenperaturaren neurketan %2koa da. Kalkuluetan erabilitako emisibitatea 0.9 da, eraikuntza material gehienak emisibitate altuak baitauzkate. Argazki termikoak bi gau ezberdinetan egin ziren: 2012ko otsailaren 28an (1 am – 4 am) eta 2012ko martxoaren 2an (0 am – 1 am). Lehen gauean, tenperatura 6.5 gradukoa izan zen, eta hezetasun erlatiboa %88koa. Bigarrenean aldiz, tenperatura 9 gradukoa izan zen, eta hezetasun erlatiboa %88koa. Aurretiko egunean ez zuen euririk egin.

4.3.4 Erosotasun termikoa

Erosotasun termikoari buruzko ikerketan arreta berezia jarri zen. Erosotasun termikoa eta barne ingurumen osasuntsua edozein eraikinaren helburu garrantzitsuenetako bi dira. Kapitulu honetan erabilitako ikuspegian, alderdi hauek "Biztanleak" azpisisteman barneratu ziren. Faktore ezberdinek rol garrantzitsua jokatzen dute ingurune erosoaren definizioan, esaterako aireko tenperatura, hezetasun erlatiboa, haizearen abiadura, biztanleen jarduera edo arropa mota. Erosotasun termikoa aztertzeko PMV (*Predicted mean vote*, ingelesez) edo PPD (*Predicted Percentage Dissatisfied*, ingelesez) indizeak erabiltzen dira. PPD-ren definizioa PMV-ren terminoetan oinarritzen da. PMV jarduera, arropa, aireko tenperatura, tenperatura erradiatzaile, haizearen abiadura eta hezetasunaren araberakoa da [65]. Kapitulu honetan deskribatutako ikerketa okupatuta zeuden etxebizitzetan egin zenez, zenbait muga aurkitu ziren instrumentazioarekin, eta horren ondorioz, ezin izan ziren aipatutako parametro guztiak neurtu. Horregatik, metodo erraztu bat planteatu zen etxebizitzen erosotasun termikoaren ebaluazioa egiteko. Erabilitako metodoa 6.6 atalean aurkezten da.

4.3.5 Galdeketak

Ikerketa hau osatzeko, landa azterketa hasterakoan etxebizitza bakoitzaren biztanleek galdeketa - orri bat osatu zuten. Galdeketa honen bidez biztanleen inguruko informazio ugari lortu zen, hala nola, portaera, kontzientzia, energia - kontsumoa, sistema energetikoak, barneko airearen kalitatea eta okupazioaren profilei buruzko informazioa. Galdeketa - orriaren eredua 3.1. eranskinean gehitzen da.

4.4 Datu - analisia

Bildutako datuekin hainbat analisi egin ziren, landa - azterketaren epe ezberdinen arabera:

- Neguko (Abe - Urt - Ots - Mar), udaberriko (Api - Mai) eta udako (Eka - Uzt - Abu) urtaroko balioak aztertu ziren.
- 15 eguneko eperik hotzena (Otsailaren 1etik 14ra).
- Udaberriko 15 eguneko epea.
- 15 eguneko eperik beroena (Abuztuaren 8tik 22ra).

- 48 orduko epeak. Beroena (Abuztuaren 18tik 19ra), hotzena (Otsailaren 8tik 9ra) eta udaberrikoa (Apirilaren 24tik 25era).

Etxebizitza bakoitzarentzat hurrengo balioak eman ziren: balio minimo eta maximoak, batez besteko balioak, desbiderapen tipikoak eta barneko eta kanpoko tenperaturaren arteko korrelazioak.

5 Emaitzak

Etxebizitzen U - Balioak (I3.4 irudia) balio - tarte biren barnean daude. Alde batetik, etxebizitza berrienak (1980. urtea ondoren eraikitakoak) edo birgaitu direnak, 0.40 - 0.50 W/m^2.K-eko U - balioak daukate. Bestetik, Espainiako lehen erregelamendu termikoa onartu baino lehen eraikitako etxebizitzak (1979. urtea baino lehen) 1.10 - 1.30 W/m^2.K-eko U - balioak daukate.



I3.4. U - balioaren eta energia - kontsumoaren arteko erlazioa

Bi korrelazio nabarmendu ziren. Lehenik eta behin, batez besteko barne eta kanpo tenperaturen arteko diferentziak kalkulatu ziren (ΔT). Zenbat eta ΔT handiagoa izan, orduan eta energia - kontsumoa altuagoa izango da. Horren ondorioz, espero bezala, bi etxebizitza elkarrekin konparatzean, energia - kontsumoa antzekoa zuten, U - baliorik baxuena zeukanak ΔT handiena zeukan.

Joera hau I3.5 irudian irudikatutako grafikoan erakusten da. ASHRAE-k neguko konfort - zona 20 ºC eta 24 ºC artean definitzen duen arren [66], erosotasun termikoaren mugak 18 ºC ±2 ºC aukeratu ziren, Martin et al.-ek diotenez [49]. Grafiko honetan, ΔT neguko batez besteko barne eta kanpo tenperaturaren arteko diferentzia da. Hortaz, grafikoan irudikatutako puntu - lerro gorriak negurako erosotasun termikorako muga adierazten dute (barneko tenperatura limiteak 20 ºC eta 16 ºC izanik, ΔT 5.83 ºC eta 9.83 ºC dagokio). ISO 13790 [67] arauen arabera, denbora - konstantea (τ) lortu zen C [J/m^2.K] zati U [W/m^2.K] eginez, emaitza orduetan aurkezten delarik. Grafiko honetan, kontzeptu hau oso erabilgarria da, C eta U adagaiak termino bakarrean barneratzen baititu.

Grafiko hau ikustean bi etxebizitzatan espero ez zen portaera nabarmentzen da: kontsumorik altuenak (D5 eta D7koa) ez datoz ΔT baliorik handienekin bat. Puntu honek beste faktore batzuek, hala nola fatxadaren bero - ahalmenak, biztanleen portaerak, aireztapenak, leihoen kalitateak, zubi termikoak edo fatxadaren eta leihoen azaleraren arteko ratioak, etxebizitza hauen portaera termikoan rol garrantzitsu bat jokatzen dutela erakusten du. Bi etxebizitza hauek (D5 eta D7) U - balio altua (1.27 W/m^2.K) izateazk gain, fatxadaren bero - ahalmen baxua ere badute (180 kJ/m^2.K). Fatxadaren U - balio baxua daukaten beste etxebizitzek, ordea, bero - ahalmen altuagoa daukate (360 kJ/ m^{2}K - 423 kJ/ m^{2}K); D5 eta D7ren arteko diferentziaren argibidea aireztapen profilak eta biztanleen portaerak aintzakotzat hartzen direnean, aurkitu daiteke.



I3.5. Energia kontsumoa, denbora - konstantea eta batez besteko ΔT –ren arteko erlazioak. Batez besteko kanpo tenperatura: 10.17

Beraz, etxebizitza bakoitzaren urteko energia – kontsumoaren arteko diferentzia hauek behar den moduan ebaluatu ahal izateko parametro gehiago aztertu beharko dira. D3 eta D4 oso antzekoak dira eraikuntzari dagokionez. Haien arteko ezberdintasunak berokuntza eta hilabeteko barne tenperaturak elkarrekin konparatu zirenean (I3.6 irudia), argitu ziren.



I3.6. Hilabetearen batez besteko tenperaturaren bilakaera D3 eta D4 etxebizitzetan (gela nagusian)



I3.7. Hilabetearen batez besteko tenperaturaren bilakaera D8 eta D9 etxebizitzetan (gela nagusian)



I3.8. Hilabetearen batez besteko tenperaturaren bilakaera D5 eta D7 etxebizitzetan (gela nagusian)

Berokuntza sistema berbera erabilita ere, hau da, gas natural goi - tenperatura erradiadoreekin eta hilabetearen batez besteko tenperatura baxuekin, berokuntza kontsumoan ezberdintasun adierazgarriak aurkitu ziren (%50 inguru), I3.7 irudiak D8 eta D9 kasuetan irudikatzen denez. D5 eta D7 elkarrekin konparatzean (I3.8 irudia, neguaren batez besteko barne tenperatura antzekoak izan zituzten biak) berokuntza kontsumoaren ezberdintasun txikiak (I3.5 irudia) biztanleen portaeraren ondorioak direla ondoriozta daiteke.

Berokuntza motak eta biztanleek erabilpen profil desberdinek, etxebizitzaren portaera termikoan eragin handia daukate, baita barne konfort termiko eta berokuntza kontsumoaren arteko erlazioan ere, 6.2.2. atalean zehatz - mehatz deskribatzen den bezala.

6 Emaitzen analisia

6.1 Urteko barne ingurunearen analisia

Egoera termikoari dagokionez, gizarte etxebizitzaren sektorea eraikin heterogeneoen multzo bat da. Aztertutako etxebizitzen artean, hilabetearen batez besteko tenperaturetan ezberdintasun garrantzitsuak aurkitu ziren, negukoetan batez ere, berokuntza sistema piztuta zegoenean eta, horren ondorioz, berokuntza kontsumoa altuena denean (I3.9 irudia). Epe hau zehatz - mehatz aztertuko da geroago.



I3.9. Hilabeteko barne tenperaturak: maximoak, minimoak eta batez bestekoak

Lehen aipatu denez, barne tenperaturen aldaketak faktore batzuen ondorioak ziren, eraikinaren egituraren bero ahalmena, berokuntza kontrola edo aireztapen profilak esaterako. Eguneko eta gaueko aldaketek barne tenperaturaren egonkortasunari buruzko ideia bat ematen dute. Barne eta kanpo tenperaturaren fluktuazioaren ratioak ($\Delta t_i/\Delta t_o$) barne eta kanpo tenperaturaren arteko korrelazioak erakusten ditu, eta faktore batzuen araberakoa da, esaterako etxebizitzaren ezaugarriak (eraikuntza teknikak, inguratzaile termikoa eta sistema energetikoak) eta beste batzuk, etxebizitzaren erabilera adibidez, biztanleen portaeraren arabera.

Urtaroko eguneko eta gaueko aldaketak T3.6 taulan zerrendatzen dira. Eguneko epe bakoitzerako (gauerako eta egunerako), tenperatura maximoaren eta minimoaren arteko diferentziaren bidez kalkulatzen dira. Geroago, haien urtaroaren batez besteko balioak kalkulatzen dira. Eguneko (8 am - 8 pm) eta gaueko (8 pm - 8 am) aldaketen baliorik handienak neguan zeuden, berokuntza sistema erabiltzen zenean. Epe honetako batez besteko eguneko aldaketak 3.18 graduren eta 1.16 graduren artean (D2 eta D6, hurrenez hurren) izan ziren; gaueko aldaketak, ostera, 3.63 graduren eta 0.82 graduren artean (D10 eta D6, hurrenez hurren). Hala ere, udan, aldaketak hauek txikiagoak ziren oro har, 3.36etik (D2) 0.8ra (D4 eta D6).

		Neguko epea (Abe - Mar)		Udaberriko Epea (Api - Mai)		Udako Epea (Eka - Abu)	
	C (kJ/m^2.K)	Eguneko Aldaketa	Gaueko Aldaketa	Eguneko Aldaketa	Gaueko Aldaketa	Eguneko Aldaketa	Gaueko Aldaketa
(T_o)		5.53	4.01	4.58	4.02	5.19	4.38
D1	463.8	2.14	2.15	1.23	1.33	1.07	0.99
D2	463.8	3.18	2.87	2.53	2.49	3.36	3.68
D3	359.8	3.11	2.99	1.32	1.39	0.91	0.93
D4	359.8	1.19	1.68	1.03	1.46	0.81	1.08
D5	180.0	2.64	2.84	1.98	1.85	2.03	1.80
D6	238.4	1.16	0.82	0.89	0.89	0.79	0.85
D7	180.0	2.98	2.55	1.63	1.33	1.03	0.93
D8	189.0	1.79	1.41	1.64	1.12	1.75	1.38
D9	189.0	2.18	1.92	1.43	1.58	1.17	1.27
D10	162.6	2.02	3.63	1.54	1.56	1.11	1.23
Etxebizitza guztiaren batez bestekoa		2.24	2.29	1.52	1.50	1.40	1.41

T3.6. Aztertutako etxebizitzen gaueko eta eguneko aldaketaren barne eta kanpo tenperaturaren arteko ratioa (Gela nagusian neurtutako datuak)

Etxebizitza bakarraren bi neurtutako gelak elkarrekin konparatzean ezberdintasunak aurkitu ziren ere, neguan batez ere. Etxebizitzaren gela guztietan berokuntza sistema zegoenean, gaueko eta eguneko aldaketak antzekoak izan ziren bi geletan (D5 esaterako, batez besteko eguneko aldaketa 2.84 izan zen gela nagusian, eta 2.70 izan zen logelan). Soilik etxebizitzaren gela batzuetan berokuntza sistema zegoenean, ezberdintasun handiagoak aurkitu ziren: D3 etxebizitzaren batez besteko eguneko aldaketa 3.11koa izan zen gela nagusian, eta 1.36koa logelan; aldi berean, gela nagusian egin ziren neurketaren batez besteko gaueko aldaketa 2.99koa izan zen, eta 1.27koa logelan.

Emaitza hauek eta S. Martín et al.-ek ematen dutenak [49] kontraesankorrak direla dirudi. S. Martín et al.-ek tenperaturaren gorabeherak estrukturaren bero - ahalmenari oso lotuta daudela aipatzen dute. Hala ere, gertakari hau ikerketak baldintza ezberdinetan garatzeagatik gertatzen da. Kapitulu honen ikerketako kasuan, aztertutako etxebizitza guztiak okupatuta zeuden neurketa egin bitartean; Martín et al.-ek egin zuten azterketan [49], berriz, hiruetako bi etxebizitza hutsik zeuden.

Berokuntza sistema nola erabiltzen den moduak neguan, eta biztanleen aireztapenaren kudeaketak udan (bata eta besteak biztanleen portaerari lotuta daude) etxebizitzaren barne tenperaturaren heina handiagotu dezakete. Izan ere, puntu hau D4 etxebizitzan lortutako neguko eguneko tenperaturaren heinekin frogatu zen, lagineko heinik baxuenetako bat. Aldi berean, D6 etxebizitzak tenperaturaren heinik baxuena erakutsi zuen, eta bere berokuntza sistema erabilera oso aldizkakoa zen, bere galdeketak dioenez. Hipotesi hau udarako frogatu zen ere. D6 etxebizitza, udan neurtutako tenperaturaren heinik baxuena erakutsi zena, hutsik egon zen epe horretan.

Beste faktore batzuek, aipatutako inguratzaile faktoreak esaterako, emaitza hauen argibidea osatzen dute. Beraz, D2 etxebizitzaren balio altuak inguratzaile faktorearen ondorio bat dira, hau da, estalki behean dago eta horren ondorioz, bere inguratzaile termikoaren azaleraren eta barneko azaleraren arteko ratioa altuagoa da. D1 etxebizitzan, berriz, fatxadaren bero - ahalmen altuaren efektuak leihoaren kalitate baxua indargabetzen du.

Barne hezetasun erlatiboa aztertu zen ere. Hezetasun erlatiboaren hein onargarria erosotasun termikorako %30 eta %70 bitartekoa da [66]. Ia neurtutako hezetasun erlatibozko datu guztiak (%99 baino gehiago) %30 baino altuagoak dira (I3.10 taula). Hala ere, goiko muga aztertzean egoera aldatzen da. Lau etxebizitzatan, neurtutako datuen %5 baino gehiago konfort zonaz kanpo egon ziren, eta haietako bik balio bereziki altuak erakutsi zituzten: D6 etxebizitzak (neurtutako datuen %32.4 konfort zonaz kanpo egon ziren) eta D7 etxebizitzak (neurtutako datuen %46.9 konfort zonaz kanpo egon ziren).



I3.10. Etxebizitzen hezetasun erlatiboa. Banaketa funtzioa

Urtaroen zehaztutako informazioa T3.7 taulan aurkezten da. %70en gainetik neurtu ziren hezetasun erlatiboaren datu gehienak neguan neurtu ziren, D7 etxebizitzan salbu, hezetasun erlatiboaren balio altuak urtaro guztietan erakutsi zirenekoa.

Okupatuta zeuden etxebizitzatan, aireztapen naturalak hezetasun erlatiboan eragin handia zeukan, ikerketako etxebizitzetan aireztapen mekanikoa ez baitzegoen. Beraz, parametro honek (hezetasun erlatiboak) aireztapen - tasari buruzko informazioa eman dezake, hau da, ea nahikoa den ala ez. Barne hezetasun erlatiboa kanpoko hezetasun erlatiboari lotuta dago, baita barneko hezetasun iturriari ere, sukaldaritza edo giza ekintzak esaterako. Hezetasun erlatibozko balio altuegiek aireztapen - tasa edo barne tenperaturak baxuegiak direla adierazi dezakete.

HE	Abe 2011 – Ira 2012		Negua	Udaberria	Uda
	%30 baino baxuago neurriak(%)	%70 baino altuago neurriak(%)	%70 baino altuago neurriak(%)	%70 baino altuago neurriak(%)	%70 baino altuago neurriak(%)
D1	**0.02%**	**3.7%**	8.1%	0.14%	0.36%
D2	**0.00%**	**16.2%**	27.5%	12.1%	3.9%
D3	**0.06%**	**0.3%**	0.82%	0.00%	0.1%
D4	**0.00%**	**7.2%**	16.2%	0.19%	0.02%
D5	**0.02%**	**4.9%**	9.2%	3.5%	0.02%
D6	**0.2%**	**32.4%**	63.2%	18.6%	0.81%
D7	**0.00%**	**46.9%**	40.6%	58.8%	47.5%
D8	**0.00%**	**3.0%**	0.85%	1.76%	6.9%
D9	**0.00%**	**0.08%**	0.03%	0.00%	0. 2%
D10	**0.00%**	**7.0%**	10.1%	2.3%	6.0%

T3.7. Neurtutako hezetasun erlatibozko datuen laburpena (%)urtaro bakoitzean: Negua (Abe 2011 - Mar 2012), udaberria (Api - Mai 2012) eta Uda (Eka - Abu 2012)

6.2 Negu aldia

6.2.1 Analisi orokorra

Negu aldian neurtutako datuak (2011ko Abendutik 2012ko Martxora) atal honetan aurkezten dira. Etxebizitzen barne tenperaturak aztertzeko, tenperatura hein bat definitu zen. S. Martín et al.-ek egin zuten ikerketan oinarritutakoa [49], konfort - zona 18 ºC ±2 graduko barnean definitu zen. Bestalde, definitutako muga baxuena (16 ºC) beste ikerketan *"cold homes"* (etxe hotz) deritzonak identifikatzeko erabiltzen da, estandarizatutako tenperaturak kontuan hartzean. Adibide bat [62] erreferentzian aurkitu daiteke.

Bi etxebizitzatan, negu aldiko batez besteko tenperatura 16 ºC baino baxuago izan zen (D4 and D10). D1, D2, D6 eta D8 etxebizitzetan, batez besteko tenperaturak oso baxuak ziren ere (T3.8 taula). Portaera hauen arrazoiak ezberdinak dira kasuaren arabera; adibidez egun batzuetan etxebizitza hutsik egotea, instalazio energetikoen kontrol desegokia, eraikinaren eta berokuntza sistemaren ezaugarriak, aireztapen profil ezberdinak, etab.

	Tenp. Maximoa (ºC)	Tenp. Minimoa (ºC)	Batez besteko Tenp. (ºC)	Heina (ºC)	Desbiderapen tipikoa
Kanpoan	25.80	- 0.30	10.17	26.10	3.87
D1	24.46	9.73	16.94	14.73	1.85
D2	22.71	10.79	17.56	11.92	1.32
D3	26.13	14.36	19.35	11.77	1.86
D4	21.27	9.21	14.38	12.06	2.26
D5	23.86	12.94	18.79	10.91	1.59
D6	23.69	13.81	17.67	9.88	1.61
D7	22.39	14.27	18.71	8.13	1.25
D8	22.66	11.13	17.70	11.53	1.20
D9	24.22	13.64	20.48	10.58	1.04
D10	23.28	10.52	15.43	12.76	1.68

T3.8. Neguan neurtutako tenperaturaren datuen laburpena (Abe - Mar)

Batez besteko barne tenperaturaren eta berokuntza kontsumoaren arteko erlazioak jadanik irudikatu dira I3.5 irudian. Lerro gorriak aipatutako neguko konfort zona mugatzen dira. Aipatu bezala, joera bat dagoela espero da, hau da, zenbat eta ΔT altuago, orduan eta energia kontsumoa gehiago. Energia kontsumoa antzekoa izatekotan (esaterako D1 eta D8 etxebizitzak), zenbat eta ΔT handiago, orduan eta U - balio baxuagoa zela ikusi zuen. Hala eta guztiz ere, bi etxebizitza (D5 eta D7 etxebizitzak, hain zuzen ere) ez dira joera honi jarraitzen. Kontu honen arrazoia biztanleen portaeran aurkitu zen, adibidez, bere aireztapen profilei lotuta, aztertutako 15 eguneko eta 48 orduko epean ikusten den bezala. Puntu hau egiaztatzeko, D5 etxebizitzan neurtutako 48 orduko eperik hotzena I3.12 irudian irudikatzen da. Irudi honetan, leihoak irekita zeuden momentuak urdinez nabarmentzen dira. Nahiz eta neurtutako eperik hotzena izan, bi egunetan leihoak irekita zeuden epe luzeak aurkitu ziren, batez ere logelan. Logelan, bi orduko epe bat identifikatzen dira Otsailaren 8an, baita lau ordu inguruko epeak Otsailaren 9an ere.

6.2.2 15 eguneko eta 48 orduko epeak

15 egun eta 48 orduko epeen analisiaren bidez, galdeketen bidez lortutako informazioa termo - higrometroarekin lortutako datuekin osatzen dira. 15 eguneko eperik hotzenaren neurtutako kanpo tenperatura I3.11 irudian irudikatzen da. Grafiko honetan, hautatutako 48 orduko epea nabarmentzen dira ere, puntu - lerro urdin baten bidez.



I3.11. 15 eguneko eperik hotzenaren kanpoko tenperatura

Analisi honetan, aireztapenaren eta berokuntzen profilak erraz identifikatzen dira. Leihoak irekita zeuden momentuak grafikoan identifikatzen dira, neurtutako hezetasun erlatiboa eta tenperatura bat - batean jausten baitira. Antzeko modu batean, berokuntza sistema aktibatzean, tenperatura igotzen da, eta aldi berean, hezetasun erlatiboa jausten da. Portaera honen bi adibide I3.12 irudian irudikatzen dira, D3 (berokuntza sistemaren aktibazioa) eta D5 (leihoak irekiak) etxebizitzenak direnak.



I3.12. (Ezkerrean) Berokuntza sistemaren aktibazioaren identifikazioa (D3) eta (Eskuinean) leiho - irekien identifikazioa (D5)



I3.13. Neurtutako barne tenperatura [ºC] eta hezetasun erlatiboa [%] D1, D3, D4 eta D5 etxebizitzak

Analisi hauen bidez, berokuntza sistema ezberdinak (baita haien erabilera ere) bata bestearekin konparatu daitezke. Adibidez, D1 eta D3 etxebizitzetan berogailua soilik gela batzuetan erabili zen. Hala ere, kasu bakoitzean emaitzak oso ezberdinak zen. Nahiz eta bi etxebizitzak egun osoan okupatuta zeuden, D1 etxebizitzan ordu gehienak 16 gradu azpitik egon ziren, eta 48 orduko epean neurtutako tenperatura minimoa 12 gradukoa zen, leihoak irekita zeuden momentu batean. Aldi berean, D3 etxebizitzan, egongelan 2kW-ko berogailu elektrikoa zeukana, berotutako zonan neurtutako datu ugari 20 gradu gainetik egon ziren. Hauetako grafiko batzuk I3.13 irudian aurkezten dira, eta kasu guztiak 3.2. eranskinean irudikatzen dira.

Diferentzia anitz etxebizitza hauen berotuta ez dauden gelen tenperaturetan aurkitu ziren. D4 etxebizitzan (Berokuntza sistemarik ez zeukana), eperik hotzenean tenperatura oso baxuak neurtu ziren. Etxebizitza osoaren tenperatura egonkorra izan zen bi neurtutako geletan. Gailur txiki bat gela nagusian neurtutako tenperaturan agertzen da, berogailu elektriko txiki baten erabileraren ondorioz. Energia kontsumoa kalkulatzean, berogailuaren kontsumoa mespretxatu zen, oso txikia baitzen.

	Tenp. Maximoa (ºC)	Tenp. Minimoa (ºC)	Batez besteko Tenp. (ºC)	Heina (ºC)	Desbiderapen tipikoa
Kanpoan	12.10	- 0.30	5.08	12.40	2.54
D1	19.01	9.73	14.38	9.28	1.55
D2	21.10	12.99	16.95	8.11	1.43
D3	25.72	15.51	18.46	10.21	1.99
D4	13.91	9.21	10.57	4.69	0.76
D5	23.16	12.94	18.38	10.22	1.97
D6	17.68	13.81	15.04	3.87	0.84
D7	22.39	14.27	18.86	8.13	1.52
D8	18.60	12.85	16.75	5.76	0.92
D9	24.22	14.96	20.24	9.26	1.01
D10	22.32	10.52	14.81	11.81	1.97

T3.9. Eguneko eperik hotzenean neurtutako tenperaturaren datuen laburpena (2012ko Otsailaren 1etik 14ra)

Gas naturala erabiltzen ziren etxebizitzak, edo berogailu bat gela bakoitzean zeukatenak, tenperaturaren diferentzia txikiagoak neurtu ziren. Adibidez, D5 etxebizitzan gas natural berokuntza sistema erabiltzen zen, eta gela guztiak berotuta zeuden. Sistema egongelan kokatutako termostato baten bidez agintzen da. Etxebizitza hauetan, berokuntza kontsumoa altuagoa izan zen sarritan, baina etxebizitza osoa konfort - zona barnean zegoen maiz. Tenperaturak gela guztietan antzekoak izan ziren, eta soilik aldaketa txikiak neurtu ziren, aireztapen profil ezberdinen ondorioz.

15 eguneko epearen analisi honetan, 4 etxebizitzen (D1, D4, D6 eta D10) batez besteko tenperaturak 16 gradu baino baxuagoak izan ziren, eta bakarrik etxebizitza baten (D9) batez besteko tenperatura 19 gradu baino altuagoa izan zen (T3.9 taula).

6.3 Udaberri aldia

Udaberri aldian neurtutako datuak (Api - Mai 2012) atal honetan aurkezten dira. Datu hauek aztertzeko, metodologia antzekoa jarraitu zen. Aldi honetan, soilik etxebizitza baten (D10) batez besteko tenperatura 18 gradu baino baxuagoa izan zen. Etxebizitza besteen batez besteko tenperaturak 18.15 graduren (D4) eta 21.19 graduren (D9) artean egon ziren. Lortutako desbiderapen tipikoak negukoak baino handitxoagoak izan ziren orokorrean. Aldi honetan neurtutako datuen laburpen bat T3.10 taulan aurkezten da.

15 eguneko eta 48 orduko epeen analisiari dagokionez, nahiz eta barneko egoera termikoak antzekoak ziren, oraindik diferentzia esanguratsu batzuk aurkitu ziren. Salbuespen pare batekin, etxebizitza gehienek epe honetan ez zuten berokuntza piztu.

	Tenp. Maximoa (ºC)	Tenp. Minimoa (ºC)	Batez besteko Tenp. (ºC)	Heina (ºC)	Desbiderapen tipikoa
Kanpoan	34.80	6.30	14.45	28.50	4.48
D1	28.05	15.03	19.28	13.02	2.67
D2	26.23	11.57	19.48	14.67	2.47
D3	27.21	15.68	20.60	11.53	2.51
D4	28.49	13.55	18.15	14.95	3.19
D5	27.48	15.72	20.21	11.76	2.28
D6	26.06	15.96	20.15	10.10	2.41
D7	23.86	15.06	18.73	8.80	1.53
D8	25.65	14.22	19.18	11.43	1.81
D9	25.57	16.27	21.19	9.30	1.66
D10	23.55	14.03	17.79	9.52	2.06

T3.10. Udaberrian neurtutako tenperaturaren datuen laburpena (Api - Mai)

6.4 Uda epea

Etxebizitza bakoitzaren portaera termikoa berokuntza sistema barik aztertzeko, haien barne egoerak neurtu ziren udan ere, 2012ko Ekainetik Abuztura. Zona klimatiko honetan espero bezala, barne erosotasun termikoa egokia izan zen hozte - sistemarik erabili barik. T3.11 taulan aurkezten den bezala, batez besteko barne tenperaturaren eta batez besteko kanpo tenperaturaren arteko diferentzia 6.82 (D7) eta 12.34 (D2) graduen artean egon ziren. Datu hauek etxebizitza hauen ahalmenak udako eguneko aldaketa termikoen inpaktua gutxitzen duela frogatzen du.

	Tenp. Maximoa (ºC)	Tenp. Minimoa (ºC)	Batez besteko Tenp. (ºC)	Heina (ºC)	Desbiderapen tipikoa
Kanpoan	36.90	12.40	20.35	24.50	3.53
D1	28.64	17.80	23.81	10.85	1.60
D2	29.12	16.77	23.87	12.34	1.70
D3	28.15	20.75	24.06	7.40	1.43
D4	29.99	20.25	24.32	9.75	1.86
D5	30.14	19.75	24.54	10.40	1.43
D6	28.72	20.32	24.62	8.40	1.78
D7	26.97	20.15	23.25	6.82	1.31
D8	29.57	18.89	22.99	10.68	1.38
D9	27.85	20.60	24.72	7.25	1.43
D10	26.72	18.46	23.27	8.26	1.42

T3.11. Udan neurtutako tenperaturaren datuen laburpena (Eka - Abu)



I3.14. Udan D1, D4 eta D5 etxebizitzen 15 eguneko eta 48 orduko epeen analisia

Portaera hau hobeto ulertzen da barne tenperaturak zehatz - mehatz aztertzen badira (I3.14 irudia). Udan neurtutako datuak aztertzeko, konfort - zonaren goiko muga 28 graduetan definitu zen. Urteko eperik beroena izanda ere, erregulazio termikoa egokia ziurtatu zen, etxebizitzaren kudeaketa egokiaren bidez, hau da, eguzki - irabaziak eguneko orduetan murrizteko eta aireztapen eta hozte naturalaren bidez gaueko orduetan. Erregulazio hau etxebizitzen arkitektura - diseinuari esker lortu zen, bereziki etxebizitzen barne - banaketari esker, aireztapen natural eraginkor bat erraztatzen duena.

6.5 Termografiak

Etxebizitzaren energia - kontsumoa aztertzean, zubi - termikoen eraginak aintzakotzat hartzea beste alderdi garrantzitsua da. Erreferentzia batzuek diotenez, zubi - termikoen eraginak etxebizitza baten energia - kontsumoan %5tik [68] (isolamendu termikoa inguratzaile termikoaren kanpokoan daudenean) %39ra (familia bakarreko etxe askotan zubi - termikorako tratamendu txarrarekin) aldatu daiteke [69].

Termografietan oinarritako azterketa kuantitatibo eta zehazki bat egitea konplexua bada ere, eraikin bakoitzeko fatxadaren zubi - termikoen tenperaturen profila aztertu zen, I3.15 irudian irudikatzen den bezala. Fatxadaren kanpoko azalean neurtutako tenperatura minimoaren (T_{min}) eta tenperatura maximoaren arteko diferentziak (ΔT) zubi - termikoaren inpaktuaren maila adierazten du. Zenbat eta ΔT altuago, orduan eta zubi - termikoaren inpaktua handiago izango da.



I3.15. Zubi termiko baten tenperaturaren profila

Azaleko tenperaturaren diferentziarik txikiena (ΔT) D3 eta D7 etxebizitzetan aurkitu ziren (0.7 ºC); bestalde, diferentziarik altuena D2 etxebizitzaren fatxadan neurtu zen

(3.3 ºC). Zubi termikoen eragin posibleak etxebizitzen portaera termikoan ezin zen definitu emaitza hauek eta etxebizitzen barne tenperaturak edo energia - kontsumoak aztertu ziren elkarrekin. Puntu hau azaltzeko, arrazoi bat aurkitu zen: beste aldagai batzuek, aireztapen profilak esaterako, zubi termikoen eraginak murrizten zuten. Kasu honetan, landa - azterketan zehar etxebizitzak okupatuta egotea oztopo bat zen zubi - termikoen efektuak aztertzeko.


(a) (b)
(c) (d)

I3.16. Eraikin batzuen termografiak: (a) D2; (b) D3; (c) D5; (d) D8

Zubi termikoek etxebizitza batean daukaten efektua kuantifikatzeko biztanleen portaeraren efektua murriztu behar da, biztanleak kudeatzen diren faktore batzuk (berokuntza sistemaren setpoint tenperatura, aireztapen tasak edo barne irabazi termikoak esaterako) barneko eta kanpoko tenperaturaren arteko diferentzian rol garrantzitsua jokatzen direlako. Puntu honek zubi termiko baten ΔT nabariki aldatu dezake. Helburu hori lortzeko, bi aukera daude: simulazioaren bidez, edo termografiak egitea etxebizitzak hutsik egotean.

6.6 Barneko erosotasun termikoa eta etxe hotzaren arriskua

Neguan neurtutako tenperaturaren datu batzuk espero zirenak baino askoz ere baxuagoak baitziren, analisi sakonago bat egin zen, neguko barneko erosotasun termikoa eta bere ondoriozko etxe hotzaren arriskua aztertzeko. ISO 7730 arauak dioenez [65], erosotasun termikoa giro termikoarekin asebetetzea adierazten den egoera mentala da. Lehen aipatu bezala, ikerketa honen ezaugarrien ondorioz, erosotasun termikoa aztertzeko beharrezkoa den parametro guztiak ezin ziren neurtu. Horregatik, S. Martín et al.-ek garatzen duten prozedura jarraituz [49], analisi estatistikoan oinarritutako hurbilketa bat egin zen.

Erosotasun termikoa ebaluatzeko, neguko epean (2011ko abenduaren 1etik 2012ko apirilaren 1era) etxebizitza bakoitzaren neurtutako tenperaturaren datu multzoen banaketa - funtzioak (CDF, *Cumulative Distribution Functions* ingelesez) aztertu ziren. CDF bata besteekin konparatzean, ezberdintasun garrantzitsuak aurkitu ziren. D4 etxebizitzaren negu aldian neurtutako datuen %80 ingurukoa 16 gradu azpitik egon ziren. Bestalde, D9 etxebizitzan, 16 gradu azpitik neurtutako datu kopurua mespretxagarria izan zen. Ez hori soilik, baizik eta etxebizitza honetan neurtutako datuen %70 20 ºC baino altuagoak izan ziren. Puntu honek, tenperaturaren setpoint beheratuz baina barne giro erosotasunaren maila murriztu barik, D9 etxebizitzaren energia kontsumoa murriztu daitekela iradokitzen du. D10, D1, D2 eta D5 etxebizitzen CDF I3.17 irudian irudikatzen dira. D2 etxebizitzaren CDF-k barne tenperaturaren oreka ona erakusten du, neurtutako datuen %90 baino gehiago 16 eta 20 graduen artean daude. Etxebizitza guztien CDF grafikoak 3.2. eranskinean irudikatzen dira.



I3.17. Aztertutako etxebizitza batzuen neguko barne tenperaturaren banaketa - funtzioak (gela nagusian)

Neurtutako tenperaturen laburpena, irizpide hauen arabera, T3.12 taulan aurkezten da. Taula honetan agertzen diren datuak aztertzean, D4 etxebizitzaren portaera termikoa azpimarragarria da. D4 etxebizitza ez zen neguko etxebizitzarik hotzena soilik, baizik eta udako beroenetako bat ere (ikusi T3.11 taula). D6 etxebizitzan uda aldian, tenperatura altuak neurtu ziren ere, baina hilabete horietan zehar, etxebizitza hau hutsik egon zen, eta horren ondorioz, ez zen aireztapenik egon, eta D5 etxebizitzan tenperatura altuak urte osoan zehar neurtu ziren. D4 etxebizitzaren portaera termikoa bi arrazoiren ondorioa izan daiteke: alde batetik bere fatxadaren U balioa altua zen; gainera, estalki azpian zegoen eta estalkiaren U balioa oso altua zen ere.

	Negua		Udaberria		Uda	
	16 gradu azpitik neurketak (%)	20 ºC baino altuago neurketak (%)	16 gradu azpitik neurketak (%)	20 ºC baino altuago neurketak (%)	20 gradu azpitik neurketak (%)	28 ºC baino altuago neurketak (%)
Kanpoan	94.67%	1.41%	69.96%	10.43%	52.00%	3.43%
D1	24.6%	5.68 %	11.69%	41.69%	0.20%	0.02%
D2	9.06%	4.94 %	3.13%	39.77%	2.42%	0.17%
D3	0.83%	30.25%	1.15%	49.24%	0.00%	0.00%
D4	81.86%	2.27%	33.15%	29.33%	0.00%	1.36%
D5	0.94%	29.20%	0.00%	52.53%	0.00%	2.33%
D6	12.92%	5.96%	0.14%	46.69%	0.00%	5.07%
D7	1.09%	16.99%	0.31%	26.94%	0.00%	0.00%
D8	5.20%	4.75%	0.92%	30.26%	0.28%	0.03%
D9	0.26%	71.85%	0.00%	76.58%	0.00%	0.00%
D10	65.90%	1.13%	25.41%	18.27%	0.08%	0.00%

T3.12. Gela nagusian neurtutako tenperaturen laburpena: Neguan (Abe 2011 - Mar 2012), Udaberrian (Api - Mai 2012) eta Udan (Eka - Abu 2012)

CDF analisi hauek informazio kuantitatiboa ematen dute, baina ez dute barne tenperaturen bilakaera deskribatzen. S. Martín et al.-ek diotenez [49], barne eta kanpo tenperaturen arteko diferentzia kanpo tenperaturaren aurka aztertu zen (I3.18 irudia, eta 3.2 eranskina). Konfort - zona termikoa grafikoetan markatzen da (lerro urdinen artean), zenbat neurketak konfort - zona barruan zeuden eta zenbat kanpoan identifikatzeko. Gainera, irudiak 16 gradu azpitik egon ziren neurketen proportzioa erakusten du ere. Lehen aipatutako mugak (18 ºC ±2 ºC) konfort - zona mugatzeko erabaki ziren.

Neguko datuen banaketa - funtzioak berokuntza sistemaren erabilerari buruzko informazioa ematen du ere. D4 etxebizitzaren (Neurtutako tenperaturen %80 baino gehiago 16 gradu azpitik daude) eta D9 etxebizitzaren (Neurtutako tenperaturen %99 baino gehiago 16 gradu baino altuagoak dira) arteko diferentziak azpimarragarriak izan ziren. Kasu honetan, eragin handikoenetako faktore bat eraikuntzaren inguratzaile termikoa, berokuntza sistemaren ezaugarriak edo eraikuntza teknikak ez ziren, eraikinaren erabilera eta batik bat, berokuntza sistemaren erabilera baizik.



I3.18. Negu aldiko barne minus kanpo tenperatura kanpo tenperaturaren aurka (D2 eta D4)

7 Eztabaida

7.1 Emaitzei buruzko eztabaida orokorra

I3.1 irudian aipatutako azpisistemak aintzakotzat hartuz, eraikinaren portaera termikoa ulertzeko ikuspegi orokorra erabili behar da. Kapitulu honetan aztertutako etxebizitzen kasuetan, biztanleen portaera adaptatiboak barne egoeraren ezaugarri termikoan rol garrantzitsua jokatu zuen, uda aldian batez ere ([70] erreferentzian aipatu bezala). Kasu gehienetan, portaera adaptatibo honek erregulazio termiko egokia ziurtatu zuen, etxebizitzen arkitektura - diseinuari esker. Etxebizitzaren barne - banaketa onak, etxebizitzaren erabilera eta orientazioa kontuan hartuz, aireztapen natural egokia erraztatzen du, aire - korronteak eraikinaren bi fatxadatan tenperaturen arteko diferentziaren ondorioz.

Kapitulu honetan aurkeztutako ikuspegi holistikoa jarraituz, lortutako emaitzak hurrengo puntuetan laburbildu daitezke:

- **Kokapena eta kanpoko ingurumena.** Etxebizitzak kokatzen direneko hiriak (Bilbao) klima epela dauka.
- **Berokuntza.** Aztertutako etxebizitza gehienen berokuntza sistemaren eraginkortasun energetikoa hobetu daiteke, batez ere etxe alokatuak direnaren berokuntza sistemena, etxe hauen biztanleek sarritan ez dute berokuntza sistema iraunkor batean inbertitzen.

- **Inguratzaile termikoa.** 1980. urtea baino lehen eraikitako eraikinetan, fatxaden eta jatorrizko leihoen U - balio altuak (1.11 - 1.27 W/m2.K) dauzkate. Infiltrazio - tasa ere altuegia da. Etxebizitza askotan, leihoak aldatu izan dira behin gutxienez, eta "Udal Etxebizitzak" bide honetan planak bultzatu eta garatu ditu, etxebizitzaren eta eraikinaren eskalan. Hala eta guztiz ere, oraindik portaera termikoa txarra erakusten duen inguratzaile bat daukaten eraikin kopuru handia dago.
- **Eraikuntza teknikak.** Zubi termikoaren eraginak ezin ziren argi bereizi, eragin termiko txikiak baitzeuzkan beste efektuekin konparatuz, aireztapen profilak esaterako.
- **Etxebizitzaren barne - banaketa.** Orokorrean, aztertutako etxebizitzen barne - banaketa ona ziren, erabilera eta orientaziora egokituta.
- **Biztanleak.** Okupazioaren profilak, aireztapenarenak, edo berokuntza sistema erabilera barne erosotasunean eta energia - kontsumoan eragin handia daukate. Beraz, biztanleen kontzientziazioa handitzeko estrategiak garatzea komenigarria da.

7.2 Barne giroko konfort termikoa

7.2.1 Negu aldiko epea

Lau etxebizitzatan, neguko eperik hotzenean neurtutako batez besteko barne tenperatura 16 gradu azpitik egon ziren, eta haietako bitan, negu aldi osoaren batez bestekoa 16 gradu baino gutxiago zen. Beste aldetik, lau etxebizitzaren tenperatura 18 ºC baino altuagoa zen. Lauetako hiruren (D5, D7 eta D9 etxebizitzak) biztanleak etxebizitzaren jabeak dira. Bestean, nahiz eta batez besteko barne tenperatura 18 gainetik egon zen, tenperaturaren bilakaera aldakorra izan zen. Aipatutako hiru etxebizitzak gas natural berokuntza sistema zeukaten bakarrak dira, eta etxebizitza hauetan, aztertutako etxebizitza guztien familia - errentarik altuenak ziren. Beste ikerketa batzuek energia kontsumoa (eta, zeharbidez, etxebizitzaren barneko erosotasun termikoa) familia - errentari oso lotuta dagoela frogatu dute [34].

Aztertutako etxebizitza gehienetan energia kontsumoa espero baino baxuagoa zen. Puntu honen arrazoi nagusia ez da etxebizitzen portaera termikoa berez ondo delakoa, barne tenperatura baxuaren ondorioa baizik.

Gizarte etxebizitza parkearen portaera termikoa hobetzearen helburua ez da soilik energia - kontsumoa murriztea, baizik eta (batez ere) barneko erosotasun termikoa hobetzea. Horregatik, gizarte etxebizitza bateko birgaitze energetikoaren eraginkortasuna aztertzen ari denean, barneko erosotasunaren parametroak, esaterako barne tenperatura eta hezetasun termikoa, aintzakotzat hartu behar dira. Barneko erosotasunaren hobekuntzak energia - aurrezteak bezain garrantzitsuak dira. Ikerketa honen irismenaren kanpoan geratu diren beste faktoreak, osasun faktoreek edo faktore sozialek esaterako, gizarte etxebizitzaren birgaitze egokitik onurak aterako dituzte.

7.2.2 Uda aldiko epea

Ikerketa honetan uda egon ziren barne egoerak ere kontuan hartu ziren. Udan barneko erosotasun termikoa aztertzeko, negu aldian egon ziren epearen barneko erosotasuna aztertzeko (6.6 atalean) erabili zenaren antzeko metodologiari jarraitu daiteke. Analisi hau ez da tesi honetan aurkezten, barne giroaren ezaugarriengatik, hau da, epe honetan neurtutako barne tenperaturak nahiko erosoak direlako, eta 28 gradutik gora nekez pasatu ziren, ezta urteko egunik beroenean, espero zen zona klimatiko honetan.

8 Ondorioak

Eraikin parkearen birgaitze energetikorako estrategia on bat definitzeko, eraikin parkearen portaera termikoari buruzko informazio zehatz edukitzea beharrezkoa da. Kapitulu honetan, gizarte etxebizitzaren portaera termikoa aztertzeko asmoz garatzen den metodologia bat aurkeztu da. Neurtutako datuak gizarte etxebizitzaren portaera termikoaren eta energia - kontsumoaren joera orokorrak definitzeko, baita gizarte etxebizitzaren erabilera eta profil errealak ere, erabili dira. etxebizitzaren erabilera estandarren eta errealaren (neurtutako datuetan oinarrizkoak direnen) arteko konparaketan, ezberdintasun azpimarragarriak aurkitu dira. Ikerketa honek Bilboko gizarte etxebizitza parkearen erakusgarriak diren hamar etxebizitzaren karakterizazio kuantitatibo eta kualitatibo bat eman du.

Landa - azterketa honetan gizarte etxebizitza hauen energia - kontsumoa espero zena baino baxuagoa zela erakutsi zen. Puntu honen arrazoi nagusia ez da etxebizitzen portaera termikoa berez ondo delakoa, barne erosotasunaren maila murrizteagatik baizik. Beraz, etorkizuneko birgaitze energetikorako estrategiek arreta alderdi honetan jarri beharko dute haien eraginkortasuna aztertzean. Hau da, eraikinetan birgaitze energetikoak ebaluatzeko, ez dira soilik energia - aurrezteak kontuan hartu behar, baizik eta irizpide ekonomiko eta sozialak ere. Etxe hotz kopurua murrizteko helburua energia - aurrezteak berez bezain garrantzitsua da, gizarte etxebizitzaren sektorean batik bat.

Aztertutako etxebizitzaren berokuntza kontsumoaren arteko ezberdintasunak aurkitu ziren. Ezberdintasun hauen kausak ez ziren azaldu eraikinaren eraikuntza ezaugarrien bidez kasu guztietan (esaterako, zenbat eta U balioa altuago izan, orduan eta berokuntza kontsumoa baxuago izan). Biztanleek neguan eskatzen duten batez besteko barne tenperaturak garrantzi handia dauka. Eskari hau, lehen aipatu bezala, familia - errentari oso lotuta dago sarritan. Etxebizitzaren berokuntza sistemak eta bere erabilerak ere barneko egoeretan ezberdintasun hauei eragiten diete. Berokuntza sistemak barneko erosotasun termikoari eragiten diola frogatu zen; bai berokuntza sistema motak berez, baita erabiltzen den moduak ere.

Ikerketa honek etxebizitza gehienen barne - banaketa ona zela erakutsi du ere, erregulazio termikoa errazten duena biztanleen portaera adaptatiboa medio. Hortaz, gizarte etxebizitzaren birgaitze energetikoak sistema energetikoak eta inguratzaile termikoa hobetzera bideratu behar dira.

Edozein birgaitze energetikoa egin aurretik, lehen aipatutako sailkapenaren arabera, gizarte etxebizitzaren mota ezberdinak zehatz - mehatz aztertzea beharrezkoa da. 1920. urtean eraikitako etxebizitza baten portaera termikoa (bero ahalmen handiko fatxadarekin) hobetzeko birgaitze - estrategiarik onena 1960. urtean eraikitakoarena (fatxada arinarekin) hobetzeko estrategiarik onena denaren bezalakoa ez dela posiblea da.

Laburbilduz, gizarte etxebizitza pobrezia energetikora jausteko arrisku gehien daukaten sektoretako bat da. Beraz, gizarte etxebizitza, 1980. urtea baino lehen eraikitakoa batik bat, lehentasuna birgaitze energetikorako estrategietan izan behar da, bai bere hobekuntza potentzialagatik, baita etxe hotza eta pobreza energetikoa eragozteko ere. Birgaitze energetiko hauen eraginkorra aztertzeko ez dira soilik energia - aurrezteak kontuan hartu behar, baizik eta hobekuntza soziala eta ekonomikoak ere.

Azkenik, parametroak estandarizatzeko eta okupatuta dauden etxebizitza ezberdinen portaera termikoa egoki aztertzeko (urtaro eta klima egoera ezberdinetan), estrategia eta metodologia berriak inplementatu behar dira. Bestela, ez litzateke posiblea izango datu - basea garatzea ezta birgaitzerako etxebizitzen lehentasun bat ezartzea ere. Gainera, metodologia hau eraikinen birgaitze energetikoa egin aurretik eta ondoren aztertzeko erabilgarria izan behar da. Birgaitzearen eraginkortasunari buruzko datu errealak lortu eta, aipatutako metodologiaren bidez, bi egoeraren arteko konparaketak egin behar dira (birgaitze egin baino lehen eta birgaitze egin eta gero) baldintza berberetan (hau da, biztanleen portaera eta baldintza klimatikoen efektuak baztertuz). Horregatik, hurrengo kapituluetan, eraikinen portaera termikoaren eredu ezberdinak garatzean eta aztertzean, baita bere emaitzak elkarrekin konparatzean ere, arreta jartzen da.

Hurrengo kapituluan, tesi honen atal esperimental nagusia deskribatzen da. Atal esperimental horretan, Bilboko eraikin parkeko etxebizitza adierazgarri bat hautatu zen, eta landa - azterketa sakon baten bidez, etxebizitzaren portaera energetikoaren aztertzeko datu anitz lortu ziren. Datu hauekin, etxebizitzaren portaera termikoaren eredu ezberdinak 5. eta 6. kapituluetan garatuko eta analizatuko dira. Horrela, eredu hauen bidez, birgaitzerako estrategia ezberdinen efektuak arlo ezberdinetan (barneko erosotasun termikoan edo energia - kontsumoa, adibidez) aurresan daitezke.

9 Aipatutako eranskinak

3.1. Eranskina: Galdeketa - orri txantiloia.

3.2. Eranskina: Landa - azterketaren neurketak.

3.3. Eranskina: Eranskin honetan landa - azterketa honen ondoriozko artikulua aurkezten da (Ingelesez):

- “Field assessment of thermal behaviour of social housing apartments in Bilbao, Northern Spain”, Energy and Buildings, 67 (2013) 118 - 135.

4. KAPITULUA

GIZARTE ETXEBIZITZA ADIERAZGARRIAREN XEHATUTAKO AZTERKETA

LABURPENA

Kapitulu honetan, tesi honen atal esperimentala nagusia zehatzen da. Bilbon dagoen gizarte etxebizitza adierazgarri baten monitorizazio termiko bat da. Bilboko Udal Etxebizitzak birgaitze bat egin zuen 2012. urteko udan. Beraz, landa – azterketa honek bi egoera barne hartzen ditu: lehena, 2012. urteko neguan, birgaikuntzaren aurretik; bigarrena, birgaikuntza lanak egin ondoren, 2013. urteko neguan. Etxebizitzan hirurogei inguru sentsore jarri ziren, baita estazio klimatiko txiki bat ere. Datu eskuratzeko sistemak datuen bilketa minuturo egiten zuen. Monitorizazio hau Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategiaren laguntzarekin garatu zen. Landa – azterketa honen bidez lortutako emaitzak hurrengo kapituluetan erabiliko dira, eraikinen portaera termiko – ereduak baliozkotzeko. Gainera, datuen lehen analisi bat aurkezten da kapitulu honetan.

ABSTRACT

The main experimental part of the Thesis is described in this chapter. It is a thermal monitoring of a representative social dwelling located in a district of Bilbao. A renovation was carried out in the chosen dwelling during the summer of 2012, driven by Bilbao Social Housing. Thus, this field study covers two different scenarios: the first one in winter 2012, before renovation works, and a second one after renovation works were executed, in winter 2013. Around 60 temperature sensors were placed within the dwelling, as well as a small climate station. Data acquisition system recorded values with a 1 minute frequency. This monitoring was technically supported by the Laboratory for Quality Control in Buildings of the Basque Government. Results obtained from this field study will be used as reference in the following chapters of this thesis, to validate the models of dwellings thermal performance developed in this thesis. Moreover, a first analysis of the obtained results is presented in this chapter.

1 Sarrera

Kapitulu honetan doktorego - tesi honen atal esperimental nagusia deskribatzen da. Alde batetik, eraikin baten portaera termikoa birgaitze egin baino lehen neurketen bidez, datu lortzen dira eraikinaren portaera termiko erreala aztertzeko, eta horrela, hobekuntza potentziala identifikatzea eta estrategiarik egokiena erabakitzea. Bestetik, birgaitze egin ondorengo egoeraren neurketak edukiz gero, ea erabakitako birgaitzerako estrategiak espero zen moduan jokatzen den ala ez, eta ea espero ziren helburuak lortu dituen egiaztatu daiteke.

Aurretiko kapituluan aipatu bezala, eraikin baten birgaitzearen emaitzak azpisistema ezberdinen arteko interakzioen ondorioak dira. Horregatik, ez da gauza erraza alderdi honi ekitea. Izan ere, bero - galerak, diseinu fasean kalkulatutakoak baino askoz altuagoak dira sarritan [71].

Arreta eraikinen energia - kontsumoetan jarri dituzten ikerketa asko aurkitzen dira bibliografian. bai xede industrialekin, baita ikerkuntzarakoekin ere. Atal honetan bi ikerketa aipatzen dira adibide gisa.

Ikerketei dagokionez, P. Bacher eta H. Madsen-ek garatu zuten lana azpimarragarria da. 2010. urtean eraikinen portaera termikoaren ereduak identifikatzeko prozedura aurkeztu zuten. Bulegoetako eraikin batean, “Flex House” deritzona, monitorizazio bat egin zen eta lortutako emaitzekin, eredu bat garatu zen [72].

Merkataritzako erabilerara bideratutakoa (ESCO-ak eta antzekoak) IPMVP da. IPMVP Energia Berriztagarria eta Eraginkortasun Energetikoaren Bulegoaren protokolo bat da, Estatu Batuetako Energia - Sailak garatutakoa [73]. Gaur egungo egoerari buruzko informazioa biltzen eta terminologia komun bat definitzen du, neurketa eta egiaztatzearen praktika onak zabaltzeko asmoz.

Kapitulu honetan, hautatutako gizarte etxebizitza baten landa - azterketa deskribatzen da. Etxebizitza bi epe ezberdinetan monitorizatu zen: lehen monitorizazioa 2012. urteko lehen hilabeteetan garatu zen; bigarrena, hurrengo neguan, 2012ko Azarotik 2013ko Otsailera, Bilboko Udal Etxebizitzak birgaitze bat egin ondoren.

Landa - azterketa honetan, datu erabilgarriak lortu ziren hurrengo kapituluetan deskribatutako ereduak definitzeko eta baliozkotzeko. Monitorizazio honen helburu nagusia hurrengo kapituluetan erabiltzeko datu nahikoak lortzea izan arren, lortutako informazioak alderdi nabarmengarri batzuk dauka kapitulu bat garatzeko. Beraz, kapitulu honetan, landa - azterketaren ikuspegi eta diseinua aurkezten dira, baita lortutako emaitzak ere. Izan ere, ondorio interesgarriak aurkitu ziren lortutako emaitzak aztertu ondoren.

Kapitulu honetan aurkeztutako monitorizazioaren analisiak etxebizitzaren portaera termikoan (bere eraikuntza - ezaugarriei lotuta) arreta jartzen duela aipatzea garrantzitsua da. Hau da, aurretiko kapituluetan, deskribatutako ikuspegi sistemikoa jarraituz, hiru etxebizitza - azpisistemaren (eraikuntza teknikak, inguratzaile termikoa eta barne - banaketa) erantzuna kanpoko egoera berariazkoetan aztertzen eta definitzen saiatzen da orain. Biztanle eta sistema energetikoen eraginak hurrengo kapituluetan kontuan hartuko dira.

1.1 Kapituluaren egitura

Kapitulu honetan zehar bi monitorizazio - epeak aurkezten dira, birgaitze egin aurretik eta ondoren. Bigarren atalean helburuak aurkezten dira eta gero, etxebizitzaren deskripzioa (bi egoeretan) hirugarren atalean aurkezten da. Erabilitako instrumentazioa, baita jarraitutako metodologia eta ikuspegia ere, aurkezten dira laugarren atalean. Emaitzak aurkezten eta aztertzen dira bosgarren eta seigarren ataletan. Aurretiko ataletan aurkeztutako egitura jarraituz, lehen emaitzak egoera bakoitzean aurkezten dira, eta gero, bi egoeren datuen arteko konparaketa garatzen da. Azkenik, kapituluaren ondorioak zerrendatzen dira zazpigarren atalean.

2 Kapituluaren helburuak

Kapitulu honetan aurkezten den landa - azterketaren helburuak zerrendatzen dira jarraian:

- Etxebizitza adierazgarri baten portaera termikoari buruzko datuak biltzea, eta datu hauek hurrengo kapituluetan aurkeztutako eraikinen portaera termikoaren ereduak definitzeko eta baliozkotzeko erabiltzea.
- Etxebizitza adierazgarri baten energia - kontsumoak lortzea, birgaitzearen aurretik eta ondoren, okupazioaren eraginak kontuan hartu barik.
- Etxebizitzaren elementu ezberdinetan zehar dauden bero - galerak kuantifikatzea: fatxadatik, barneko pareetatik, zubi termikoetatik, leihoetatik …
- Etxebizitza baten birgaitze energetiko baten efektuak (kasu honetan, leihoen aldaketarenak) bere portaera termikoan elkarrekin konparatzea eta aztertzea.

3 Kasu - azterketa

Bilbon kokatuta dagoen gizarte etxebizitza bat aukeratu zen. Hautaketa hau tesi honen 1. eta 3. kapituluetan aipatutako eraikin parkearen sailkapenaren irizpideetan oinarrituta egon zen. Nahiz eta “eraikin estandar bat” definitzea zaila izan (eraikin parkearen heterogeneotasun eta konplexutasunaren ondorioz), hautatutako eraikina 20. mendeko epe baten (60. hamarkadaren) eraikin adierazgarria dela esan daiteke. Hamarkada honetan, gaur egungo eraikin kopuru garrantzitsu bat eraiki ziren, hiri industrialetan batez ere. Bilboko kasuetan, gaur egungo eraikin parkearen %20 inguru hamarkada horretan eraiki ziren.

Gainera, Otxarkoaga auzoa (I4.1 irudian) bi urte eskasetan eraiki ziren. Eraikina 1959. urtean eraikitzen hasi zen, eta proiektutako 3672 etxebizitzaren eraikuntza 1961. urtean bukatu zen.

I4.1. Otxarkoaga auzoaren ikuste orokor bat

3.1 Birgaitze energetikoaren aurretiko etxebizitzaren deskribapena

Aztertutako etxebizitza, etxebizitza - bloke batean kokatuta dago. Etxebizitzaren planoa I4.2 irudian irudikatzen da, eta argazki batzuk aurkezten dira I4.3 irudian. 52.52 metro karratuko azalera garbia eta 2.47 metroko garaiera du. Etxebizitzak hiru kanporako fatxadak dauzka, mendebalderantz, hegoalderantz eta ekialderantz orientatuta. Haietako bik leihoak dauzkate.



I4.2. Birgaitzearen aurretiko etxebizitzaren planoa

I4.3. Etxebizitzaren kanpoko argazkiak



Eraikuntza sistemak

🟪	Zement. morteroa + pintura geruza	🟧	Zementuzko mortero koloreduna
🟨	Zementuzko mortero arina	🟩	Fatxadan eta leihoetan geruza berri bat gehikuntza
🟦	Fatxadan geruza berri bat gehikuntza		

I4.4. Otxarkoaga auzoko planoa. Eraikinak koloreztatuta daude 1980. urtean egindako birgaitzearen arabera (Iturria: Bilboko Udal Etxebizitza)

3.1.1 Eraikinaren eraikuntza ezaugarriak

1980. urtetik 1989 urtera arteko aldian Bilboko Udalak birgaitzerako lanak bultzatu zituen auzoan, birgaitzerako estrategia desberdinen bidez. Haietako batzuk portaera termikoa hobetzen ziren ere, esaterako fatxadetan zementuzko mortero arinaren gehikuntza, edo isolamendu termikoaren gehikuntza kasu gutxitan. Auzoko eraikin guztiak irudikatzen dira I4.4 irudian, egindako birgaitzearen arabera koloreztatuta.

Bistan denez, egoera hau (aipatutako birgaitzearen ondorengoa) kapitulu honetan hartu zen erreferentzia kasua bezala. Beraz, hurrengo eraikuntza ezaugarrien deskribapena etxebizitzaren egoera lehen monitorizazioaren epea egin zenean deskribatzen da (2012. urteko lehen hilabeteetan).

3.1.1.1 Fatxada

Bilboko Udal Etxebizitzak emandako informazioaren arabera, etxebizitzaren fatxadak adreilu hutsaren bi geruza dauzka, aire - ganbera batek bananduta. Fatxaden barneko azalak igeltsu geruza bat daukate. Kanpoko azala 1987. urtean egin zen birgaitzearen ondorioa da. Lehen aipatutako informazioaren arabera, beste leihoaren eta fatxadaren orriak eraiki ziren birgaitze horretan.



I4.5. Fatxadaren sekzioa (Bilboko Udal Etxebizitzaren arabera)

Hala eta guztiz ere, aldaketarik ez zen aurkitu leihoetan etxebizitzako begiz bilatzean. Birgaitze balkoiei eragin zioten, itxi zirenak, eta esekileku batean bihurtu zen etxe

]

bakoitzean. Fatxadei dagokionez, geruza berriaren gehikuntza I4.5 irudian irudikatzen da, Bilboko Udal Etxebizitzak emandako informazioaren arabera. Isolamendu termikoaren lodiera oso txikia zen, eta kasu batzuetan, mespretxagarria.

Fatxadaren sekzio zehaztuta, baita barneko pareten ere T4.1 taulan zerrendatzen dira.

Pareta Mota	Sekzioa	U – Balioa (Kalkulatuta) [W/m²K]
Fatxada	Igeltsua Adreilu huts (4.5 cm) Aire - ganbera Adreilu huts (12.5 cm) Isolamendu term. (2 cm) Adreilu huts (4.5 cm) Zementozko morteroa (2cm) Agregakin egotzita (1.5 cm)	0.74
Barneko paretak	Igeltsua Adreilu huts (4.5 cm) Igeltsua	3.59
Etxebizitza Eskailera - kaxarekin/Beste Etxebizitzarekin	Igeltsua Adreilu huts (12.5 cm) Igeltsua	2.26

T4.1. Etxebizitzaren elementu nagusien eraikuntza sekzioa

3.1.1.2 Leihoak

Bi leiho mota ezberdinak aurkitu daitezke birgaitzearen aurretiko etxebizitza, biak aluminiozko markoarekin, zubi termikoaren haustura barik. Leiho hauek ez dira jatorrizkoa, seguruenik. Gela 5eko leihoa (ikusi I4.11 irudia) beira soil zeukan; beste leihoak, berriz, beira - bikoitza zeukaten.

3.1.1.3 Egitura

Epe horretako beste eraikinak bezala, eraikinaren egitura hormigoi armatuzkoa da. Forjatuak, hebexka - forjatuak dira.

3.2 Birgaitze energetikoaren ondorengo etxebizitzaren deskribapena

Birgaitze lana batzuk egin ziren etxebizitzan 2012. urteko udaberri eta udan zehar. Haien artean, leiho guztiak aldatu ziren. Aldaketa honek bigarren monitorizazioaren epearen emaitzetan eragin handia daukala espero da, portaera termikoaren hobekuntza aztertzean. Gainera, etxebizitzaren barne - banaketa aldaketa txikiak izan zituen (I4.6 irudian). Beraz, ikuspegi termiko batetik, leiho aldaketa birgaitze ondorengo etxebizitzaren aldaketa nagusia da. PVC-zko leiho berriak, beira - bikoitzarekin, jarri ziren birgaitzean.



I4.6. Birgaitzearen aurretiko etxebizitzaren planoa

4 Metodologia

4.1 Neurketa ekipamendua

53 PT100 (100 Ω - zko platino - erresistentziazko termometroak) erabili ziren barne eta kanpo tenperaturak neurtzeko. Lau fluxumetro (*Ahlborn Instruments*) erabili ziren ere fatxadetan eta forjatuetan zehar zeuden bero - fluxuak neurtzeko. Fluxumetroak lortutako balioak beste bildutako datuak egiaztatzeko erabili ziren.

Estazio meteorologiko bat eguzki - erradiazioa, haizearen abiadura eta presio atmosferikoa neurtzeko jarri zen. Bost berogailu elektriko erabili ziren etxebizitza berotzeko. Haien bero - sarrera neurtu ziren SINEAX M561 (energia neurgailua monofasiko bat) erabiliz. Bere zehaztasuna %0.2koa da.

Funtzioa	Heina	Bereizmena	Errore
Tentsioa	100 mV	0.1 μV	4 μV
	1 V	1 μV	7 μV
	10 V	0.01 mV	0.05 mV
	100 V	0.1 mV	0.6 mV
	300 V	0.1 mV	9 mV
Intentsitatea	10 mA	0.01 μA	2 μA
	100 mA	0.1 μA	5 μA
	1:00 AM	1 μA	100 μA
Erresistentzia	100 kΩ/1mA	0.0005 Ω	0.005 Ω
	1 MΩ/1mA	0.0001 Ω	0.005 Ω
	10 MΩ/100 μA	0.0001 Ω	0.005 Ω

T4.2. Datuak eskuratzeko sistemaren ezaugarriak

Agilent 34980A datuak eskuratzeko sistema bat erabili zen neurtutako datuak biltzeko, 34921A txartelarekin eta 34921T konexio - blokearekin. Sistema honi buruzko informazio gehiago T4.2 taulan aurkezten da.

Sentsore guztiak Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laborategian kalibratu eta baliozkotu ziren. Ekipamenduaren ezaugarriari buruzko zehaztutako informazioa T4.3 taulan aurkezten da.

Parametroa	Unitateak	Sentsorea	Ziurgabetasuna
Tenperatura	[°C]	PT100. A class (4 wire)	± 0.2 °C
Bero fluxua	[W/m²]	Ahlborn FQA - 0801 - H	± 5 %
Anemometroa	[m/s]	Meteo Multi FMA510	± 0.5 / ± 0.3 m/s
Presio barometrikoa	[bar]	Meteo Multi FMA510	± 0.5 mbar
Hezetasun erlatiboa	[%]	Meteo Multi FMA510	± 3 %
Eguzki - erradiazioa	[W/m²]	Kipp and Zonen CMP11	± 3 %

T4.3. Erabilitako sentsoreen ezaugarriak

4.2 Metodologia

Lehen aipatu den bezala, kasu - azterketa 50 metro karratutako etxebizitza bat da. Gelak batetik zortzira zenbatu ziren (I4.11 irudian). Bi monitorizazio egin ziren. Lehenean, etxebizitza lau hilabetetan zehar (2012ko Otsailetik Maiatzera) monitorizatu zen. Leiho aldaketaren ondoren, monitorizazio berri bat egin zen hiru hilabetetan zehar (2012ko azarotik 2013ko otsailera). Etxebizitza hutsik egon zen bi epeetan zehar.

Etxebizitzaren bero - hornidura elektrikoa zen. Berogailu elektriko bana 1 - 5 gela nagusi bakoitzean (1 - 5) kokatu ziren, eta berogailu bakoitza 400 W-koa zen (nahiz eta neurketak 1800Wkoa potentzia totala eman ziren, 2000 W-koaren ordez).

4.2.1 Monitorizazioaren ikuspegia

Landa - azterketa hau diseinatzeko, bero katea berogailutik kanpo airera, kontuan hartu zen, Annex 49 [74] egiten den antzekoa. Kasu honetan, haatik, monitorizazioaren eskalaren ondorioz, sistemaren mugak mugitu zen, eta azterketa ez da energia primario bihurketan hasi, berogailuetan baizik. Ikuspegi honetan, bero - katea azpisistema batzuetan banandu zen. Bero kate honen eskema bat I4.7 irudian irudikatzen da.



I4.7. Bero katea, berogailutik kanpo airera

Ikuspegi honen oinarritutakoa, monitorizazioa diseinatu zen azpisistema bakoitzari buruzko informazioa lortzeko. Beraz, tenperatura azpisistema bakoitzean neurtu zen. Gainera, beste datu batzuk azpisistema batzuetan bildu ziren ere, esaterako berogailuetan, (haien energia kontsumoa neurtu zen) edo kanpoko ingurumenean, (haizearen abiadura eta eguzki - erradiazioa neurtu ziren). Sentsore hauen banaketa irudi eskematiko batean aurkezten da I4.8 irudian.



I4.8. Neurtutako azpisistemak

4.2.2 Datu - eskuratzearen prozedura eta datuen tratamendua

Neurketak minuturo hartu ziren. Datu eskuratzeko sistemak iragazki integratu bat zeukan. Horrela, neurtutako datuak iragazki honetan zehar pasatu ziren seinalearen kalitatea hobetzeko.

4.2.2.1 Neurketen maiztasuna

Neurketen maiztasuna hautatu behar da aztertutako objektuaren denbora erantzunaren arabera. Eraikinen kasuan, denbora erantzun hau 30 minuturen 60 minuturen artean dago. Hala ere, aipatu bezala, hautatutako neurketen maiztasuna landa - azterketa honetarako minutu batekoa zen.

Neurketen maiztasun honen bidez, aldaketa termikoak zehatz - mehatz aztertu daitezke. Lehen azterketa honen ondoren, datuak 10 minutuko epetan integratu ziren, epe bakoitzeko batez besteko balioa kalkuluen bidez. Horrela, batez besteko balio hau balio banaka bat hartzea baino adierazgarriagoa da, baita epe honetako informazio zehatzagoa dauka ere. Datu - multzo sinple bat I4.9 irudian irudikatzen da, kontu hau azaltzeko. Datu - multzo baten hamar neurketak aintzakotzat hartuz, hamar balio hauen batez bestekoa (puntu gorri bat irudikatuta) balio puntukari bat erabilera baino adierazgarriagoa da. Hau da, metodo hau jarraituz, zehaztasun handiagoa lortzen da.



I4.9. Adibide bat balio bakar baten eta batez bestekoaren adierazgarritasunak elkarrekin konparatzeko

4.2.2.2 emaitzen ebaluazioa

Datu eskuratzeko sistemak datu - fitxategi bat sortzen du egunero. Fitxategi bakoitza ("*raw data*") tratatu zen lehenik eta behin, eta sentsore bakoitzetik lortutako neurketak kalibrazioaren faktoretan zehar pasatu ziren. Kalibrazioren faktore hauek lortu ziren aipatutako kalibrazioaren prozedura medio.

Kalibratutako emaitzak aztertu ziren jarraian azalduko den moduan. Lehenik eta behin, egun bakotzako emaitzak aztertu ziren. Prozedura honen bidez, edozein sentsoreen ustekabeko portaera identifikatu daiteke (sentsore guztiak zuzen konektatuta dauden egiaztatzea, adibidez). Lehen azterketa hau egin eta gero, datu hauek 10 - minutuko epetan integratu ziren, lehen aipatu bezala, eta elementu bakoitzaren batez besteko balioak (barne airearen tenperaturaren, fatxadaren kanpoko azaleko tenperaturakoa, etab) lortzen ziren.

4.2.3 Test - errutina

Bero sarreraren errutina diseinatzeko, bi errutina ezagunaren konbinazio bat jarraitu zen: goi - maiztasuneko errutina bat, ROLBS deritzona (*Randomly Ordered Logarithmic distributed Binary Sequence*, ingelesez) eta behe - maiztasuneko errutina bat, PRBS deritzona (*Pseudorandom Binary Sequence*). Ondoriozko errutinak ez dauka korrelaziorik beste sarrerekin, eta diseinatu zen maiztasun ezberdinetan sistema sutzeko, eraikinaren denbora - konstanteak espero denekoa [72]. Denbora - konstante hauek 60 minutuko urratsetik 12 orduko urratsetara aldatzen dira. Aste bateko bero sarreraren errutinaren adibide bat I4.10 irudian irudikatzen da.



I4.10. Etxebizitzaren bero - sarreraren kontrol - seinalea, Otsailaren 1etik 7ra

4.2.4 *Co-heating* metodoa

Lortutako datuak erabiliko dira inguratzailearen transmisio - faktore globala kalkulatzeko, *co-heating* metodoaren bidez. *Co-heating* test neurketa - metodo bat da. Etxebizitzaren bero - galera globalak zenbatzen ditu (W/K), hurbilketa baten bidez.

Co-heating metodoa ez da kontzeptu berri bat. Estatu Batuetan garatu zen 1970. hamarkadako azken urteotan, eta Erresuma Batuan sarritan erabiltzen zen 1980. hamarkadan. Metodo hau egiteko, etxebizitza berogailu elektrikoen bidez berotu behar da bere batez besteko barne tenperatura igotzeko, eta tenperatura hori epe batean zehar mantentzeko, 1 - 3 asteko epean, normalean. Egun bakoitzeko bero - sarrera etxebizitzan kalkulatu daiteke energia elektriko kopuruaren neurketaren bidez. Aipatutako bero - galeraren koefizientea kalkulatu daiteke bero sarreraren eta barne eta kanpo tenperaturaren arteko diferentziaren erlazioa medio. Erlazio hau irudikatuz gero, lortutako maldak bero - galera koefizientea (W/K) ematen du [75]. Hau da, bero - galera koefizientea Eq. 5 ekuazioa medio kalkulatu daiteke.

$$UA = \frac{\sum P}{\sum \Delta T} \qquad \text{Eq. 5}$$

Bestalde, komenigarria da nahikoa ΔT (barne eta kanpo tenperaturaren arteko diferentzia) lortzeko, bero - transferentzian parte hartzen duten bero fluxu ezberdinak maximizatzeko. Horrela, lortutako balioa zehatzagoa da. Horregatik, askoz gomendagarria da *co-heating* test negu aldian egitea, Azaroaren eta Martxoaren arteko epean, leku bakoitzeko klima egoeren arabera. Epe honetan, test hau egitearen beste abantaila bat eguzki - erradiazioaren eraginak murrizten direla. Modu honetan, aldaketa txiki batzuekin, [75] erreferentzian deskribatutako metodologia kontuan hartu zen landa - azterketa hau diseinatu zenean.

4.2.5 Scenario 1. Egoera 1. Birgaitzearen aurretiko monitorizazioa



I4.11. Birgaitzearen aurretiko etxebizitzaren planoa. Sentsoreen kokapena

Datu - multzoa		Sentsore kopurua
Barne tenperatura	[Ta]	6
Fatxadaren azaleko tenperatura	[Te]	6
- *Barneko azala*		*4*
- *Kanpoko azala*		*2*
Leihoen azaleko tenperatura	[Te]	5
Egituraren azaleko tenperatura	[Tstr]	16
- *Goiko forjatuak*	*[Tfs]*	*5*
- *Beheko forjatuak*	*[Tfi]*	*5*
- *Zutabeak (in)*	*[Tp]*	*2*
- *Zutabeak (out)*	*[Tp]*	*4*
Berogailuaren Tenperatura	[Tc]	5
Barneko pareten azaleko tenperatura	[Tm]	13
Kanpoko egoerak (Airearen tenperatura Tout (x2), haizearen abiadura, eguzki - erradiazioa)	-	4
Fluxumetroak	[F]	4

T4.4. Lehen egoeraren etxebizitzaren puntu azpimarragarriak

Etxebizitzaren plano bat irudikatzen da I4.11 irudian. Plano honetan gelak zenbatuta daude eta sentsoreen kokapena aurkezten da, 4.2.1 atalean deskribatutako ikuspegian oinarritutakoa.

I4.12. Lehen monitorizazioaren lau argazki

Lehen monitorizazioan erabilitako sentsoreak zerrendatzen dira T4.4 taulan, lehen aipatutako taldeen arabera: barne tenperatura zortzi puntutan neurtu zen, egituraren tenperatura 16 puntutan neurtu zen, inguratzailearen tenperatura 9 puntutan (haietako lau, fatxadan, eta besteak, leihoetan) eta kanpo tenperatura bi puntutan neurtu zen. Gainera, barneko pareten azaleko tenperatura 15 puntutan neurtu zen, eta 4 fluxumetro ekialdeko eta mendebaldeko fatxadetan eta forjatuan (goikoa eta behekoa) kokatu ziren. Berogailu bakoitzaren alboko airearen tenperatura neurtu zen ere, modu egokian ibiltzen zirela egiaztatzeko. Orobat, balio hauek berogailuaren erresistentziaren inguruko tenperatura edukitzeko erabili daitezke. Monitorizazio honen argazki batzuk aurkezten dira I4.12 irudian. Paretan kokatutako PT100 bat eta fluxumetro bat lehen argazkian erakusten dira; estazio meteorologikoa bigarrenean; erabilitako berogailu bat hirugarrenean; eta airearen tenperatura neurtu ziren sentsore baten kokapena laugarrenean.

4.2.6 Egoera 2. Birgaitzearen ondorengo monitorizazioa

Etxebizitzaren barne - banaketan aldaketa batzuk egon ziren. Hobekuntza termiko nagusia leihoen aldaketa zen. Sentsoreen kokapena lehen monitorizazioaren oso antzekoa zen, bi sentsore salbu (T_m42 and T_m72) mugitu behar zirenak, lehen monitorizazioen kokatzen zireneko paretak ez zeuden bigarren monitorizazioa, I4.13 irudian erakusten denez. Bigarren egoeraren sentsoreen zerrenda T4.5 taulan zerrendatzen da.



I4.13. Birgaitzearen ondorengo etxebizitzaren planoa. Sentsoreen kokapena

Bestalde, bi epe ezberdinak bereizten dira bigarren monitorizazio honetan. Instalatutako leiho berriek aireztapeneko saretak zeuzkaten. Monitorizazio honen lehen asteetan zehar, 2012ko abenduaren 12ra arte, irekita zeuden. Egun horretan, aireztapen saretak zigilatu ziren (I4.14 irudian erakusten den bezala) eta bigarren fasea hasi zen. Bigarren fase hau 2013ko otsailaren 20a arte iraun zen, monitorizazioa bukatu zenean.

I4.14. Aireztapeneko sareta zigiluak

Datu - multzoa		Sentsore kopurua
Barne Tenperatura	[Ta]	6
Fatxadaren azaleko tenperatura	[Te]	6
- *Barneko azala*		*4*
- *Kanpoko azala*		*2*
Leihoen azaleko tenperatura	[Te]	5
Egituraren azaleko tenperatura	[Tstr]	16
- *Goiko forjatuak*	*[Tfs]*	*5*
- *Beheko forjatuak*	*[Tfi]*	*5*
- *Zutabeak (in)*	*[Tp]*	*2*
- *Zutabeak (out)*	*[Tp]*	*4*
Berogailuaren Tenperatura	[Tc]	5
Barne pareten azaleko tenperatura	[Tm]	11
Kanpoko egoerak (Airearen tenperatura Tout (x2), haizearen abiadura, eguzki - erradiazioa)	-	4
Fluxumetroak	[F]	4

T4.5. Bigarren egoeraren etxebizitzaren puntu azpimarragarriak

I4.15. Bigarren monitorizazioaren hiru argazki (2012ko Azarotik 2013ko otsailera)

Horrela, bi faseen emaitzen arteko konparaketa bat eginez, aireztapenari lotutako energia kontsumoaren diferentzia lortzen da, birgaitzearen ondoren ezin baitzen gas trazatzaile bidezko entsegua egin. Epe honetako argazki batzuk aurkezten dira I4.15 irudian.

5 Emaitzak

Lortutako emaitzak erabili ziren hurrengo kapituluetan garatutako eraikinen ereduak definitzeko eta garatzeko. Hala ere, nahiz eta emaitzak hauek soilik urrats erdiko bat izan eredu horiek garatzeko eta helburuzko emaitzak lortzeko simulazioen bidez, informazio interesgarria aurkitu zen emaitza hauek aztertu zirenean.

5.1 Datu esperimentala. Birgaitzearen aurretiko emaitzak

4.2.2.2 Atalean deskribatzen den bezala, lortutako datuak aztertu ziren urrats ezberdinak jarraituz. Lehenik eta behin, egun bakoitzeko datu multzoak aztertu ziren. Modu honetan, lortutako neurketen koherentzia ebaluatzen da eta sentsoreei lotuta diren erroreak, esaterako kontaktu txarrak edo konexioen erroreak aurkitzen dira. Gainera, analisi zehatzak egiten dira emaitza hauek erabiliz. Adibidez, 2012ko Otsailaren 1ean neurtutako datu multzoaren analisia aurkezten da jarraian. Egun horretako egoera klimatikoak (kanpo airearen tenperatura, haizearen abiadura eta eguzki - erradiazioa) eta bero - sarreraren kontrol - seinalea I4.16 eta I4.17 irudietan aurkezten dira, hurrenez hurren.



I4.16. 2012ko otsailaren 1an neurtutako egoera klimatikoak (Euskalmet)



I4.17. 2012ko otsailaren 1an bero sarreraren errutina

5.1.1 Sistema eta azpisistema bakoitzaren emaitzak

Sistema eta azpisistema (I4.8 irudian irudikatutako eskemaren arabera) bakoitzaren eguneroko emaitzak monitorizazioaren epean zehar aztertu ziren.

5.1.1.1 barne airearen tenperatura

Gela bakoitzean neurtutako tenperatura, baita batez besteko barne tenperatura eta ΔT (tenperatura minimoaren eta maximoaren arteko diferentzia) ere I4.18 irudian aurkezten dira. Barne tenperaturaren kasuan, bi neurketa - multzoen balioak (T_a6 eta T_a8) bestearenak baino baxuagoak ziren. Gela hauen diferentzia (komuna eta esekilekua) gela hauetan berogailurik ez egotearen ondorioa da. Beraz, gela hauetan tenperatura baxuak espero ziren, eta berotuta geletan neurtutako tenperaturek (gelak 2 - 5), baita gela 7 ere, 0.5 graduko diferentziak erakusten dituzte. Bitartean, gela 1ean neurtutako tenperatura (T_a1) beste geletako tenperaturaren 0.5 bat gradu azpitik dago. Fenomeno hau hauteman zen ere eguneroko batez besteko balioak aztertzean. Kontu hau monitorizazio - epearen egun gehienetan ohartu zen, eta egun hotzenetan nabarmengarriagoa da.



I4.18. 2012ko otsailaren 1an neurtutako barne airearen tenperaturak

Ez da batere erraza arrazoi bat aurkitzea efektu hau azaltzeko, soilik orain arte aurkezten diren datuak kontuan hartuz gero. Gelaren azalera besteen antzekoa da eta bero sarrera berdina da (gelaren erdian kokatutako berogailu elektriko bat). Gela honen kokapena etxebizitzan intuitiboki are eta onuragarriagoa da, batez ere gela 3 edo 4ekin konparatuz, fatxadaren ratio handiagoa daukatenak. Fenomeno honen azalpena geroago aurkeztuko da, parametro gehiago aztertu ondoren.

5.1.1.2 Inguratzailearen barneko azaleko tenperatura

Inguratzailearen barneko azaleko tenperaturari dagozkion eguneroko datu - multzoak I4.19 irudian irudikatzen dira. Neurtutako barneko azal guztien portaera antzekoa da. Kasu honetan, tenperaturen arteko diferentziak 0.5 bat gradu ziren. Kasu honetan ere, tenperaturarik baxuena gela 1ean neurtu zen.



I4.19. 2012ko otsailaren 1an neurtutako inguratzailearen barneko azaleko tenperatura

5.1.1.3 Inguratzailearen kanpoko azaleko tenperatura



I4.20. 2012ko otsailaren 1an neurtutako inguratzailearen kanpoko azaleko tenperatura

Fatxadaren kanpoko azalean kokatutako sentsoreak neurtu ziren datuak I4.20 irudian irudikatzen da. Fatxadaren kanpoko azaleko tenperatura bi puntu ezberdinak neurtu zen: sentsore bat mendebaldeko fatxadan kokatu zen (T_e12) eta beste sentsore bat ekialdekoan (T_e42). Kanpo tenperatura eta eguzki - erradiazioa ere I4.20 irudian sartzen dira, interesgarritzat hartzen direlako, egoera klimatikoek fatxadaren kanpoko azalari asko eragin baitiote.

Bi alderdi azpimarratu daitezke fatxadaren kanpoko azaleko tenperaturak aztertzen direnean. Alde batetik, fatxadaren kanpoko azalaren eta zeruaren arteko erradiaziozko bero trukearen garrantzia; bestalde, eguzki - erradiazioaren eraginak fatxadan.

Lehen puntuari dagokionez, fatxadaren kanpoko azalaren eta zeruaren arteko erradiaziozko bero trukearen ondoriozko bero - galerak, fatxadaren kanpoko azaleko tenperatura kanpo airearen tenperatura baino baxuagoa izatearen eragileak dira, eta beraz, bero fluxua barne girotik kanpora handiagotzen da. Hau da, negu aldian, erradiaziozko bero trukearen ondoriozko bero - galerak fatxadaren kanpoko azalaren eta kanpo airearen arteko konbekzioaren ondoriozkoak bezain garrantzitsuak dira gutxienez. Izan ere, kanpoko azalako tenperatura kanpo tenperatura baino baxuagoa izan daiteke, eta honen ondorioz, bero fluxuaren noranzkoa aldatzen da, bero irabaziak konbekzioaren bidez edukiz (nahiz eta erradiaziozko bero trukearen ondoriozko bero - galerak askoz handiagoak izango dira).

Eguzki - erradiazioari dagokionez, nahiz eta otsailaren 1a egun hodeitsu bat izan (eguzki - erradiazioa ez zuen 100 W/m^2 goititu egun honetan), 0.80 gradu inguruko diferentziak aurkitu ziren goizean (ekialdeko fatxadan baino tenperatura altuagoak neurtu ziren). Logikoki, egoera kontrakoa da arratsaldean: mendebaldeko fatxadan 0.5 gradu inguruko tenperatura altuagoak neurtu ziren. Gauean zehar, eguzki - erradiaziorik ez dagoenean, fatxaden azaleko tenperaturaren arteko diferentziak mespretxagarriak ziren.

Egun eguzkitsuetan efektu hau nabarmengarriagoa da, 5.1.3. atalean deskribatuko den bezala.

5.1.1.4 Forjatuen azaleko tenperatura

Forjatuen azaleko tenperaturak I4.21 eta I4.22 irudietan irudikatzen dira. Gela 1ean neurtutako tenperaturaren balioak beste geletan neurtutakoak baino baxuagoak ziren ere. Beste geletako batez besteko ΔTko balioak (irudietan irudikatutako lerro gorriak, Gela 1eko tenperatura ez zen kontuan ΔT kalkulatzeko) 0.4 gradukoa izan zen beheko forjatuaren tenperaturak, eta 0.6 gradukoa izan zen goiko forjatuaren tenperaturak. Gainera, datu - multzo hauei buruzko azalpen batzuk egin daitezke.



I4.21. Otsailaren 1an neurtutako beheko forjatuaren azaleko tenperaturak



I4.22. Otsailaren 1an neurtutako beheko forjatuaren azaleko tenperaturak

Beheko eta goiko forjatuen arteko konparaketa egitekotan, aire - estratifikazio termikoa kontuan hartu behar da. Hau da, beheko eta goiko forjatuen azaleko tenperaturen arteko diferentziak ez dira soilik forjatuetan zehar dauden bero - galeraren ondorioz. Aipatutako estratifikazioa oso nabarmengarria da berogailuak konektatuta dudenean, nahiz eta nabarmengarria izan bero - sarrerak ez daudenean ere. Berogailuak konektatuta daudeneko epeetan, I4.23 irudian irudikatu bezala, 2 gradu baino handiagoko diferentziak aurkitzen dira.



I4.23. Airearen tenperaturaren estratifikazioa. 2012ko Otsailaren 1ean ΔT (Tfs - Tfi)

Espero bezala, goiko forjatuaren azala behekoarena baino sentikorragoa da bero - sarreraren aldaketekiko, I4.21 eta I4.22 irudietan erakutsi bezala. Efektu hau aire - estratifikazioaren ondorio bat da. Berogailuak konektatuta daudenean, aire beroa igotzen da, eta beheko aire geruzaren tenperatura astiroago gehitzen da. Estratifikazio honen ondorioz, bero - galerak goiko forjatutan zehar, behekotan zehar baino handiagoak ohi dira.

Efektu hau argi eta garbi erakusten da ere F2 eta F3 fluxumetroen neurketak aztertzekotan. Berogailuak konektatuta ez zeudenean, bero fluxuak bi forjatuetan zehar ia zero izan zen. Hau adierazi daiteke forjatuaren bi azalak tenperatura antzekoa izan zuten. Hala ere, berogailuak konektatuta zeudenean, eta orduan, barne tenperatura igotzen zinen, goiko forjatuan zehar dauden bero - galerak behekoan zehar daudenak baino askoz handiagoak ziren.

5.1.1.5 Zutabeen tenperatura

Bi portaera ezberdinak zutabeetan neurtutako tenperaturan aurkitzen dira, I4.24 irudian aurkezten den bezala. Alde batetik, fatxadetan ez dauden zutabeek (T_p41 eta T_p7) azaleko tenperaturak altuenak izan zituzten. Bestetik, fatxadan dauden zutabeek (T_p1, T_p3 eta T_p8) aurkeztu zuten tenperaturak batez besteko balioak baino baxuagoa ziren.

Hala ere, T_p41 eta T_p7 tenperaturek ez zituzten diferentzia handiak aurkeztu eta bi pilaretan neurtutako tenperaturak oso antzekoak zirenen bitartean, T_p1, T_p3 eta T_p8 balioetan diferentzia nabarmengarriak aurkitu ziren. T_p8aren kasuan, diferentzia hauek neurtutako zutabearen azala berotuta ez zegoen gela batean egotearen ondorioak dira. Teorian, T_p1 eta T_p3 antzekoak beharko luke, kokapena direneko gelak ezaugarri berak zeuzkaten (Orientazio berbera, bero - sarrera berbera...). Hala ere, gela 1an neurtutako beste neurketak bezala, gela honetan neurtu ziren zutabearen azaleko tenperaturak gela 3an neurtutakoak baino baxuagoak dira (0.5 gradu inguruko diferentziak).



I4.24. 2012ko Otsailaren 1an zutabeetan neurtutako tenperaturak

5.1.1.6 barneko pareten azaleko tenperaturak

Barneko pareten azaleko tenperaturak aztertzean, gela 1an neurtutako tenperaturen balio baxuen zergatia aurkitu daiteke.



I4.25. 2012ko Otsailaren 1an barneko paretetan neurtutako tenperaturak

Otsailaren 1an neurtutako barneko pareten tenperaturak I4.25 irudian irudikatzen dira. Gela 1 eta gela 6an kokatu ziren sentsoreak (T_m11 eta T_m12; T_m61 eta T_m62, hurrenez hurren) kontuan hartu ezean, ΔT (I4.25 irudian lerro gorrian irudikatzen dena) egun horren batez besteko balioa 0.7 gradukoa zen.

Baina portaera ezberdinak izan zituzten datu multzotan arreta jarri dezagun, hau da, T_m11, T_m12, T_m61 eta T_m62. Gela 6an neurtutako datuei dagokionez, tenperatura baxu horiek gela bero - sarrerarik ez edukiaren (ez zegoen berogailurik gela honetan) ondorioa dira.

Gela 1an neurtutako datuei dagokionez, tenperatura hauek beste berotutako geletan neurtutako tenperaturak baino baxuagoak ziren. Hala ere, balio hauek zehatz - mehatz aztertuz, tenperatura hauek ez direla gelako tenperatura baxuaren ondorio bat, zergatia baizik ondorioztatu daiteke. Paretetan neurtutako tenperaturarik baxuena $T_m11$koa zen (sentsore hau aztertutako etxebizitzaren eta albokoaren arteko zegoen paretan kokatuta zegoen) eta $T_m12$koa (sentsore hau etxebizitzaren eta eskailera - kaxaren arteko zegoen paretan kokatuta zegoen) bereziki baxuak izan ziren ere.

Neurketa hauek pareta hauetan zehar alboko etxebizitzarantz eta, batez ere, eskailera - kaxara bero - galera handiak zeudela pentsarazten dute. Lehen kasuan, berokuntza sistemaren erabilera eskasa alboko etxebizitzan azaldu daiteke galera hauek T_m11 kokatuta zegoeneko paretan zehar. T_m12 kokatuta zegoeneko paretan zehar galerak nabarmengarrienak dira, ondorioztatu bezala I4.25 irudia ikusiz.

Hipotesi hau indartzen da ere tenperaturaren bilakaerari arreta jarriz. Zenbat eta berotutako gelen arteko diferentziak handiagoak izan (hau da, gela 1en eta alboko etxebizitzaren edo eskailera - kaxaren arteko ΔT altuagoa izan), orduan eta neurtutako bero fluxua altuago izango da, eta horren ondorioz, bero - galerak handiagoak izango dira. Hau da, bi antzeko gelek antzeko bero sarrerak edukiz gero, haien arteko diferentziak haien bero irteeren diferentziei oso lotuta izango dira, hau da, bero galerei.

5.1.1.7 Leihoetako tenperaturak

Bost sentsore kokatu ziren leihoetako tenperaturak lortzeko (I4.26 irudia). Lehen aipatu bezala, leiho guztiak beira bikoitza zeukaten, gela 5koa salbu. Horrela, bi leiho mota aztertu ziren: beira sinplea zeukan leiho bat, eta beira bikoitza zeukan leiho bat (gela 2koa). Beira eta markoen azaleko tenperaturak neurtu ziren. Beira bikoitza zuen leihoaren kasuan, kanpoko eta barneko azaleretako tenperaturak neurtu ziren; beira sinple zuenaren kasuan, aldiz, soilik barne azaleko tenperatura neurtu zen. Sentsoreen nomenklatura T4.6 taulan aurkezten da.



I4.26. Otsailaren 1an leihoetan neurtutako tenperaturak

Elementua	Azala	Gela 2 (Beira bikoitza)	Gela 5 (Beira sinplea)
Beira	Barneko azala	Te21	Te51
	Kanpoko azala	Te22	-
Markoa	Barneko azala	Te23	Te52

T4.6. Leihoetan kokatutako tenperatura sentsoreen nomenklatura

Desberdintasun adierazgarriak aurkitu ziren beira sinple eta bikoitzaren arteko konparaketan (diferentziak 2 gradu baino altuagoak aurkitu ziren haien barneko azaleko tenperaturak elkarrekin konparatzean). T_e22 eta T_e51 antzekoak ziren ere. Beira sinple bateko barneko eta kanpoko azaleko tenperaturak ia berdinak direla onartu daiteke. T_e52 tenperaturaren balioak espero zirenak baino altuagoak ziren, aluminiozko markoaren kalitate baxua kontuan hartuz.

Elementu bakoitza bere aldetik aztertu eta gero, batez besteko balioak kalkulatu ziren T4.7 taulan agertzen diren datu - multzoen arabera, elementu bakoitzaren balio adierazgarri bat lortzeko. Lehenik eta behin, ΔT (momentu bakoitzean neurtutako balio minimoaren eta maximoaren arteko diferentzia) analizatu zen sentsore guztien adierazgarritasuna ziurtatuko.

Berogailuetan kokatutako sentsoreen arteko ezberdintasun nabarmengarriak aurkitu ziren, sentsorearen eta erresistentziaren arteko distantzia ez baitziren zehazki berdina sentsore guztietan, eta ezberdintasun txiki horiek neurtutako tenperaturaren arteko diferentzia nabarmengarriak ekarri ditzakete. Horrela, neurtutako T_c1 balioak erreferentzia - balioa hartu ziren (T4.7 taula).

5.1.2 Batez besteko tenperaturak

	Inizialak	Nomenklatura	Kontuan hartutako balioak
BEROG.	**Tc**	Erreferentziako berogailuaren tenperatura	Tc1
	P	Bero - sarrera	5 berogailutan neurtutako potentzia
	Ta	Batez besteko barne tenperatura (haztatu)	Ta1 - Ta8
FATXADA	**Tfin**	Batez besteko fatxadaren barneko azaleko tenperatura	Te11, Te31, Te41, Te43
	Tfout	Batez besteko fatxadaren kanpoko azaleko tenperatura	Te12, Te42
	Tw	Batez besteko leihoen azaleko tenperatura	Te21, Te51
EGITURA	**Tstr**	Batez besteko egituraren tenperatura	Tfs1 - Tfs5, Tfi1 - Tfi5, Tp1, Tp3
	Tfs	*Batez besteko goiko forjatuaren tenperatura*	*Tfs1 - Tfs5*
	Tfi	*Batez besteko beheko forjatuaren tenperatura*	*Tfi1 - Tfi5*
	Tp	*Batez besteko zutabearen tenperatura*	*Tp1, Tp3*
KANP.	**Tout**	Kanpo tenperatura	Web (Euskalmet)
	Gh	Eguzki - erradiazioa	Web (Euskalmet)

T4.7. Datu - multzoak

Batez besteko barne airearen tenperatura kalkulatu zen zortzi sentsoreekin (Ta1 - Ta8) lortutako neurriak erabiliz. Sentsore bakoitzaren datu - multzoa haztatu zen kokatuta zegoeneko gelaren azalera erabiliz, Eq. 6 ekuazioak aurkeztu bezala.

$$\overline{T_a} = \frac{\sum T_i \times A_i}{\sum A_i} \qquad \text{Eq. 6}$$

non:

- T_a Batez besteko barne airearen tenperatura haztatua da.
- T_i sentsore bakoitzak neurtutako barne airearen tenperatura da.
- A_i gela bakoitzaren azalera da.

Horrela, lortutako balioak adierazgarriagoak dira, zeren eta gelaren azalera kontuan ez hartzean aurkitutako arazoa bi gela txikiak berogailurik ez zeukaten (esekilekua eta bainugela) batez besteko tenperatura jaitsi zutela da. Horren ondorioz, gelaren azalera kontuan hartu ezean, lortutako batez besteko balioak errealitatekoak baino baxuagoa ziren.

Gainerako batez besteko balioak ($T_{f,in}$, $T_{f.out}$, T_w, T_{str}, T_{fs}, T_{fi} and T_p) lortu ziren T4.7 taulan aipatutako sentsoreak lortutako neurrien bidez. Sentsore batzuk ez ziren kontuan hartu batez besteko balioak kalkulatzeko (T_p42 adibidez), zeren eta ez ziren egoki ibili monitorizazio epean.

Nahiz eta estazio meteorologiko txiki bat instalatu zen ekialdeko fatxadan, azkenik egoera klimatikoari buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzaren estazio batik, Deustun kokatzen dena, eskuratu ziren (aurretiko kapituluan aipatu zen estazio klimatikoa), estazio honek neurtutako G_h fatxadaren estazioak neurtutako $G_{v,east}$ baino egokiagoa zen. Deustuko estazio klimatikoa Otxarkoagatik gertu dago, eta beraz, neurtutako balioak balio onargarritzat hartu ziren.

Hipotesi hauek aintzakotzat hartu, egun guztietako batez besteko balioak kalkulatu ziren. Esaterako, 2012ko otsailaren 1eko batez besteko balioak aurkezten dira I4.27 irudian.



I4.27. 2012ko Otsailaren 1an lortutako emaitzak

Puntu batzuk azpimarratu behar dira grafiko honetan. Lehenik eta behin, I4.7 irudian irudikatutako bero - katea argi eta garbi erakusten da. Beroa punturik beroenetik (berogailuaren erresistentzia) punturik hotzenera (kanpo airera) joaten da. Bide hau grafikoan aurkezten da, goitik behera, berogailua konektatuta dagoenean batez ere: beroa erresistentziatik ateratzen da, barne airera joaten da, barne airetik barneko paretetara, fatxadaren barneko azala, egiturara eta leihoetara: fatxadaren barneko azaletik fatxadaren kanpoko azalera; eta azkenik, beroa kanpo airera askatzen da.

Elementu bakoitzaren bero - ahalmena grafikoan aurkezten da ere. Berogailuak konektatzen direnean, barne airearen tenperatura arin - arin erantzuten da; fatxadaren barneko azala, ordea, (edo egituraren tenperatura T_{est} batez ere), askoz egonkorragoa da.

Kanpoko ingurunearen edo berogailuen eraginak etxebizitzan adierazi daitezke ere grafiko honen bidez. Berogailuek barne airearen tenperaturari eta barneko azalerei gehiago eragiten diete, batez ere egun eguzkitsua ez denean. Bestalde, barneko aldaketek fatxadaren kanpoko azalari nekez eragiten diote. Bi portaera ezberdinak aurkitzen dira leihoetan, bere beiraren arabera. Barne ingurunearen egoerek beira bikoitzak dauzkaten leihoei gehiago eragiten diete; kanpoko egoerek, ordea, beira sinplea daukan leihoari gehiago eragiten diote.

Azkenik, leihoen tenperaturen arteko ezberdintasunak azpimarratu behar dira. Beira sinplea daukan leihoaren beirako tenperaturak (T_v2) beira bikoitza daukatenaren beirako tenperaturak (T_v1) baino bi gradu baxuagoa izan ziren orokorrean.

5.1.3 Beste gogoetak

2012ko otsailaren 1ean neurtutako datuak adibide honetan erabili dira bildutako datuen analisia argitzeko, eta etxebizitzaren portaera termikoaren ezaugarri garrantzitsuenak azpimarratzeko. Nahiz eta faktore giltzagarri gehienak aipatutako eguna erabiliz azaldu daitezken, datuen analisia osatugabea litzateke eguzki - erradiazioaren efektua kontuan hartuko ez balitz. Horregatik, egun eguzkitsu batean eguzki - erradiazioak gehiago eragindako elementuen analisi labur bat azpiatal honetan aurkezten dira.

Helburu honekin, 2012ko Otsailaren 12an neurtutako datuak erabili dira adibide gisa. Egun honetako egoera klimatikoari buruzko datuak I4.28 irudian irudikatzen dira. Grafiko honetan irudikatzen denez, egun eguzkitsua izan zen, tenperatura baxuekin, are eta aurretiko aztertutako egunarenak baino baxuagoak. Bero sarreraren errutina I4.29 irudian aurkezten da.



I4.28. 2012ko Otsailaren 12an neurtutako egoera klimatikoak (Euskalmet)



I4.29. 2012ko Otsailaren 12ko bero sarreraren kontrol - seinalea

5.1.3.1 Barne airearen tenperatura

2012ko Otsailaren 12an neurtutako barne airearen tenperaturak I4.30 irudian irudikatzen dira. T_a4 eta, batik bat T_a5 tenperaturak, goizeko lehen orduetan igotzen dira (2 gradu baino gehiago, $T_a5$eko kasuan), eguzki - erradiazioa leihoetan zehar sartzen zenean. Antzeko zerbait gertatzen da arratsaldean mendebaldeko fatxadan: T_a1, T_a2 eta T_a3 igotzen dira arratsaldean, 1.5 gradu inguruko gehikuntzarekin.



I4.30. 2012ko Otsailaren 12an neurtutako barne airearen tenperatura

5.1.3.2 Inguratzailearen barneko azaleko tenperatura

2012ko Otsailaren 12an neurtutako inguratzailearen barneko azaleko tenperaturak I4.31 irudian irudikatzen dira. Diferentzia handirik ez da aurkitzen aurretiko atalean aurkeztutako datuekin konparatuz.



I4.31. 2012ko Otsailaren 12an neurtutako inguratzailearen barneko azaleko tenperatura

5.1.3.3 Inguratzailearen barneko azaleko tenperatura

Egun eguzkitsu bateko datuak eta hodeitsu batekoak elkarrekin konparatzean, ezberdintasun handienak, jakina, inguratzailearen kanpoko azaleko tenperaturetan aurkitzen dira. Eragin hau I4.32 irudian irudikatzen da.



I4.32. 2012ko Otsailaren 12an neurtutako inguratzailearen kanpoko azaleko tenperatura

Beraz, T_e12 (mendebaldeko fatxadan kokatuta) tenperaturarik altuenera iritsi zen arratsaldean, zuzeneko eguzki - erradiazioa zeukanean; ekialdeko fatxadan, berriz, tenperaturarik altuenera goizean iritsi zen. Fatxaden arteko diferentziarik handienera goizean iritzi zen. ΔT balioak 8 gradu baino altuagoak bildu ziren. Eguzki - erradiazioaren eragina fatxadaren kanpoko azaleko tenperaturan grafikoan argi aurkezten dela nabarmengarria da ere. Gauean zehar, bi fatxadak ia tenperatura berdina izan zuten, eta kanpo airearen tenperaturaren oso antzekoa zen, are eta baxuago, aipatutako fatxadaren kanpoko azalaren eta zeruaren arteko erradiaziozko bero trukearen bidez bero galeren ondorioz.

Bestalde, egunean zehar, azaleko tenperatura kanpo airearen tenperatura baino altuagoa zen, zuzenezko eguzki - erradiazioa ez zenean azalera iristen. Goizeko lehen orduetako $T_e12$ko balioak aztertzean, fatxadaren kanpoko azalaren eta zeruaren arteko erradiaziozko bero trukearen ondoriozko bero - galerak drastikoki murriztu ziren, are eta mendebaldeko fatxadak ez du zuzenezko eguzki - erradiazioa ordu horietan jaso. Fatxadak zuzenezko eguzki - erradiazioa jaso zuenean, bere azaleko tenperatura igo zen, airearen tenperaturaren 8 gradu gainetik ekialdeko fatxadaren kasuan (lerro berdea, T_e42) eta ia 10 gradu gainetik mendebaldeko fatxadaren kasuan (T_e12). Honek erradiaziozko bero trukearen eraginak inguratzailearen portaera termikoan frogatzen ditu.

Azkenik, fatxadaren bero - metatzerako ahalmenaren ebaluazio kualitatibo bat egin daiteke grafiko honen bidez. Bi fatxadaren tenperaturak drastikoki murriztu ziren ilundu ondoren (6 pm inguru). Hirugarren kapituluan aurkeztutako informazioan oinarritakoa, fatxada honen eraikuntza - ezaugarriak F.c.1en antzekoak dira. F.c.1en C (bero - ahalmena) 180 kJ/m^{2}K-ekoa zen. Interesgarria izango zen balio hauek bero - ahalmen altuaren fatxada baten balioekin konparatzea (esaterako F.a, 460 kJ/m^{2}K-ekoa) eta haien arteko ezberdintasunak aztertzea.

5.1.3.4 Barneko paretatako tenperaturak

Barneko paretatako tenperaturak aztertzean, ez zen informazio gehigarria aurkitu. 2012ko Otsailaren 12an neurtutako barneko paretatako tenperaturak I4.33 irudian irudikatzen dira.



I4.33. 2012ko Otsailaren 12an neurtutako barneko pareten azaleko tenperaturak

5.1.3.5 Leihoetako tenperaturak



I4.34. 2012ko Otsailaren 12an neurtutako leihoen azaleko tenperaturak

Azkenik, 2012ko Otsailaren 12an neurtutako leihoetako tenperaturak I4.34 irudian irudikatzen dira. Datu hauek ematen duten informazioa fatxadaren kanpoko azaleko tenperaturen bidez lortutakoaren oso antzekoa da. Agian, kasu honetan erradiaziozko bero trukearen efektua nabarmengarriagoa da, beirak bero ahalmenik ia ez dauka eta.

Baina efektu hau detektatzea ez zen batere erraza 2012ko Otsailaren 12an neurtutako datuak aztertzean (I4.34 irudia), argi eta garbi erakusten da I4.35 irudian, 2012ko Martxoaren 15ean neurtutako tenperaturak aurkezten direnekoa. Egun horretan, kanpo tenperatura 10 gradu ingurukoa zen egun osoan. Hala ere, egun eguzkitsua zen, eta G_h - ren balio maximoa 700 W/m^2 - koa izan zen. Hiru tenperaturazko maila ezberdinak identifikatzen dira egun horretan neurtutako datuak aztertzen direnean. Hiru maila hauek I4.35 irudian gutxi gorabehera irudikatzen dira lerro urdinez.



I4.35. 2012ko Martxoaren 12an neurtutako leihoetako tenperaturak

Lehen maila, 15 gradu inguruan, gaueko leihoen tenperaturakoa da, erradiaziozko bero trukearen ondoriozko bero - galerak handiagoak direnean. Bigarren maila, 20 gradu inguruan, beiran iristen den tenperatura egunean zehar, leihoek zuzenezko eguzki - erradiaziorik ez daukatenean. Azkenik, hirugarren maila 30 gradutan jarri daiteke. Hau da beiran iristen den tenperatura leihoek zuzenezko eguzki - erradiazioa jasotzen dutenean. Horrela, nola ekialdeko leihoko (T_e51) tenperatura eguna argitu ondoren drastikoki igo zela ikusi zen. Bi ordutan baino gutxiago, tenperatura 12.26 gradutik 31.44 gradura igo zen. Hamaiketan (GMT ordua) zuzenezko eguzki - erradiazioa jasotzeari utzi zion eta horren ondorioz, bere tenperatura minutu gutxitan 20 gradura jaitsi zen, gaua heldu arte, bere tenperatura 15 gradura jaitsi zenean ere.

Mendebaldeko leihoak antzeko portaera izan zuten. Bere tenperatura astiroago igo zen goizean, zuzenezko eguzki - erradiaziorik ez zenean jasotzen, baina azalaren eta zeruaren arteko erradiaziozko bero trukearen ondoriozko bero - galerak murriztu zirenean eguna argitu eta gero. Tenperaturaren igoera garrantzitsu bat ikusi zen zuzenezko eguzki - erradiazio jasotzen hasi zenean arratsaldean, eta azkenik, leihoaren tenperatura drastikoki jaitsi zen iluntzean, are eta ekialdeko leihoetan baino gehiago, mendebaldeko leihoetan aldi berean erradiaziozko bero trukearen ondoriozko galerak eta zuzenezko eguzki - erradiazioaren jasotzeari uztea jasaten baitira. Hau da ekialdeko leihoen portaeraren kontrako goizeko egoera, erradiaziozko bero trukearen ondoriozko galerak bat batean murrizten direnean eta zuzenezko eguzki - erradiazioaren ondoriozko irabaziak gehitzen direnean.

5.2 Datu esperimentala. Birgaitzearen ondorengo emaitzak

Atal honetan birgaitzearen ondoren neurtutako emaitza garrantzitsuenak aurkezten dira. Sistema guztien datuak berriro aurkeztea errepikakorra izan daiteke, eta kasu askotan, ez du informazio gehigarrizkoa ematen. Beraz, atal honetan aurkezten den informazioak barne airearen tenperaturaren eta leihoetako tenperaturaren datuetan arreta jartzen du. Hauek bi sistemarik eraginenak dira birgaitzea egin eta gero.



I4.36. 2013ko Urtarrilaren 13an neurtutako tenperatura eta eguzki - erradiazioa (Euskalmet)

Kasu honetan, 2013ko Urtarrilaren 13an neurtutako datuak adibide hautatu dira. Egun horretako egoera klimatikoak 2012ko Otsailaren 1eko egoeraren oso antzekoak izan ziren, aurretiko atalean erabili den erreferentzia - eguna dena, I4.36 irudian ageri den bezala. Grafiko honetan, 2013ko Urtarrilaren 13an neurtutako tenperatura eta eguzki -

erradiazioa irudikatzen dira. Berokuntza sistemak jarraitutako errutina I4.37 irudian aurkezten da.



I4.37. 2013ko Urtarrilaren 13an erabilitako bero sarreraren kontrol - seinalea

5.2.1 Sistema eta azpisistemen emaitzak

5.2.1.1 Barne airearen tenperatura

Gela bakoitzean neurtutako barne airearen tenperatura I4.38 irudian irudikatzen dira. Orokorrean, tenperatura hauek barne tenperatura birgaitzearen aurretik neurtutakoak baino altuagoak ziren. Efektu hau birgaitzearen ekarpenik nabarmengarrientzat hartu daiteke, nahiz eta baieztapen hau arretaz egin behar, beste faktore batzuek barne tenperaturan eragin handiak eduki baititzakete, eta azterketa sakonak hurrengo kapituluetan egingo dira.



I4.38. 2013ko Urtarrilaren 13an neurtutako barne airearen tenperaturak

Batez ere, gela 1eko barne airearen tenperaturaren joeraren aldaketa azpimarragarria zen. Birgaitzearen aurretik neurtutako tenperaturak ez bezala, leihoen aldaketa egin ondoren gela 1ean neurtutako tenperaturak etxebizitzaren batez besteko tenperaturen oso antzekoak ziren. Hau azpimarragarria da zeren eta egindako birgaitzearekin ez ziren puntu horretan hobekuntzarik espero izaten (T_m12 eta T_m11 sentsoreak kokatzen zireneko paretak ez ziren hobetu birgaitzean). Alboko etxebizitzaren erabileraren edo eskailera - kaxan aireztapen profilaren aldaketek efektu hau adierazi dezakete.

5.2.1.2 Leihoak

Jakina, aldaketa nagusiak leihoetan neurtutako datuetan aurkitu ziren. Hautatutako egunean beiretako eta markoetako tenperaturak I4.39 irudian irudikatzen dira. 1.5 - 2 gradu inguruko gehikuntza bat leiho berrietako tenperaturaren datuetan aurkitu zen, lehen monitoriazioan lortutakoekin konparatuz. Gainera, leihoetako tenperaturaren aldaketak barne egoera termikoaren aldaketei oso lotuta daude, lehen monitorizazio epean ez bezala. Azkenik, datu hauek beiren portaera termikoa markoena baino hobeto zela aurkeztu zuten, zubi termikoaren haustura eduki arren.



I4.39. 2013ko Urtarrilaren 13an neurtutako leihoen azaleko tenperaturak

5.2.2 Batez besteko tenperaturak

Birgaitzearen aurretik lortutako datuekin egin zen bezala, birgaitzea egin ondoren neurtutako balioak 10 - minutuko epetan integratu ziren. Geroago, elementu bakoitzaren batez besteko balioak kalkulatu ziren, T4.8 taulan aurkezten den bezala.

Batez besteko balio hauek lortzeko, lehen aipatutako irizpide antzekoak jarraitu ziren. Hala ere, landa - azterketa guztiak haien berezitasunak baitauzkate, egokitze batzuk egin behar ziren. Egindako egokitzeak hurrengo puntuetan laburtzen dira:

- Nahiz eta bigarren monitorizazioaren epea Azaroaren azken astean hasi, hasierako arazo guztiak (konexio erroreak, adibidez) ez ziren zuzendu Abenduaren hirugarren aste arte. Horregatik, 2012ko Abenduaren 4tik 2013ko Otsailaren 20ra arteko epean lortutako datuak aztertu ziren.
- Airearen tenperaturaren kasuan, haien balioak gela azalerarekin haztatu ziren bigarren monitorizazio epean ere.
- Gela 2an lortutako airearen tenperaturaren balioak baztertu ziren batez besteko tenperatura kalkulatzeko, zeren eta, sentsore bakoitzak emandako balioak aztertzean, gela 2an kokatzen zen sentsoreak emandako balioak beste logeletan kokatzen zirenak emandakoaren oso antzekoa ziren arren, salbuespen batzuk egun eguzkitsu epe batzuetan aurkitu zituen. Epe horietan, neurtutako tenperaturak 6 graduko diferentzietara iritsi ziren beste geletan neurtutakoarekin konparatuz, I4.40 irudian aurkezten den bezala.



I4.40. 2013ko Urtarrilaren 28an neurtutako barne airearen tenperaturak

Irudi honetan 2013ko Urtarrilaren 28an neurtutako tenperaturak irudikatzen dira. Tenperatura maximoa iritsi zen gela 2ko fatxadak eta leihoak (mendebaldean) zuzenezko eguzki - erradiazioa jaso zuten. Tenperatura hau ez zela gelako tenperaturaren adierazgarria frogatu zuten Gela 1 eta 3 (orientazio berbera) ez zuten izan gailur hori ordu horretan, nahiz eta eguzki -

erradiazioaren efektu txiki bat ikusi daiteken I4.40 irudian. Sentsoreak zuzenezko eguzki - erradiazioa jasotzen zuela ondorioztatu zen. Beraz, nahiz eta batez besteko balioan eragin txikia eduki, ez zen kontuan hartu batez besteko tenperatura kalkulatzean. Bestalde, beste orduetan, neurketak antzekoak ziren gelak elkarrekin konparatuz, batik bat, Gela 1 eta 3an neurtutakoak, eta horregatik, lortutako batez besteko tenperaturak adierazgarri eta fidagarritzat hartu daitezke.

	Inizialak	Nomenklatura	Kontuan hartutako balioak
BEROG.	**Tc**	Erreferentziako berogailuaren tenperatura	Tc4
	P	Bero - sarrera	5 berogailutan neurtutako potentzia
	Ta	Batez besteko barne tenperatura (haztatu)	Ta1 - Ta8
FATXADA	**Tfin**	Batez besteko fatxadaren barneko azaleko tenperatura	Te11, Te33, Te41, Te43
	Tfout	Batez besteko fatxadaren kanpoko azaleko tenperatura	Te12
	Tw	Batez besteko leihoen azaleko tenperatura	Te22, Te52
EGITURA	**Tstr**	Batez besteko egituraren tenperatura	Tfs1 - Tfs5, Tfi1 - Tfi5, Tp1, Tp3, Tp42, Tp8
	Tfs	*Batez besteko goiko forjatuaren tenperatura*	*Tfs1 - Tfs5*
	Tfi	*Batez besteko beheko forjatuaren tenperatura*	*Tfi1 - Tfi5*
	Tp	*Batez besteko zutabearen tenperatura*	*Tp1, Tp3, Tp42, Tp8*
KANP.	**Tout**	Kanpo tenperatura	Web (Euskalmet)
	Gh	Eguzki - erradiazioa	Web (Euskalmet)

T4.8. Bigarren egoerako datu – multzoak

2013ko Urtarrilaren 13ko batez besteko emaitzak I4.41 irudian aurkezten dira. Egituraren eta fatxadaren barneko azalaren erantzunak birgaitzearen aurretik neurtutakoen oso antzekoak ziren. Hala eta guztiz ere, grafikoan leihoen hobekuntza argi eta garbi aurkezten da: beiraren barneko azaleko tenperatura egonkorragoa da, baita kanpoko egoeraren menpeko gutxiago ere.



I4.41. 2013ko Urtarrilaren 13ko batez besteko emaitzak

6 Eztabaida

Bi puntu nagusi azpimarratu behar dira lortutako datuen lehen analisi hau egin ondoren: etxebizitzaren aldamenean dauden lekuetara bero - galerak, eta inguratzailearen erradiaziozko bero trukea.

Lehenari dagokionez, eskailera - kaxara eta, batik bat, alboko etxebizitzara, bero - galera adierazgarriak aurkitu ziren, batez ere gela 1ean lehen monitorizazio epean zehar, kapitulu honetan aipatu den bezala. Bero - galera hauek, etxebizitzaren guztizko bero - galeraren parte garrantzitsu bat dena, kontuan hartu behar dira etxebizitzaren portaera termikoa aztertzean. Barneko paretetako kalitate baxua epe askotan ohikoa izan da orain dela gutxi arte, are eta portaera termikoaren kontzientzia egotekotan, sarritan soilik inguratzailean arreta jartzen zen. Horren ondorioz, etxebizitzaren barne tenperatura alboko etxebizitzaren egoera termikoaren menpekoa da. Puntu hau are eta serioagoa da gizarte etxebizitzaren kasuan, zeren eta etxebizitza askotan berokuntza sistemarik ez da erabili, eta beraz, berokuntza sistema bat erabiltzen diren etxebizitzen bero - galerak handiagotzen dira.

Antzeko arrazoiengatik, eskailera - kaxara bero - galerak adierazgarriak ziren ere. Bestalde, eskailera - kaxako leihoak irekita zegoen ia egun osoan, egoera okerragotu zena, zeren eta eskailera - kaxako barneko airearen tenperatura kanpoko airearen tenperaturaren oso antzekoa zen, eta gainera, pareta honek ez daukat, bere kokapenaren ondorioz, eguzki - erradiazioaren ondoriozko bero irabaziak. Laburbilduz, eskailera - kaxako paretek fatxadak baino kalitate termiko baxuagoak daukate, nahiz eta eskaileraren eta kanpoko egoera termikoak oso antzekoak ziren haien artean.

Erradiaziozko bero trukeari dagokionez, bi monitorizazioen bidez lortutako datuek bere efektua erakutsi dute inguratzailearen kanpoko azaleko tenperaturan, bere efektuak estalkian nabarmengarriagoak izan arren.

6.1 Leiho - aldaketaren onurak

Nahiz eta egindako birgaitzearen aldaketa nagusia soilik leihoen hobekuntza izan, egoera termikoaren hobekuntza nabarmengarria da emaitzak aztertzean. Aipatu bezala, beirako barneko azaleko tenperatura igo zen eta bere erantzuna barneko aldaketari hobea zen. Halaber, puntu honek barne airearen tenperaturan eragina dauka, T4.9 taulan aurkezten den bezala.

Birgaitzearen aurretik (2012ko Otsailaren 1a)				Birgaitzearen ondoren (2013ko Urtarrilaren 13a)			
	00 m	30m	60m		00 m	30m	60m
6 - 7 am	15.28 ºC	16.98 ºC	17.20 ºC	**6 - 7 am**	16.87 ºC	19.12 ºC	19.16 ºC
1 - 2 pm	16.29 ºC	17.90 ºC	18.05 ºC	**12 am - 1 pm**	16.73 ºC	18.95 ºC	19.32 ºC
3 - 4 pm	16.20 ºC	17.81 ºC	17.90 ºC	**2 - 3 pm**	16.80 ºC	19.04 ºC	19.29 ºC

T4.9. Tenperaturaren gehikuntza berogailua konektatu ondorengo lehen orduan

Bi antzeko egun hautatu ziren efektu hau erakusteko: bata birgaitzearen aurretik (2012ko Otsailaren 1a) eta bestea, birgaitzearen ondoren (2013ko Urtarrilaren 13a). Bi egunak hodeitsua zen. 2012ko Otsailaren 1ean neurtutako kanpo tenperatura 8 graduko izan zen goizean; 2013ko Urtarrilaren 13an, kanpo tenperatura 6 gradukoa izan zen. Egoera berberak hain zuzen ere ez izan arren (eta horren ondorioz, ez da posiblea konparaketa kuantitatiboa berehala egitea), antzeko egoerak ziren eta konparaketa kualitatiboa egin daiteke leihoen aldaketaren efektuari buruzko lehen ideia bat egiteko. Hurrengo kapituluetan analisi gehiago egingo dira, baina lortutako datuen azterketa orokor lehen batek aipatutako efektuari buruzko ideia bat eman dezake, jarraian azaldu bezala.

Berogailu konektatu ondorengo lehen orduko batez besteko barne airearen tenperaturak T4.9 taulan aurkezten dira. 2012ko Otsailaren 1ean berogailuak konektatuta egon ziren ordutegi honetan: *6 - 12 am*, *1 - 2 pm*, *3 - 4 pm*, 5 - 7 pm and 9 - 11 pm; 2013ko Urtarrilaren 13an berogailuak konektatuta egon ziren ordutegi honetan: 0 - 1 am, 3 - 4 am, *6 - 9 am*, *12 am - 1 pm*, *2 - 6 pm*, 8 - 9 pm and 10 - 11 pm. Letra etzanaz idazten diren epe bakoitzaren lehen ordua T4.9 taulan laburbildu dira. 1.70 eta 1.92 graduen arteko ΔT bat aurkitu daiteke 2012ko otsailean neurtutako datuetan. Bestalde, 2.29 eta 2.59 graduen arteko ΔT bat aurkitu zen 2013ko urtarrilean neurtutako datuak aztertzean.

Eragin hau argi eta garbi erakusten da I4.42 irudian irudikatzen den grafikoan. Grafiko honetan, berogailuak konektatu ondorengo lehen orduko ΔT irudikatzen da.



I4.42. Berogailuak konektatu ondorengo lehen orduko barne airearen tenperaturako ΔT

Birgaitzearen aurretiko ΔT (lerro urdina) 2012ko Otsailaren 1eko (6 - 7 am) batez besteko tenperatura erakusten da; Birgaitzearen ondorengo ΔT (lerro berdea) 2013ko Urtarrilaren 13ko (6 - 7 am) batez besteko tenperatura erakusten da (T4.9 taulan markatuta dauden bi epeak). Hasieran, denbora "0" izatean (bi epeetan goizeko seietan) berogailuak aktibatzen da. Ezberdintasunik handiena lehen hamar minutuetan ikusten da. Hamar minutu pasa bezain agudo, tenperatura 1.28 gradu igo zen (15.28 gradutik 16.57 gradura) birgaitzearen aurretiko egoeran. Birgaitze egin ondorengoan, berriz, hamar minutu horietan tenperatura 1.93 gradu igo zen (16.83 gradutik 18.76 gradura). Honek frogatzen du inguratzailearen bero - transferentziaren koefizientea hobetu zen (antzeko mugalde - baldintzak, bero - sarrera berbera eta barne airearen tenperaturaren gehikuntza handiagoa, beraz, bero - galerak baxuagoak dira).

Birgaitzearen aurretiko eta ondorengo ΔTren arteko diferentzia I4.43 irudian irudikatzen da. Aipatu bezala, bi epeen arteko ezberdintasunik handiena lehen hamar minututan aurkitu zen. Hamar minutu pasa bezain laster, birgaitzearen aurretiko eta ondorengo ΔTren arteko diferentzia ia egonkortu zen, 0.65 gradu inguruan.



I4.43. Birgaitzearen aurretiko eta ondorengo ΔTren arteko diferentzia

6.2 UA - Balioaren kalkuluak

Atal honetan, lortutako datuen lehen analisi kuantitatibo bat egiten da. Helburu honekin, kapitulu honetako 4.2.4. atalean aipatutako *co-heating* metodoan oinarritutako metodologia bat ezarri zen, bi monitorizazio epeetan neurtutako datuak erabiliz

6.2.1 Espero izan zen balioa

Espero zen leihoen hobekuntzaren zenbatespen bat kalkulatu zen, leiho - aldaketaren ondoriozko UA - balioko murriztapena kalkulatuz. Beraz, eskema sinple bat UA kalkulatzeko I4.44 irudian irudikatzen da. Bi nodok barne eta kanpo tenperatura (T_{in} eta T_{out}, hurrenez hurren) erakusten dituzte. Paraleloko konexioan, bi erresistentzia termikok aipatutako nodoak konektatzen dute haien artean. Erresistentzia termiko hauek leihoak (R_{wind}) eta gainerako bero galeren bideak (R_{rest}) adierazten dituzte.



I4.44. Etxebizitzaren RC sare baten eskema sinple bat

UA_{rest} bi egoeretan berdina da, zeren eta leihoarenak kenduta, ez ziren beste aldaketak etxebizitzan egon. Horregatik, kalkuluak egin daitezke hurrengo ekuazioak jarraituz:

$$UA_{bef} = UA_{w,bef} + UA_{rest,bef} \tag{Eq. 7}$$

$$UA_{aft} = UA_{w,aft} + UA_{rest,aft} \tag{Eq. 8}$$

$$UA_{aft} - UA_{bef} = UA_{w,aft} + UA_{w,bef} \tag{Eq. 9}$$

Zenbatetsitako hobekuntza kalkulatzeko, zahar eta berri leihoen hartutako U balioak jarraian aurkezten dira:

- Birgaitzearen aurretiko leihoen U - balioa: 4.55 W/m^{2}K
- Birgaitzearen ondorengo leihoen U - balioa: 3.09 W/ m^{2}K

Leihoetako azalera osoa (11.5 m^2) kontuan hartuz, etxebizitzaren UA balioaren hobekuntza, leiho - aldaketa egin eta gero, 15 W/K inguruan hobetu da.

6.2.2 Lortutako balioa

Argibide batzuk azaldu behar dira balio hauek aurkeztu baino lehen. Lehen aipatu bezala, *co-heating* metodoa etxebizitza bat berotzean datza, barne airearen tenperatura egonkorra mantentzeko (25 gradu inguru) denbora - epe espezifiko batean zehar (1 - 3 aste, normalean). Hala ere, tesi honen atal esperimentala diseinatu zen eraikinaren portaera dinamikoa karakterizatzeko, hain zuzen ere, 6. kapituluan deskribatutako eta garatutako RC ereduaren parametro karakteristikoak lortzeko. Jarraitutako metodologiaren eta *co-heating* metodologiaren arteko ezberdintasun nagusia erabilitako bero - sarreraren errutina da. hau da, *co-heating* metodoa egiteko, erabilitako bero sarreraren errutina etengabea eta berogailuaren potentzia modularra izan behar dira; kapitulu honetan aurkeztu den monitorizazioa, berriz, berogailuen potentzia ez da modularra, eta bero sarreraren errutina ez da etengabea. Beraz, barne tenperatura ez da egonkorra, UA balio zehatz bat lortutako iradokitzen den ez bezala.

Mugaketa hauek aintzakotzat hartuz, orduan, helburua ez dela *co-heating* metodoa garatzea, etxebizitzaren (birgaitzearen aurretiko eta ondorengo) erreferentziazko balio batzuk lortzea baizik adierazi daiteke.

Horregatik, soilik berogailuak konektatuta egon zen epeak kontuan hartu ziren UA balioa kalkulatzeko (Epe hauek iraupen ezberdinak dauzkate, 1 - 33 ordu). Egoera kuasi - geldikorra lortzeko, iraupen luzeagoak behar dira (*co-heating* metodoaren testen iraupena 1 - 3 astekoa ohi dira). Beraz, beste efektuak, eraikinaren inertzia termikoa adibidez, lortutako emaitzei eragin ahal baitiete, emaitzak arretaz aztertu behar dira. Metodo honen bidez lortutako emaitzak T4.10 eta T4.11 tauletan aurkezten dira, birgaitzearen aurretik eta ondoren, hurrenez hurren.

Kalkulu hauek koherentziarik ez daukate (balio hauen arabera, birgaitzearen ondorengo egoerak birgaitzearen aurretikoak baino balio txarragoa dauka). Lehen balio hauen inkoherentziaren ondorioz, lortutako datuen analisi sakon bat gehiago egin zen.

Berogailuak konektatuta egon zireneko ordu kopurua		**Bat. besteko potentzia**	**Batez besteko ΔT**	**UA**
OTS 2012	287h 30 min	1780.97	11.06	160.97 W/K
MAR 2012	304h 10 min	1708.16	9.9	172.55 W/K
API 2012	224h 20 min	1715.05	9.91	173.06 W/K
		BATEZ BESTEKO UA		**168.61 W/K**

T4.10. Leiho - aldaketaren aurretiko hilabeteroko balioak

Berogailuak konektatuta egon zireneko ordu kopurua		**Bat. besteko potentzia**	**Batez besteko ΔT**	**UA**
ABE 2012	306 h	1740.32	8.22	211.73 W/K
URT 2013	342h 10 min	1760.6	9. 58	183.87 W/K
OTS 2013	204h 20 min	1747.28	8.78	198.96 W/K
		BATEZ BESTEKO UA (Epe osoa)		**197.49 W/K**
		BATEZ BESTEKO UA (Urt - Ots)		**189.51 W/K**

T4.11. Leiho - aldaketaren ondorengo hilabeteroko balioak

Lehenik eta behin, UAren kalkuluetan eragin daukaten gaiak (Eq. 5 ekuazioaren arabera) aztertu ziren. Monitorizazio epe bakoitzaren lehen hilabetean arreta jarriko da: 2012ko otsailean eta 2013ko Urtarrilean (2012ko Abenduan, aireztapen saretak ez ziren zigilatu). Bi egoeretan bero potentzia berdina zen (1800 W inguru). Batez besteko barne tenperaturak berogailuak konektatuta egon ziren epeetan 18.34 gradukoa izan zen lehen monitorizazioan; bigarrenean, ordea, 19.72 gradukoa izan zen. Batez besteko kanpo tenperaturak 6.91 ºC eta 10.98 ºC izan zen hurrenez hurren. Monitorizazioaren ezaugarriak eta ΔTaren garrantzitsua kalkuluan kontuan hartuz, epe bakoitzean lortutako UA balioaren eta kanpo tenperturaren arteko erlazioa aztertu ziren, ea kanpo tenperaturen arteko diferentziek UA balioei eragin ahal dieten identifikatzeko. Erlazio hauek I4.45 grafikoan irudikatzen da.

UA balioetan kanpo tenperaturaren eraginak azpimarratu behar dira. Monitorizazio bakoitzaren emaitzak elkarrekin konparatuz, analisi kualitatibo bat egin daiteke. UA balioen eta batez besteko kanpo tenperaturen arteko korrelazio bat ikusi daiteke: zenbat eta kanpo tenperatura altuago izan, hainbat eta UA balioak altuago lortuko dira. Beraz, lehen monitorizazioan neurtutako tenperatura baxuagoen ondorioz, lehen egoeran lortutako UA balioak bigarren egoeran lortutakoak baino baxuagoak ziren (batez besteko kanpo tenperaturak, baita bi epeetan lortutako UA balioak ere, grafikoan irudikatzen dira). Hala eta guztiz ere, bigarren monitorizazioan lortutako UA balioak lehen monitorizazioan lortutakoak baino baxuagoak direneko joera bat ikusten da.



I4.45. Bi monitorizazio epeetako UA vs. Kanpo airearen tenperatura

6.2.3 Kontuan hartu behar diren beste alderdi batzuk

Aipatutako guztiaren ondorioz, azpimarratu behar da azpi - atal honetan aurkeztutako metodologia ez da *co-heating* metodoa hertsiki; aitzitik, *co-heating* metodoan erabiltzen den ekuazioa bi monitorizazio epeetako erreferentziazko balio batzuk kalkulatzeko erabili da. *Co-heating* metodoaren bidez balio zehatz lortzeko, aztertutako eraikinak egoera egonkor bati iritsi behar du. Horretarako, barne airearen tenperatura egonkorra epe luze batean zehar mantendu behar da. Kapitulu honetan aurkezten den monitorizazioan, ordea, bere ezaugarrien ondorioz, ez zen egoera hau iritsi, eta horregatik, lehen aipatutako korrelazioak aurkitzen dira lortutako emaitzak aztertzean. Dena dela, kalkulu hauei buruzko puntu batzuk azpimarratu daitezke, jarraian aurkezten direnak.

Co-heating metodoa egitean, eraikinak sistema sinple bat da, I4.46 irudian irudikatzen den bezala. Ikuspegi honetan, bero - sarrera neurtzen da, eta bero - galerak inguratzailean zehar, UA - balio orokorraren arabera dira, lehen azaldu bezala lortzen dena. Beraz, edozein eraikin inguratzailearen hobekuntzak (fatxadan, estalkian, leihoetan…) eraikunaren UA balioa murrizten laguntzen du, eta horren ondorioz, inguratzailean zehar daude bero - galerak murrizten.

I4.46. *Co-heating* metodoaren printzipioaren eskema

Hala ere, ikerketa honen kasu - azterketa eraikineko etxebizitza bat da (eta ez da eraikin osoa). Horregatik, bero sarrera eta irteera berriak eskeman agertzen dira (I4.47 irudian). Izan ere, eguzki irabaziak eraikinaren eskalan agertzen dira ere bai, eta kontuan hartu behar dira inguratzailearen UA - balio zehatzagoa lortzeko, baita infiltrazio eta aireztapenaren tasei lotutako bero - galerak ere. Baina kasu - azterketa eta alboko etxebizitzaren arteko trukatutako bero - fluxuak (goiko eta beheko forjatuen zehar, baita barneko paretetan zehar ere) garrantzitsuak daitezke etxebizitzaren energia orekan. Horren ondorioz, etxebizitza hauen erabilerak rola garrantzitsu bat jokatu dezakete *co-heating* metodoaren bidez lortutako emaitzan.

Eskema hauetan oinarrituta, puntu hauen eragina hurrengo paragrafoetan aztertzen dira, *co-heating* metodoaren bidez lortutako emaitzen arrazoiak identifikatzeko.



I4.47. Etxebizitza baten portaera errealaren printzipioaren eskema

6.2.3.1 aireztapenaren ondoriozko galerak

Aireztapen profilek eragin handia eduki dezakete *co-heating* metodoan. Hala eta guztiz ere, alderdi hau kontuan hartu zen bi monitorizaio epeetan, eta aireztapen saretak zigilatu ziren, batik bat bigarren epean (esaterako ikusi I4.14 irudia). Bestalde, infiltrazio tasen arteko ezberdintasunak baztertu ziren, zeren eta lehen monitorizazio epean egindako testek infiltrazio tasak oso baxuak erakutsi dute, eta leiho aldaketak, nolanahi ere, infiltrazio tasak murrizten du.

6.2.3.2 Alboko etxebizitzetarako bero - galerak

Lehen aipatu bezala, *co-heating* metodoa egitean, bero sarrera osoa inguratzailean zehar galtzen dela onartzen da. Orduan, lortutako UA, etxebizitza inguratzaile osoarena da, hau da, fatxada eta leihoak, baita alboko etxebizitzatik banatzen duten barneko paretak eta goiko eta beheko forjatuak ere. Elementu hauetan zehar dauden bero fluxuak, alboko etxebizitzetako erabileraren oso menpekoak dira, hau da, alboko etxebizitza baten barne egoeren aldaketa bat UA emaitzetan eragin handia eduki daiteke.

6.2.3.3 Eguzki irabazien aldaketak

Eguzki irabaziak kalkulu honetan eragin handia daukate ere. Kasu honetan, pertsianak irekita zeuden bi monitorizazio epeetan zehar (baldintza hau beharrezkoa zen hurrengo kapituluan aurkezten den eredua definitzeko). Beraz, eguzki - erradiazioa etxebizitzara irteten ziren leihoetan zehar.

6.2.4 UA kalkuluei buruzko faktore azpimarragarriak

UA balio ilogikoak lortu ziren zeren eta monitorizazioak ez ziren diseinatu *co-heating* metodoa aplikatzeko, eta jarraitutako metodologia ez da egokiena metodo hau egiteko. Hiru alderdi azpimarratu daitezke analisi mota hauek egitean, jarraian deskribatzen direnak:

- **Kanpo airearen tenperaturen neurketen akatsarekiko sentiberatasuna:** Lehen aipatu bezala, *co-heating* metodoan oinarritutako UA balioen kalkuluak egin ziren Eq. 5 jarraituz. Bi monitorizazio epeetan iritsitako ΔT (10 ºC inguru) kontuan hartuz, tenperaturaren akats txikiek aldaketa nabarmengarriak kalkulatutako U - balioan ekarri dezakete. Barne airearen tenperatura neurtzeko, zortzi tenperaturaren sentsore (PT 100) erabili ziren eta zehaztasun ona lortzen dela onartzen da. Kanpo airearen tenperatura lortzeko, berriz, etxebizitzaren gertu zegoen estazio klimatiko bat erabili zen. ΔT handitzea (barne airearen tenperatura igotzearen bidez), U balioa kalkulatzean kanpo airearen tenperaturaren neurketen akatsen eragina murriztuko zen.
- **Eguzki - erradiazioaren eragina:** Eguzki - erradiazioaren eragina etxebizitzan erakutsi da ere. Monitorizazioaren diseinua prestatu zen hurrengo kapituluan aurkezten den ereduaren definizioan beharrezkoa diren datuak lortzeko. Horregatik, eguzki irabaziak egotea beharrezkoa izan zen. Beraz, pertsianak ez ziren itxita monitorizazio epeetan zehar. Hala ere, *co-heating* metodoa egitekotan, pertsianak ixtea komenigarria da.
- **Alboko etxebizitzara joaten diren bero fluxuen neurketetan akatsak:** Nahiz eta fluxometroak kalibratu ziren bi monitorizazio epeen aurretik, fluxometro baten kokapen txarra balio txarrak eman ditzake, eta balio oker hauek, P_{env} balioan akatsak ekarri ditzakete P_{env} balioan.

7 Ondorioak

Kapitulu honetan Bilboko gizarte etxebizitza batean egindako monitorizazioa zehatz - mehatz deskribatu da. Datuak bi epe ezberdinetan bildu ziren, birgaitze baten aurretik eta ondoren. Landa - azterketa hau tesi honen atal esperimentalaren mamia da. Hau da, kapitulu honetan aurkezten diren emaitzak hurrengo kapituluan erabiliko dira eredu mota ezberdinak definitzeko eta baliozkotzeko.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta kapitulu honen helburu nagusia tesi honen atal esperimental nagusia eta aipatutako emaitzak lortzeko egindako landa - azterketa deskribatzea izan da, puntu batzuk azpimarratu daitezke, bai metodologiari buruz, bai emaitzei buruz.

7.1 Metodologia

Atal esperimentalean, bi alderdi azpimarratu behar dira. Alde batetik, Monitorizazioa ondo diseinatzea, bilatutako helburuaren arabera, erakutsi da. Monitorizazioaren helburua argi izan ondoren, sentiberatasun handienak daukaten datuak zein diren identifikatzea komenigarria da landa - azterketa mota hautena. Aurkitutako arazoak *co-heating* metodoa erabiltzeko beste helburuarekin diseinatutako monitorizazio baten bidez neurtutako datuekin (hau da, hurrengo kapituluetan definitutako ereduak) puntu honen adibide bat dira.

Aldi berean, monitorizazioaren diseinuan malgutasuna komenigarria da, posiblea bada. Landa azterketetan, sentsore batzuk neurri okerrak ematen dituztela, edo kanpo egoerak onenak ez direla posiblea da. Horregatik, posibilitate hauek aurrez ikustea komenigarria da, eta malgutasun nahikoa edukitzea arazo hauei aurre egiteko (sentsore kopurua, monitorizaioaren iraupena...)

7.2 Emaitzak

Landa - azterketa honetan lortutako datuen analisiri esker, beste moduan oharkabean joan luketen portaera batzuk aurkitu daitezke, Gela 1ean aurkitutako bero galerek (lehen monitorizazio epean nabarmenagoak zirenak) garrantzi berezi bat daukate. Puntu honek ez eraikinaren inguratzailea soilik, baizik eta etxebizitzen arteko banaketako paretak ere kontuan hartzearen garrantzia azpimarratu du hobekuntza termiko bat diseinatzean. Bero - galera hauek garrantzitsuak izan daitezke, batik bat alboko etxebizitzetan erabileraren profil ezberdinak daukatenean.

7.3 Hurrengo urratsak

Hurrengo bi kapituluetan (eredu matematikoak) bi eraikinen eredu termiko mota garatuko dira, kapitulu honetan aurkezten den landa - azterketan lortutako datuak erabiliz. Eredu hauen bidez, etxebizitzaren portaera termikoa aztertu daiteke, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki, eta etxebizitzaren portaera termikoaren analisi sakonago bat lortu daiteke. Hori dela eta, 5. kapituluan TRNSYS eredu bat definitzen eta egokitzen da (hau da, kutxa zuriaren eredua) aztertutako etxebizitzaren portaera termikoa analizatzeko, eta 6. kapituluan, kutxa grisaren eredu bat garatzen da.

3. ATALA

EREDU MATEMATIKOAK

PART 3. MATHEMATICAL MODELS

> *"How can it be that mathematics, being after all a product of human thought independent of experience, is so admirably adapted to the objects of reality?"*
>
> *Albert Einstein (1879 - 1955)*



5. KAPITULUA

KUTXA ZURIAREN EREDUAK. TRNSYS EREDUAREN GARAPENA

LABURPENA

Laugarren kapituluan aurkeztutako etxebizitzaren eredu bat garatzen da kapitulu honetan. Lehen monitorizazio epean bildutako datuak erabili ziren ereduaren parametroak egokitzeko. Geroago, leiho – aldaketari esker lortutako energia – aurrezteak zenbatu ziren eredu honen bidez. Bi egoera ezberdin aukeratu ziren kalkuluak egiteko: lehen egoeretan, erabilera – profilak zehaztu ziren bibliografiaren arabera (IDAE-ren gidaliburuak, hain zuzen ere); bigarrenean, ordea, tesi honen hirugarren kapituluan aurkeztutako landa – azterketan lortutako ondorioetan oinarritutako erabilera – profilak erabili ziren. Azkenik, bi egoeren arteko ezberdintasunak aztertu ziren.

ABSTRACT

Building model of the dwelling presented in chapter 4 is developed in this chapter. Data obtained in the first monitoring of the dwelling was used to adjust the defined model parameters. Afterwards, the model was used to calculate savings obtained as a result of a windows replacement. Moreover, two different scenarios were assumed to calculate: in the first one, operating conditions were defined according literature (namely, IDAE guidelines); the second one, operating conditions were based on the information obtained by monitoring the 10 dwellings, which has been presented in the Chapter 3 of this Thesis. Finally, the differences on the results of both scenarios were evaluated.

1 Sarrera

Aurretiko kapituluetan aipatzen den bezala, eraikin baten portaera erreala aurrez ikustea eta aztertzea faktore giltzagarria da, bai birgaitze optimoa erabakitzearren, bai birgaitzerako estrategia baten portaera ebaluatzearren.

Hala eta guztiz ere, hainbat zailtasunak aurkitzen dira, batik bat birgaitze energetikoen kasutan. Eraikin baten birgaitze baten eraginkortasuna aztertuz gero, birgaitzearen aurretiko eta ondorengo energia - kontsumoa elkarrekin konparatu behar dira. Haatik, energia kontsumoaren neurketak zuzenean birgaitzearen aurretiko eta ondorengo epeetan ez dira nahikoak, zeren eta parametro askok energia kontsumoari eragiten diote, esaterako egoera klimatikoak, etxebizitzaren erabilera edo errebote efektua, epe bakoitzean ezberdinak direnak.

Beraz, konparaketa - esparru ideala definitzeko, kontsumoen neurketak egoera berdinetan egin behar dira. Are eta etxe huts baten monitorizazio batean, egoera klimatikoak ez dira berdinak, eta orduan, bildutako datuak estandarizatzea beharrezkoa da emaitza zehatzak lortzeko.

Eraikinaren simulazio ereduei esker, eraikin ezberdinak elkarrekin konparatu daitezke, edo eraikin batean daukan birgaitzerako estrategia ezberdinen eraginak aztertu daitezke. Simulazioa erarik onenetako bat da birgaitze baten eraginkortasuna baieztatzeko.

Eredu mota asko aurkitu daitezke eraikinen portaera termikoa aztertzearren [76]. Haien artean, kutxa zuriaren ereduak deritzonak. Simulazio programa asko daude eredu mota hau garatzeko, esaterako TRNSYS [77,78] edo Energy Plus [78 - 80], ezagunetako bi baino ez aipatzeko. Eredu zurien abantaila nagusietako bat da datu esperimentalik ez direla beharrezkoak (nahiz eta komenigarriak izan eredua baliozkotzeko eta egokitzeko, kapitulu honetan erakutsi bezala).

Hala ere, eredu mota honetan sarrera - datu ugari sartu behar da eraikin bat definitzeko, eta sarritan, honek zehaztasunik ezak egitera eraman dezake, bai datuen akatsen ondorioz, bai datu eskuragarriaren gabeziaren ondorioz. Eraikin zaharren kasuetan, zailtasun hau are handiagoa da, zeren eta eraikuntzari buruzko informazio gutxiago eskuragarria dago askotan. Gainera, are eta eraikin berritan (proiektuaren bidez, ia eraikuntzari buruzko informazio guztia eskuragarria da) ezberdintasun garrantzitsuak aurkitzen dira proiektuan agertzen diren datuen eta eraikuntza errealaren datuen arteko konparaketa egitean, lehen kapituluan aipatu bezala. Horregatik, guztiz gomendatzen da, are eta eredu zuriak erabiliz, landa - azterketaren bidez lortutako neurketa batzuk edukitzea, eredua baliozkotzeko eta egokitzeko eraikin espezifiko bat aztertzean. Kapitulu honetan, ikuspegi hau jarraitzen da.

2 Kapitulu honen helburuak

Hortaz, kapitulu honen helburu nagusia 60. hamarkadan eraikitako eraikin adierazgarri baten eredu bat TRNSYS tresnaren bidez definitzea da. Laugarren kapituluan aurkeztutako landa - azterketaren bidez lortutako datuak erabili ziren ereduaren parametroak baliozkotzeko eta egokitzeko.

Eredua geroago erabiliko da birgaitzerako estrategia ezberdinak aztertzeko. Honetaz aparte, baliozkotutako eredua beste ikerketetan erreferentzia - eraikintzat hartu daiteke, zeren eta bere eraikuntza - ezaugarriak oso arruntak ohi dira 60. hamarkadan lurralde honetan eraikitako eraikinetan (etxebizitza parkearen parte handi bat urte horretan eraikin ziren, tesi honen lehen kapituluan aipatu bezala) eta bere hobekuntzarako potentziala oso handia da.

3 Kapitulu honen egitura

Honela, kapitulu honetan TRNSYS bi eratan erabiltzen da kapitulu honetan. Alde batetik, leiho - aldaketaren bidez lortutako energia - aurrezteak zenbatzerako tresna baten bezala erabiltzen da. Gainera, eredu honen bidez lortutako emaitzak eta kutxa grisaren eredu baten bidez lortutakoak elkarrekin konparatu daitezke. Bestetik, TRNSYS tresnaren bidez garatutako eredua hurrengo kapituluetan erabiliko da hainbat birgaitze estrategia ezberdinak aztertzeko, ikuspegi ezberdinak eta alderdi batzuk kontuan hartuz, esaterako ikuspegi energetikoa, ekonomikoa, ingurugiro alderdiak, erosotasuna, edo ikuspegi exergetikoa. Printzipio hauek aintzakotzat hartuz, kapitulu honen egitura azaltzen da jarraian.

Lehenik eta behin, aintzakotzat hartutako eraikuntza - ezaugarriak TRNSYS ereduaren sarrera - datuak sartzean (eraikinetik lortutako informazioan oinarrituta) deskribatzen dira. Geroago, 2012ko Otsailaren 1etik 9ra arteko epearen egoera espezifikoei buruzko datuak erabiltzen dira garatutako eredua baliozkotzeko, eta baliozkotze hau aurkezten da.



I5.1. TRNSYS tresnaren bidez aztertutako lau egoerak

Gainera, bibliografian oinarritutako etxebizitzaren erabilera - profil estandarra urtean zehar energia eskaria zenbatzeko aurkezten dira. Aldi berean, beste erabilera - profil bat finkatzen da. Erabilera - profil hau 3. kapituluan xehatzen den landa - azterketaren bidez lortutako datuetan oinarrituta dago. Geroztik, eredua baliozkotzea eta egokitzea aurkezten da.

Lehenik, bibliografian oinarritutako ereduen bidez (birgaitzearen aurretik eta birgaitzearen ondoren) lortutako energia - eskariari buruzko emaitzak aurkezten dira. Landa - azterketan oinarritutako ereduen bidez lortutako energia eskariari buruzko emaitzak aurkezten dira geroago.

Amaitzeko, ikuspegi biak elkarrekin konparatzen dira, I5.1 eskeman irudikatzen denez, eta kapituluaren ondorioak zerrendatzen dira.

4 Hautatutako etxebizitzaren TRNSYS tresnaren bidez garatutako eredua

Eraikin osoa xehatu zen *Google Sketch Up* deritzona erabili dela medio, Bilboko Gizarte etxebizitzak emandako planoen eta egindako neurketen arabera. Bi programaren kapturak irudikatzen dira I5.2 irudian.



I5.2. *Sketch Up 3D* tresnaren bidez garatutako eraikinaren ereduaren bi kaptura

4.1 Eraikuntzaren datuak eta datu geometrikoak

Eraikinaren etxebizitzak leku termiko edo aire - nodo termiko ezberdinetan banandu ziren, I5.3 irudian irudikatu bezala. Etxebizitza bakoitza bi nodo termiko dauzka: haietako batek etxebizitzaren mendebaldeko partea barne hartzen du, hau da, logelak; besteak, etxebizitzaren ekialdekoa, (esekilekua, bainugela, sukaldea eta egongela) barne hartzen duena. Banaketa egoki bat aukeratzearen garrantzia azpimarratzen da bibliografian [81].



I5.3. Ereduan definitutako nodo termikoak

Era berean, monitorizatutako etxebizitza azaltzen den ereduaren zatia xehatuago banandu ziren, lau nodo termiko erabiliz: bana logela bakoitzean, eta beste nodo bat, egongela, bainugela, sukaldea eta esekilekua barne hartzen zituena. Amaitzeko, eskailera - kaxa area termiko independente bat bezala irudikatu zen. Beraz, banaketa hau I5.4 irudian irudikatzen da. Irudi honetan, monitorizatutako etxebizitza (ezkerrean) eta beste etxebizitzen banaketa (eskuinean) irudikatzen da, baita eskailera - kaxa ere.

I5.4. Eraikinaren ereduan xehatutako area termikoa

Ereduan hartutako eraikuntzari buruzko informazio zehatza T5.1 eta T5.2 tauletan aurkezten da. *Bilboko Gizarte etxebizitzak* emandako datuetan oinarrituta dago.

	Lodiera (cm)	Konduktantzia (kJ/hmK)	Bero - ahalmena (kJ/kgK)	Dentsitatea (kg/m³)	Erresistentzia Termikoa
FATXADA					
Igeltsua	1	1.8	1	900	-
Adreilu huts	4.5	1.76	0.9	1200	-
Aire - ganbera (bert)	4	-	-	-	0.047
Adreilu huts	12.5	1.76	0.9	1200	-
Beira - zuntza	2	0.144	0.84	12	-
Adreilu huts	4.5	1.76	0.9	1200	-
Zementuzko morteroa	3.5	5.04	1.1	2000	-
Fatxadaren U - balioa	*0.74*				

T5.1. Eraikuntzaren datuak (I. partea)

	Lodiera (cm)	Konduktantzia (kJ/hmK)	Bero - ahalmena (kJ/kgK)	Dentsitatea (kg/m^3)	Erresistentzia Termikoa
ESTALKIA					
Harea eta zementuzko morteroa	1	3.6	1	1800	-
Adreilu huts	4.5	1.76	0.9	1200	-
Harea eta zementuzko morteroa	1	3.6	1	1800	-
Aire - ganbera (horiz)	2	-	-	-	0.022
Teila	1	3.6	0.8	2000	-
Estalkiaren U - balioa	*2.7*				
BARNEKO PARETAK					
Harea eta zementuzko morteroa	1	3.6	1	1800	-
Adreilu huts	12.5	1.76	0.9	1200	-
Harea eta zementuzko morteroa	1	3.6	1	1800	-
Barne pareten U - balioa	*2.25*				
FORJATUAK					
Konifero - zuerezko zorua	1	0.504	2.8	600	-
Aire - ganbera (horiz)	1	-	-	-	0.042
Gangatila forjatua (20+4)	24	3.75	1	1500	-
Igeltsua	1	1.44	1	1000	-
Forjatuen U - balioa	*2.27*				

T5.2. Eraikuntzaren datuak (II. partea)

Era berean, egoera bakoitzean kontuan hartutako leihoen ezaugarri nagusiak T5.3 taulan aurkezten dira.

	Markoa (30%)	U_{marko} [W/m^2.K]/[kJ/h.m^2.K]	Beira	U_{beira} [W/m^2.K]
Leiho zaharrak	Metalezkoa (ZT hauste barik)	5.7 / 20.52	4/6/4	3.44
Leiho berriak	PVC (2 ganbera)	2.2 / 7.92	6/12/6	3.0

T5.3. TRNSYS ereduan definitutako leihoen ezaugarriak

4.2 Erabilera - profilak eta kalkulu oinarriak eredu baliozkotzerako

Laugarren kapituluan aurkeztetako monitorizazioaren bidez lortutako Otsailaren lehen egunetako datuak (2012ko otsailaren 1etik 9ra arteko epekoak) erabili ziren TRNSYS tresnaren bidez garatutako eredua baliozkotzeko eta egokitzeko.

4.2.1 Datu klimatikoak

Datu klimatiko - fitxategia (I5.5 irudia) aldatu zen monitorizazio epean egon ziren egoera klimatikoak sartzeko. Euskalmet-en estazio klimatikoan (Deustun kokatuta, aurretiko kapituluan aipatzen denez) bildutako datuak TRNSYS tresnaren datu klimatiko - fitxategian sartu ziren. Neurtutako datuen ezaugarrien ondorioz, hipotesi batzuk hartu behar ziren, jarraian xehatu bezala.



I5.5. Kanpo airearen tenperatura eta eguzki - erradiazioa (G_h)

Aurre egin behar zen arazo nagusia zuzenezko eguzki - erradiazioaren eta eguzki - erradiazio barreiatuaren artean bereiztea izan zen, eguzki - erradiazio totala baino ez delako estazio klimatiko honetan. Datu klimatiko - fitxategian zuzenezko eguzki - erradiazioa eta eguzki - erradiazio barreiatua bereiz barne sartzearen beharraren ondorioz, hipotesi batzuk hartu behar ziren.

Lehenik eta behin, zuzenezko eguzki - erradiazioaren eta eguzki - erradiazio barreiatuaren arteko banaketaren zailtasuna ahalik eta gehien murrizteko egun eguzkitsutan (egun hodeitsu baten, erradiazio totalaren ia %100 erradiazio barreiatua da) hodeitsu egun multzo bat hautatu zen, bi egun eguzkitsu baino ez zirenekoa. Bi egun hauetako zuzenezko eguzki - erradiazio normala ordu eguzkitsuetan, eguzki - erradiazio totalaren %50 hartu zen. Balio hau Meteonorm datu basetik lortutako Bilboko urte tipo batean oinarritu zen.

4.2.2 Berogailuen errutina



I5.6. Bero - sarrera totala etxebizitzan baliozkotzerako epean zehar

Monitorizazio epean zehar, bero - sarrera totala neurtu zen. Datu hauek baliozkotzerako epekoak dira (ikusi I5.6 irudia). Irudikatutako potentzia bost berogailuak emandakoa da, eta bero - irabazi hauek TRNSYS ereduan barne hartu ziren baliozkotzeko.

4.2.3 Aireztapen eta infiltrazioaren tasa

Aireztapen motarik ez zen egon bi monitorizazio epeetan. Izan ere, are eta leiho berrien aireztapen saretak zigilatu ziren bigarren monitorizazio epean. Beraz, aireztapen tasarik ez zuen TRNSYS ereduan hartu.

Laugarren kapituluan aipatu bezala, lehen monitorizazio epean neurtutako infiltrazio tasa oso baxua izan zen. Neurketa horiek oinarrituta, lau infiltrazio tasa konstante hartu ziren eredua baliozkotzeko. Infiltrazio tasaren balioak hurrengoak ziren: 0.05, 0.1, 0.15 and 0.2 ACH (*Air Changes per Hour*, ingelesez).

4.2.4 Simulazioari buruzko informazio gehiago

Simulazioan rola garrantzitsu bat jokatzen diren datu nabarmengarri gehiago, esaterako nodo termikoen arteko aire - aldaketa dagoen edo alboko etxebizitzetako tenperaturak egokitu ziren baliozkotzean, iterazio - prozesu baten bidez, 6. atalean xehatu bezala.

5 Erreferentzia - ereduaren erabilera - profilak

Eredua baliozkotzea eta doikuntza batzuk egin eta gero, simulazioa egin zen. Simulazio hauen erabilitako datuak eta profilak atal honetan aurkezten dira.

Beraz, erabilera - profilak (aireztapen eta infiltrazio tasak, barne bero - irabaziak, setpoint tenperatura, elektrizitate - eskaria, etxeko ur beroaren eskaria eta datu klimatikoak) hurrengo ataletan zehatz - mehatz aurkezten dira. Haietako batzuk (esaterako elektrizitate - eskaria eta etxeko ur beroaren eskaria) kapitulu honetan aurkeztutako kalkuluetan ez ziren erabili, 8. kapituluan aurkeztutakoetan baizik. Hala ere, atal honetan profil eta datu guztiak aurkeztea, eta hurrengo kapituluetan soilik erreferentzia labur bat egitea garbiagoa dela uste da.

Lehen aipatu bezala, bi erabilera - profil aurkezten dira. Alde batetik, bibliografian oinarritutako erabilera - profil multzo baten deskribapen bat xehatzen da, IDAE-k aurkezten dituen irizpideen arabera. Gainera, beste erabilera - profil multzo berri bat zehazten da, 3. kapituluan erakutsitako landa - azterketaren bidez lortutako emaitzetan oinarrituta.

5.1 Aireztapen eta infiltrazio - tasa

Espainiako Eraikuntzaren Kode Teknikoan (EKT), eraikin berriak bete behar dituzten aireztapen baldintza minimoak finkatzen dira. Aireztapen betebehar hauek T5.4 taulan zerrendatzen dira. T5.5 Taulan, balioak kalkulatu izan ziren betekizun hauek kontuan hartuz.

	Min. q_v [l/s]		
	Pertsonako	Metro karratutako	Beste parametro batzuen arabera
Logela	5		
Egongelak	3		
Bainugela			15 gelako
Sukaldea		2	50 gelako (*)

T5.4. EKT - an finkatutako aireztapen tasako betebehar minimoak

Hala eta guztiz ere, balio hauek egoerarik kontrakoenari lotuta daude, gela guztiek aireztapen tasa konstantea daukatenean. Hainbat estrategiak jarraitu daiteke aireztapeneko instalazioaren eraginkortasuna gehitzeko, barne airearen kalitate berbera lortzearren aireztapen tasa txikiagoak erabiltzera bultzatzen duena. Horregatik, IDAE-k 1 ACH-ko aireztapen tasa hartzea gomendatzen du. Izan ere, Espainian ziurtagiri energetikoa kalkulatzeko erabiltzen den simulazio tresnak (Calener deritzona) balio hau erabiltzen du [82]. Balio hau baxuago izan daiteke, aireztapen tasa murriztea (barne airearen kalitatea mantenduz) frogatuz gero.

IDAE-k emandako irizpideen arabera [83], 0.24 ACH-ko infiltrazio tasa balioa finkatu zen.

Aldeak	Azalera Garbia	Bol.	EKT - ren arabera		ZVH
	m^2	m^3	dm^3/s	m^3/h	Bol/ordua
Gela 1 (Logela)	7.73	19. 1	5	18	
Gela 2 (Egongela)	8.06	19.91	9	32.4	
Gela 3 (Logela)	8.25	20.38	5	18	
Gela 4 (Logela)	8.25	20.38	5	18	
Gela 5 (Sukaldea)	9.51	23.49	19.02	68.472	
Gela 6 (Bainugela)	2.41	5.95	15	54	
Gela 7 (atondoa)	2.82	6.97	-	-	
Gela 8 - - -	2.04	5.04	-	-	
TOTALA	49.07	121.2		208.9	1.72

T5.5. Erreferentzia etxebizitzaren balioak, EKT-k finkatutako betebeharren arabera

5.1.1 Bibliografian oinarritutako sarrerako datuak (1. Egoera. Birgaitzearen aurretik)

Aireztapen tasa: EKT gainditu baino lehen eraikina eraikin zen eta, aireztapeneko instalaziorik ez dago etxebizitzan. Beraz, ordu bat (goizeko zazpitik zortzira) eguneroko aireztapen naturala (leihoak irekitzea) hartu zen. Hartutako balioa 4 ACH-koa zen. Eskailera - kaxan, ordea, aireztapenik ez zen hartu.

Infiltrazio tasa: 0.6 ACH-ko infiltrazio tasa konstantea hartu zen etxebizitzetan, eta 0.9 ACH-koa eskailera - kaxan.

5.1.2 Bibliografian oinarritutako sarrerako datuak (2. Egoera. Birgaitzearen ondoren)

EKT eta IDAE-ren dokumentuetan xehatutako betebehar minimoak [83] jarraitu behar dira etxebizitzetako infiltrazio eta aireztapen tasak finkatzeko. Eskailera - kaxan aldaketarik ez zen egin.

Aireztapen tasa: IDAE-ren dokumentuetan xehatutako aireztapeneko betebehar minimoa 1 ACH-koa da.

Infiltrazio tasa: Balio konstante bat hartu zen kasu - azterketa hauetan. 0.24 ACH-ko infiltrazio tasa konstantea hartu zen etxebizitzetan. Infiltrazio tasaren murrizteak leihoen hobekuntzari esker dira.

Laburbilduz, bibliografian oinarritutako hartzen diren balioak T5.6 taulan zerrendatzen dira.

	Birgaitzearen aurretiko egoera	Birgaitzearen ondorengo egoerak
Aireztapena	4 (7 - 8 am)	1
Infiltrazioa	0.6	0.24

T5.6. Hartutako aireztapen eta infiltrazio tasa balioak

5.1.3 Landa - azterketan lortutako datuetan oinarritutako TRNSYS ereduan sarrerako datuak

Bai birgaitze aurretik lortutako infiltrazio neurketak, bai TRNSYS eredua kalibratu ondoren lortutako balioak, oso antzekoak ziren haien artean, 0.15 ACH inguru. Beraz, nahiz eta infiltrazio tasa hainbat baldintzen arabera da (kanpo aireko presioa edo haize - abiadura, adibidez) 0.15 ACH-ko balio konstantea hartu zen.

5.1.4 Bosgarren kapituluan aireztapen eta infiltrazio tasen tratamendu berezia

Goian aipatutako egiteak egonda ere, aireztapen eta infiltrazio tasen balio berberak hartu ziren bi egoeretan. Horrela, birgaitze estrategia ezberdinen eraginak erosotasun termikoan eta energia - kontsumoan aztertzen dira egoera berberetan.

Egiatan, birgaitze askotan infiltrazio tasa murrizten da birgaitzearen ondoren. Esaterako leiho - hobekuntza batean energia - kontsumoan murrizteak bultzatzen da, bai bero - transferentzia leihoetan zeharko galerak murrizten dira eta (eroankortasun termikoa murrizten da eta), bai infiltrazio tasa leihoetan zehar murrizten da eta, eta bi efektu hauek birgaitzeari erantsi behar dira. Hala ere, infiltrazio tasa murrizketa honek noizbehinka aireztapen tasa handiagotze bat ekarri dezake, barne airearen kalitatea mantentzearren. Bestalde, aireztapeneko instalazio eraginkorra ez da soilik aireztapen tasa optimizatuz lortzen, baizik eta bero – berreskuratzaile bat instalatuz ere. Kasu honetan, gainera, infiltrazio tasa birgaitzearen aurretik, lehen aipatu bezala, oso baxua zen jadanik. Dena dela, hartutako hipotesi honen ondorioz, energia - aurrezteak murriztu daitekeela aintzakotzat hartu behar da.

Hortaz, 0.1 ACH-ko infiltrazio tasa konstantea hartu zen azterketa - landan oinarritutako erabilera - profila erabiltzen den ereduko bi egoeretan, eta 0.6 ACH - koa bibliografian oinarritutakoa erabiltzen den eredukoetan. Era berean, aireztapenari dagokionez, 4 ACH-ko aireztapen tasa goizeko zapitik zortzira hartu zen kasu guztietan. Balio hauek laburbiltzen dira T5.7 taulan.

	Bibliografian oinarritutakoa	**Landa - azterketan oinarritutakoa**
Aireztapen	4 (7 - 8 am)	4 (7 - 8 am)
Infiltrazioa	0.6	0.1

T5.7. Hartutako infiltrazio eta aireztapen tasa balioak

5.2 Barne bero - irabaziak

IDAE-k emandako barne bero - irabazien profila atal honetan xehatzen dira [83].

- **Okupazioren ondoriozko bero - irabaziak**

Okupazio ondoriozko bero - irabaziak bero sentigarriaren eta bero sorraren arteko bereizten dira. Okupazio ondoriozko bero irabazien konbekzio - zatikia bero sentigarri zatiaren %40 da. Honela definitutako datuak T5.8 taulan erakusten dira.

	0 - 7 am		**7 am - 3 pm**		**3 - 11 pm**		**11 - 12 pm**	
[W/m^2]	**Sentig.**	**Sorra**	**Sentig.**	**Sorra**	**Sentig.**	**Sorra**	**Sentig.**	**Sorra**
Asteguna	2.15	1.36	0.54	0.34	1.08	0.68	2.15	1.36
Larunbata	2.15	1.36	2.15	1.36	2.15	1.36	2.15	1.36
Igandea	2.15	1.36	2.15	1.36	2.15	1.36	2.15	1.36

T5.8. Barne bero - irabaziak. Okupazioaren ondoriozkoak

- **Argiztapen artifizialaren ondoriozko bero - irabaziak**

Argiztapen artifizialaren ondoriozko bero irabazien konbekzio - zatikia totalaren %20 da. Bere bero - irabazien profilak T5.9 taulan erakusten dira.

[W/m^2]	**0-7 pm**	**7 am-6 pm**	**6-7 pm**	**7-11 pm**	**11-12 pm**
Egunero	0.44	1.32	2.20	4.40	2.20

T5.9. Barne bero - irabaziak. Argiztapen artifizialaren ondoriozkoak

- **Etxe - tresnen ondoriozko bero - irabaziak**

Etxe - tresnen ondoriozko bero irabazien konbekzio - zatikia totalaren %30 da. Etxe - tresnen bero - irabazien profilak T5.10 taulan erakusten dira.

[W/m²]	0-7 pm	7 am - 6 pm	6 - 7 pm	7-11 pm	11-12 pm	Batez bestekoa [W/m².h]
Egunero	0.44	1.32	2.20	4.40	2.20	1.65

T5.10. Barne bero - irabaziak. Etxe - tresnen ondoriozkoak

Laburbilduz, barne bero - irabazi guztiak I5.7 irudia irudikatzen dira.



I5.7. Barne bero - irabazien profila

5.2.1 Bibliografian oinarritutako sarrerako datuak

Aipatutako iturrietan kontuan hartuz, barne bero - irabaziak modelatzen dira T5.11 eta T5.12 tauletan agertzen diren bezala. Astegunen eta asteburuko egunen artean ez ziren bereizi; beraz, aldaketa batzuk egin ziren IDAE-k emandako balioekin konparatuz. Hartutako barne bero - irabaziak I5.8 irudian erakusten dira, kilojulio ordukoan (TRNSYS-ek eskatzen dituen unitateak).



I5.8. Hartutako barne bero - irabazien profila. TRNSYS - en sarrerako datuak [kJ/h.m²]

[kJ/h.m²]	Okupazioaren Ond.			Argiztapen Art. Ond.			Etxe - tresnen Ond.		
	Konv.	Errad.	TOT.	Konv.	Errad.	TOT.	Konv.	Errad.	TOT.
0 - 7 am	3.10	9.54	12.64	0.32	1.27	1.58	0.48	1.11	1.58
7 am - 3 pm	0.78	2.39	3.17	0.95	3.8	4.75	1.42	3.33	4.75
3 - 6 pm	1.56	4.78	6.34	0.95	3.8	4.75	1.42	3.33	4.75
6 - 7 pm	1.56	4.78	6.34	1.58	6.34	7.92	2.38	5.54	7.92
7 - 11 pm	1.56	4.78	6.34	3.17	12.67	15.84	4.75	11.09	15.84
11 - 12 pm	3.10	9.54	12.64	1.58	6.34	7.92	2.38	5.54	7.92

T5.11. Barne bero - irabazi guztiak ereduan [kJ/h.m²]

[kJ/h]	Okupazioaren Ond.		Argiztapen Art. Ond.		Etxe - tresnen Ond.	
	Konv.	Errad.	Konv.	Errad.	Konv.	Errad.
0 - 7 am	162.63	501.14	16.64	66.57	24.96	58.25
7 am - 3 pm	40.85	125.57	49.92	199.70	74.89	174.74
3 - 6 pm	81.69	251.14	49.92	199.70	74.89	174.74
6 - 7 pm	81.69	251.14	83.21	332.83	124.81	291.23
7 - 11 pm	81.69	251.14	166.42	665.66	249.62	582.45
11 - 12 pm	162.63	501.14	83.21	332.83	124.81	291.23

T5.12. Barne bero - irabazi guztiak ereduan [kJ/h]

5.2.2 Landa - azterketan lortutako neurketetan oinarritutako sarrerako datuak

Barne bero - irabaziak aztertzean, mota honetako eraikin baten barne bero - irabazi errealekin konparatuz, oso altuak direla uste zen. Horregatik, ENEDI taldearen esperientzian oinarritutako barne bero - irabazien profil berri bat xehatu zen.

Okupazio profilak definitzeko, etxebizitza lau pertsona bizi zirenaren hipotesia hartu zen. Zeren eta etxebizitzaren eredua area termiko ezberdinetan banandu zen, okupazio profil ezberdinak hartu ziren area termiko bakoitzean (esaterako, egongela gauean okupaziorik ez zegoenaren hipotesia hartu zen).

Antzeko irizpideak jarraitu ziren argiztapen artifiziala definitzeko. Horrela, egunean zehar (eguneko argia zegoenean) argiztapen artifizialaren ondoriozko bero - irabazirik egon ez zirenaren hipotesia hartu zen. Horren bitartez, erreferentzia etxebizitzaren ereduan hartutako barne bero - irabaziak nodo termiko bakoitzean T5.13 taulan erakusten dira.

			Egongela - sukaldea	Gela 1	Gela 2	Gela 3
Okupazioa (Pertsona kopurua)	M - F	0 - 7 am	0	2	1	1
		7 - 9 am	4	0	0	0
		9 am - 6 pm	1	0	0	0
		6 - 11 pm	2	0	1	1
		11 - 12 pm	0	2	1	1
	S - S	0 - 9 am	0	2	1	1
		9 am - 12 pm	4	0	0	0
Argiztapen Artifiziala (kJ/h)	M - S	0 - 7 am	0	0	0	0
		7 - 9 am	108	72	72	72
		9 am - 6 pm	0	0	0	0
		6 - 11 pm	108	0	72	72
		11 - 12 pm	0	72	72	72
Etxe - tresna (kJ/h)	M - S	0 - 7 am	36	0	0	0
		7 - 9 am	144	0	0	0
		9 am - 6 pm	36	0	0	0
		6 - 11 pm	144	0	36	36
		11 - 12 pm	36	0	0	0

T5.13. Hartutako barne bero - irabaziak etxebizitzaren eredua

5.3 Setpoint tenperatura

IDAE-k [83] berokuntza erabiltzen deneko urtaroko setpoint tenperatura xehatzen du, hau da, egunero Urtarriletik Maiatzera eta Urritik Abendura. Urtaro honetako egun tipiko baten setpoint tenperaturaren profila jarraian erakusten da:

- 0 - 7 am: 17 ºC
- 7 am - 11 pm: 20 ºC
- 11 - 12 pm: 17 ºC

5.3.1 Bibliografian oinarritutako sarrerako datuak

IDAE-k gomendatutako profiletan aldaketa txiki bat egin zen. Zeren eta goizeko zazpitik zortzira leihoak irekita zeudela onartu zen, berokuntza sistema ez zela konektatu ordu horretan onartu zen:

- 0 - 7 am: 17 ºC
- 7 - 8 am: -
- 8 am - 11 pm: 20 ºC
- 11 - 12 pm: 17 ºC

5.3.2 Landa - azterketan lortutako neurketetan oinarritutako sarrerako datuak

Hirugarren kapituluan deskribatutako landa - azterketan aztertutako etxebizitzen barne tenperatura IDAE-k deskribatutakoak baino baxuagoak izan zirela erakutsi da. Nahiz eta setpoint tenperatura nabarmen aldatu daiteke biztanleen arabera (3. kapituluan ageri den bezala) hurrengo profil estandarra adierazgarria zela onartu zen:

- 0 - 8 am: -
- 8 am - 6 pm: 17 ºC
- 6 - 11 pm: 20 ºC
- 11 - 12 pm: 17 ºC

Onartutako erradiadoreen zatiki radiatiboa simulazioan %0 izan zen.

5.4 Elektrizitate - eskaria

Lehen aipatu bezala, kapitulu honetan ez ziren datu hauek erabili, 8. kapituluan baizik. Zortzigarren kapituluan erabilitako elektrizitate - eskariaren profila hurrengo azpi ataletan xehatzen da.

5.4.1 Bibliografian oinarritutako sarrerako datuak

Elektrizitate - eskariaren profila aipatutako IDAE-k emandako barne bero - irabazietan oinarrituta dago. Azken finean, barne bero - irabaziak biztanleek sortutakoen eta elektrizitate - eskariak sortutakoen (etxe - tresnak eta argiztapen artifiziala) batura da, elektrizitate osoa barne bero - irabaziak bihurtzen dira eta. Hau da, elektrizitate - eskaria IDAE-k emandako argiztapen artifizialaren eta etxe - tresnen profiletan oinarrituta dago. Irizpide honen arabera, T5.14 taulan erakutsitako profilak hartu zen simulazioa egiteko.

[kJ/h]	W/m^2	Tot. W	Tot. kJ/h	Total kJ (Epean)
0 - 7 am	0.88	46.22	166.42	1164.94
7 am - 6 pm	2.64	138.68	499.25	5491.75
6 - 7 pm	4.4	231.13	832.08	832.08
7 - 11 pm	8.8	462.26	1664.15	6656.6
11 - 12 pm	4.4	231.132	832.08	832.08
			TOTAL	*14977.45 kJ/egun*

T5.14. Etxebizitza bakoitzaren elektrizitate - eskaria [kJ/h]

Hartutako elektrizitate - eskaria 14,977.45 kJ/egun da (4.16 kWh/egun edo 1518.55 kWh/urte).

5.4.2 Landa - azterketan lortutako neurketetan oinarritutako sarrerako datuak

Zeren eta parametro hau ez zen zehazki neurtu landa - azterketan, ez zen aldaketarik egin elektrizitate - eskarian, eta aurretiko atalean xehatutakoa erabili zen.

5.5 Etxeko ur bero - eskaria

Bi aukera kontuan hartu daitezke etxeko ur bero – eskaria definitzeko.

- **Annex 42k emandako profiletan oinarritutako etxeko ur bero - eskariaren profila**

Etxeko ur beroaren eguneroko profil berbera egun guztietan erabili zen. Hala eta guztiz ere, ur berotzeko erabilitako energia - eskaria ezberdina da, hornidura tenperaturaren arabera da eta. Etxeko ur bero - eskaria litrotan xehatzeko, Annex 42-k emandako balioak erabili daitezke, 100 litro/eguneko onartuz. Egun tipiko bateko orduko batez besteko balioak hartu ziren. Balio hauek, etxeko ur bero kontsumoa erakusten direnak, I5.9 irudian irudikatzen dira.



I5.9. Orduko batez besteko ur bero - eskaria (Annex 42ko balioaren arabera)

- **IDAE-k emandako profiletan oinarritutako etxeko ur bero - eskariaren profila**

IDAE-k xehatutako etxeko ur bero - eskariaren profila [83], I5.10 grafikoan irudikatutako profila definitu zen.



I5.10. Orduko batez besteko eskaria (IDAE; % Max)

5.5.1 Bibliografian oinarritutako sarrerako datuak

Goian aipatutako bi profiletan oinarrituta, Ereduan setpoint sinple baina dinamiko bat erabili zen. 101 litro eguneroko eskaria onartu zen. Definitutako eguneko eskari hau I5.11 grafikoan irudikatzen da.



I5.11. Orduko batez besteko eskaria (TRNSYS profila)

- 0 - 6 am: 0
- 6 - 9 am: 11 litro/orduko
- 9 am - 7 pm: 4 litro/orduko
- 7 - 9 pm: 8 litro/orduko
- 9 - 12 pm: 4 litro/orduko

Etxeko ur bero ekoizpen tenperatura 60 gradutan finkatu zen. Urteko batez besteko hornidura tenperatura 15.4 gradukoa da, Bilbao Ur Partzuergoak 2011. Urtean *Venta Altan* neurtutako datuen arabera. Balio hau aintzakotzat hartuz, hornitutako ur bero tenperatura Eq. 10 ekuazioaren bidez kalkulatzen da ([53] erreferentzian Jansen-ek erakusten duen formulan oinarrituta)

- $If\ T_{out} < -5ºC \xrightarrow{then} T_{Supply\_DHW} = 1.8$
- $If\ T_{out} \geq -5ºC \xrightarrow{then} T_{Supply\_DHW} = \frac{(2 \cdot T_{out} + 15.4)}{3}$

Eq. 10

Hortaz, hornitutako ur bero tenperatura kanpo airearen tenperaturari lotuta dago. Horrela, tenperatura minimoa 1.8 gradukoa da, eta maximoa, aldiz, 27 gradukoa da. Bilboko urte tipiko baten tenperaturarik altuena (Meteonormen arabera) 33.7 gradukoa da. Hornitutako ur bero eta kanpo airearen tenperaturaren arteko erlazioa I5.12 grafikoan irudikatzen da.



I5.12. Hornitutako ur beroaren tenperatura Vs Kanpo airearen tenperatura

5.5.2 Landa - azterketan lortutako neurketetan oinarritutako sarrerako datuak

Elektrizitate - eskariaren kasuan bezala, aurretiko atalean aipaturiko datuak erabiltzen dira, parametro hau ez baitzen zehazki neurtu landa - azterketan.

5.6 Datu klimatikoak

5.6.1 Sarrerako datuak

Bilboko datu klimatiko (Meteonorm) simulazioetan erabili ziren. Datu - fitxategi hauek urte tipiko baten dira.

5.7 Simulazioari buruzko informazio gehiago

Bero ahalmena, nodoen arteko dagoen aire trukea edo alboko etxebizitzen tenperaturak finkatu ziren ereduan baliozkotzean erabilitako balioak kontuan hartuz. Balio hauek 6. atalean aurkezten dira. Eredua baliozkotzea ordu bateko denbora tarteko simulazioen bidez egin zen.

6 Eredua baliozkotzea

Eredua baliozkotzea erabiltzen da ea eredu bat sistema erreal baten irudipen zehatz den baliozkotzeko. Baliozkotzea ereduaren kalibrazioaren bidez egiten da. Kalibrazioa iterazio - prozesu bat da. Prozesu honetan, ereduaren eta sistema errealaren portaeren arteko konparazio bat egiten da, eta haien arteko desadostasunak erabiltzen dira eredua hobetzeko. Prozesu hau errepikatzen da ereduaren bilatutako zehaztasuna lortu arte.

Gainera, baliozkotzearen bidez, eraikinen portaera termikoan parametro garrantzitsuenak zein diren identifikatzen dira.

Aurretik aipatu bezala, eredua baliozkotzeak behar ditu:

- Datu klimatiko - fitxategia baliozkotzerako hautatutako epearen kanpo egoera klimatikoarekin egitea.
- Bero - sarreraren profilak xehatzea.

6.1 Hartutako parametro - konbinazioa

Kalibrazioa eta baliozkotzea egiteko, hainbat parametro doitu ziren ereduan. Doikuntza hau parametro hauek aldatuz iterazio - prozesu batean egin zen. Aipatutako parametroak hurrengoak dira:

- Nodo bakoitzaren kapazitantzia

- Etxebizitzaren infiltrazio tasa
- Nodo termiko ezberdinen arteko dagoen aire aldaketa (esaterako, logelen eta egongelaren arteko dagoena)

Aldameneko etxebizitzen tenperaturek rola garrantzitsu bat jokatzen dute etxebizitzaren barne airearen tenperaturan. Aldameneko etxebizitzen berokuntza sistemaren errutinak ezagutzea ia ezinezkoa da eta (alboko etxebizitzak ez ziren neurtu), setpoint-eko balio konstantea hartu ziren simulazioak egiteko.

Berrogei parametro konbinazio edo simulatu ziren ereduan. Haietako azkenei buruzko xehetasun batzuk zerrendatzen dira 5.1. eranskinean.

6.2 Emaitzen analisia

Barne airearen tenperatura adierazletzat hartu zen ereduak kalkulatutako balioak eta lehen monitorizazio epean neurtutako datuak elkarrekin konparatzeko. 5.2. eranskinean deskribatutako ereduaren egiaztapena etxebizitzaren nodo bakoitzaren tenperaturatan egin zen, baita etxebizitzaren batez besteko tenperaturan. Parametro - konbinazio bakoitzaren emaitzak 5.2. eranskinean aurkezten dira.

6.3 Hautatutako eredua

Aipatutako analisiari jarraituz, eredurik egokiena MV14 izan zen. Gela bateko neurtutako eta kalkulatutako tenperatura (kasu honetan, gela bikoa), eta etxebizitza osoko batez besteko tenperatura irudikatzen dira I5.13 eta I5.14 irudietan urrenez hurren.

Parametro konbinazio ezberdinen hondarren analisiak egin ziren. Adibidez, hautatutako ereduaren gela 2an kalkulatutako balioen hondarra I5.15 grafikoan irudikatzen da. Nahiz eta hondarrek balio altuegiak erakutsi ez zituzten (Gela 2ren tenperaturen batez besteko hondarra 0.34 gradukoa da, eta etxebizitza osoarena, 0.39 gradukoa), alderdi batzuk argitu behar dira.



I5.13. Neurtutako eta kalkulatutako datuen arteko konparaketa gela 2an (MV14)



I5.14. Neurtutako eta kalkulatutako datuen arteko konparaketa etxebizitza osoan (MV14)



I5.15. MV14 ereduaren hondarra (Gela 2ren batez besteko tenperatura)

Alde batetik, Otsailaren 7an arratsaldean dagoen adostasunik eza zuzenezko eguzki - erradiazioaren une batekin aldi batera gertatzen da. Hau zuzenezko eguzki - erradiazioaren hartutako hipotesiak zehatz nahikoa ez zirenari lotuta egon daiteke. Puntu honetaz aparte, hondarrek 0 inguruko joera jarraitzen dute, nahiz eta egun batzuetan joera zero baino altuagoa zen (esaterako Otsailaren 4an) eta beste egun batzuetan, joera zero baino baxuagoa zen (esaterako Otsailaren 5ean eta 6an). Lehen aipatu bezala, alboko etxebizitzen erabilera - profilek rola garrantzitsu bat jokatzen dute aztertutako etxebizitzaren portaera termikoa, batik bat negualdian, eta hortaz, barne airearen tenperaturetan. Izan ere, hondar hauek murriztu daitezke beste setpoint tenperaturak alboko etxebizitzetan hartuz gero. Kasu honetan, gela 2 zehatz - mehatz aztertzean, goiko eta beheko etxebizitzen setpoint tenperaturak aldatzearen ondorioz, I5.16 irudian aurkeztutako doikuntza lortu zen. Hondarrak I5.17 grafikoan irudikatzen dira ere.



I5.16. Neurtutako datuak VS kalkulatutakoak (gela 2), alboko etxebizitzen setpoint tenperaturak aldatu eta gero



I5.17. I5.16 irudian irudikatutako datu - multzoaren hondarrak

Alboko etxebizitzen hartutako erabilera - profilak T5.15 irudian erakusten dira.

ºC	Al.	Aar.	Aaz.	Oste.	Osti. [0 - 8h]	Osti. [8 - 24h]	Lar.	Iga.
B1P5A	13.6	17.2	16	15.2	15.2	- (12)	16.8	- (12)
B1P3A	14	17.75	16.5	15.7	15.7	- (12.4)	17.3	- (12.4)
B1P4B	Berokuntza sistemarik gabe							

T5.15. Alboko etxebizitzen hartutako setpoint tenperaturak

Barne azaleko tenperaturak ere kalkulatu ziren, eta neurtutako datuekin konparatu ziren. Nahiz eta doikuntza hau ez zen barne airearen tenperaturetan lortutakoa bezain ona, hurbilketa on bat zela onartu daiteke, I5.18 irudian ageri denez. Haien hondarrak, bere aldetik, I5.19 grafikoan irudikatzen dira.



I5.18. Barneko azaleko tenperatura. Neurtutakoa Vs. Kalkulatutakoa



I5.19. Barneko azaleko tenperatura. Hondarrak

Beraz, aipaturiko ziurgabetasunak eta haien eraginak aztertutako etxebizitzaren portaera termikoan kontuan hartuz, neurtutako datuen eta simulazioen bidez lortutako datuen arteko hurbilketa bat on zela onartu daiteke. Ondorioz, ereduaren ezaugarri nagusia eta lortutako emaitzen zehaztasuna onargarritzat hartu ziren. Eraikin ereduan behin betiko hartutako balioak T5.16 taulan zerrendatzen dira.

	Gela 1	Gela 2	Gela 3	Egongela	Esk - kaxa
Infiltrazioa (Kanpotik) [ACH]	0.1	0.1	0.1	0.1	10
Ahalmena [kJ/K]	100	120	164	650	-
Infiltrazioa (Esk. kaxatik) [ACH]	-	-	-	0.26	-
Fatxadaren bero transferentziaren konbekzio - koefizientea [kJ/h.m^2.K]	24				

T5.16. Ereduan hartutako behin betiko parametroak

Ereduaren beste parametroak aurkeztu dira jadanik. Horrela, eraikuntzari buruzko datuak 4.1 atalean erakutsi da, aireztapeneko irizpideak 5.1 atalean aurkeztu dira, bareko bero - irabaziak 5.2. atalean xehatu dira, hartutako setpoint tenperaturak 5.3. atalean deskribatu dira, eta elektrizitatearen eta etxeko ur beroaren eskariak 5.4 eta 5.5 ataletan deskribatu dira, hurrenez hurren

7 Emaitzak

Eraikin osorako simulazioak egin ziren. Etxebizitzak izendatu ziren haien eraikinean kokapenaren arabera. Hortaz, I5.3 irudian ageri den bezala, aztertutako eraikinak 3 eskailera - kaxa dauzka, bina etxebizitza solairuko eskailera - kaxa bakoitzari lotuta. Lehen eskailera - kaxaren (eraikiaren hegoaldean) etxebizitzak "B1" identifikatzen dira, erdiko eskailera - kaxaren etxebizitzak, "B2", eta etxebizitzak iparraldeko eskailera - kaxari lotuta "B3" dira. Solairua kodearen hurrengo zatian erakusten da (esaterako, P1 lehenengo solairuan dagoela adierazten da). Azkenik, azken letra ea etxebizitza ezkerrean (A) edo eskuinean (B) dagoen adierazten da. Adibidez, B1P4A etxebizitza lehen eskailera - kaxan, laugarren solairuan eta ezkerrean kokatzen da.

Goian aipaturiko nomenklatura erabiliz, aztertutako eraikinaren 36 etxebizitzak T5.17 taulan aurkezten diren moduan izendatu ziren. Taula hau I5.2 irudikatutako aurretiko bistan gainezjarri daiteke. Hurrengo atalean (7.1 eta 7.2), A egoeraren emaitzak (bibliografian oinarritutako erabilera - profilak) eta B egoeraren emaitzak (landa - azterketan neurtutako datuetan oinarritutakoak) aurkezten dira.

	Eskailera - kaxa 1 (B1)		Eskailera - kaxa 2 (B2)		Eskailera - kaxa 3 (B3)	
Solairua	**A**	**B**	**A**	**B**	**A**	**B**
6	B1P6A	B1P6B	B2P6A	B2P6B	B3P6A	B3P6B
5	B1P5A	B1P5B	B2P5A	B2P5B	B3P5A	B3P5B
4	B1P4A	B1P4B	B2P4A	B2P4B	B3P4A	B3P4B
3	B1P3A	B1P3B	B2P3A	B2P3B	B3P3A	B3P3B
2	B1P2A	B1P2B	B2P2A	B2P2B	B3P2A	B3P2B
1	B1P1A	B1P1B	B2P1A	B2P1B	B3P1A	B3P1B

T5.17. 36 etxebizitzen nomenklatura

7.1 A Egoera. 6.1.1. eta 6.2.1. ereduak

Lehenik eta behin, eraikin osoaren bero - eskariak lortu ziren. Hiru etxebizitzaren hilabeteroko bero eskariak, leiho - aldaketaren aurretik eta ondoren, I5.20 eta I5.21 grafikoetan irudikatzen dira. Hiru etxebizitza hauek hautatu ziren haien kokapena eraikinaren barruan dela eta. Izan ere, etxebizitza bat lehen solairuan hegoaldeko partean dago (B1P1A), beste etxebizitza bat iparreko partean, azken solairuan dago (B3P6B), eta beste etxebizitza eraikinaren erdian dago (B2P4A). Espero den bezala, diferentzia nabarmengarriak haien arteko konparaketa egitean aurkitu ziren. Esaterako %50 inguruko diferentziak aurkitu ziren B2P4A (eraikinaren erdian kokatutako etxebizitza) eta B3P6B (azken solairuan kokatutakoa) elkarrekin konparatu ziren.

Leiho - aldaketari esker lortutako urteroko bero - eskariaren energia - aurrezteak T5.18 taulan erakusten dira. Energia - aurrezteko portzentajerik handiena lortu ziren erdiko solairuetan, bero galerak forjatuetan zehar oso txikiak direlako, eta horren ondorioz, etxebizitza horietan bero - galera gehienak leihoetan eta fatxadan zehar dira (Beraz, elementu hauen hobekuntzak energia - aurrezteetan askoz nabarmengarriak dira etxebizitza hauetan). Kalkulatutako bero - galerak, hala ere, oso antzekoak dira etxebizitza guztietan balio absolutuak elkarrekin konparatzen direnean.



I5.20. Hilabeteroko bero - eskariak leiho - aldaketaren aurretik. Bibliografian oinarritutako erabilera - profilak (6.1.1. eredua)



I5.21. Hilabeteroko bero - eskariak leiho - aldaketaren ondoren. Bibliografian oinarritutako erabilera - profilak (6.2.1. eredua)

[kWh]	B1P1A	B1P4A	B1P6A	B2P1A	B2P4A	B2P6A	B3P1B	B3P4B	B3P6B
6.1.1.	3163.98	2367.54	4181.95	2818.37	2015.98	3893.74	3192.09	2396.08	4269.14
6.2.1.	2926.41	2109.16	3930.07	2578.44	1763.11	3637.58	2954.70	2143.13	4016.41
Aurrezteak	237.57	258.38	251.87	239.94	252.87	256.16	237.39	252.96	252.73
%	7.51%	10.91%	6.02%	8.51%	12.54%	6.58%	7.44%	10.56%	5.92%

T5.18. Urteroko bero - eskaria [kWh] eta aurrezteak (eskarian) etxebizitzako (bibliografian oinarritutako erabilera - profilak)

Azkenik, hilabeteroko energia - aurrezteak etxebizitza bakoitzean aztertu ziren erabilera - profil hauek erabiliz. Haietako bi kasu T5.19 taulan aurkezten dira. Orokorrean, murrizterik handienak Martxoan, Apirilean eta Urrian lortzen dira. Leiho - aldaketak epe hauetan berokuntza sistemaren pizketak murrizten dituzte ere. Honek, zeharka, gehigarrizko energia - kontsumoaren murriztea lortzen da (energia - kontsumoa hurrengo kapituluan aztertuko da), zeren eta berokuntza sistemaren pizketek sarritan energia - kontsumoaren punta bat ekartzen dute.

	B2P4A				**B3P6B**			
	Energia - eskaria [kWh]		**Aurrezteak**		**Energia - eskaria [kWh]**		**Aurrezteak**	
	6.1.1.	**6.2.1.**	**[kWh]**	**%**	**6.1.1.**	**6.2.1.**	**Savings**	**%**
URTARRILA	496.18	442.90	53.28	10.74%	960.87	911.40	49.48	5.15%
OTSAILA	354.31	312.25	42.05	11.87%	731.08	691.14	39.94	5.46%
MARTXOA	221.84	188.49	33.35	15.03%	521.56	488.16	33.40	6.40%
APIRILA	101.91	81.70	20.21	19.83%	284.00	259.85	24.15	8.51%
MAIATZA	15.50	10.29	5.20	33.57%	65.95	57.29	8.66	13.13%
EKAINA	0.00	0.00	NA	NA	4.36	2.86	1.50	34.37%
UZT – IRA	0.00	0.00	NA	NA	0.00	0.00	NA	NA
URRIA	51.72	41.13	10.59	20.47%	145.30	131.61	13.69	9.42%
AZAROA	282.08	245.66	36.42	12.91%	604.35	570.53	33.82	5.60%
ABENDUA	492.44	440.67	51.77	10.51%	951.66	903.57	48.08	5.05%

T5.19. Hilabeteroko bero - eskariaren murriztεak handiena eta txikiena daukaten etxebizitzetan

7.2 B Egoera. 6.1.2. eta 6.2.2. ereduak

Simulazioak egin ziren ere landa - azterketan neurtutako datuetan oinarritutako erabilera - profilak erabiliz. Hala ere, argiagoa izateko, kasu honetan, kasu - azterketa ez zen eraikin osoa, erreferentzia etxebizitza baizik. Nahiz eta bero - eskariak baxuagoa lortu, energia - aurrezteen balio erlatiboan oso antzekoak ziren, are handiagoak ziren landa - azterketan neurtutako datuetan oinarritutako erabilera - profilak erabili zeneko egoeran. Informazio hau T5.20 taulan laburbiltzen da.

Gizarte etxebizitzen erabilera - profilen antzekoak erabili zenean, energia - aurrezteen balio absolutuak baxuagoak zirela ikusten da, T5.20 taulan ageri den bezala. Kalkulatutako urteroko energia - aurrezteak bibliografian oinarritutako egoeraren profilak erabiliz 258.38 kWh ziren. Landa - azterketan neurtutako datuetan oinarritutako egoeraren profilak erabiliz, berriz, 150.1 kWh, %40 inguruko ezberdintasuna bi ereduen artean. Puntu honek erabileraren profilen garrantzitsua etxebizitzaren energia - kontsumoa kalkulatzean berriro erakusten du. Beraz, simulazioak egitean, egoeraren profil egokiak xehatzearen garrantzia azpimarratu behar da.

	EGOERA A				EGOERA B			
	Energia Kontsumoa [kWh]		Aurrezteak		Energia Kontsumoa [kWh]		Aurrezteak	
	6.1.1.	6.2.1.	[kWh]	%	6.1.2.	6.2.2.	[kWh]	%
URTARRILA	571.55	517.81	53.74	9.40%	320.56	283.36	37.20	11.60%
OTSAILA	413.43	370.61	42.82	10.36%	206.23	179.13	27.10	13.14%
MARTXOA	266.27	232.38	33.89	12.73%	97.89	81.36	16.53	16.89%
APIRILA	131.74	110.06	21.69	16.46%	32.60	25.89	6.71	20.59%
MAIATZA	22.85	17.17	5.68	24.84%	0.23	0.00	0.23	100.00%
EKAINA	0.04	0.00	0.04	100.00%	0.00	0.00	NA	NA
UZT – IRA	0.00	0.00	NA	NA	0.00	0.00	NA	NA
URRIA	63.17	51.99	11.18	17.70%	17.67	14.09	3.58	20.27%
AZAROA	329.59	292.70	36.89	11.19%	158.27	136.14	22.13	13.98%
ABENDUA	568.89	516.44	52.45	9.22%	325.96	289.34	36.62	11.23%
TOTAL	2367.54	2109.16	258.38	10.91%	1159.40	1009.31	150.09	12.95%

T5.20. Hilabeteroko bero - eskariaren kalkulatutako murrizteak erreferentzia etxebizitzan (B1P4A), hartutako erabilera - profilen arabera

Hala eta guztiz ere, aurretiko kapituluetan aipatu den bezala, soilik energia - aurrezteak ez dira kontuan hartzen birgaitze energetikoak, baizik eta barne erosotasun termikoan ere, batik bat gizarte etxebizitzetan. Tesi honen hirugarren kapituluan aipatu den bezala, gizarte etxebizitzetan energia - kontsumoa estandarrak baino baxuagoa da, eta horregatik, birgaitze energetikoen eraginak etxebizitza hauetan ez dira erabilera - profil estandarrak daukaten etxebizitzan daudenak bezain nabarmengarriak, zeren eta erosotasun termikoa gizarte etxebizitzetan sarritan baxuagoa da. Beraz, kasu hauetan batez ere, erosotasun termikoan hobekuntzetan arreta jartzen behar da. Bestela, soilik alderdi ekonomikoak edo energetikoak kontuan hartuz gero, birgaitze energetikoak gizarte etxebizitzetan oportunitatetzat hartzea identifikatzea zaila izango da.

Bestalde, barne erosotasun termikoaren egoerak ia bermatzen dira bibliografian oinarritutako erabilera - profilak hartuz, landa - azterketan neurtutako datuetan oinarritutako erabilera - profilak hartzean ez bezala. Beraz, barne erosotasun termikoa kontuan hartu behar da edozein birgaitze energetikoan, eta batez ere gizarte etxebizitzen kasuetan.

Erosotasun termikoa ebaluatu zen ere landa - azterketan neurtutako datuetan oinarritutako erabilera - profilak erabili zeneko simulazioan lortutako emaitzak aztertu zirenean, erreferentzia etxebizitzan arreta jarriz (B1P4A). Hautatutako erosotasun termikoaren heinak hirugarren kapituluan (baita [55] erreferentzian ere, hirugarren kapituluan aipatuta) erakutsi direnak dira. Beraz, muga 16 graduan finkatu zen. Balio hau aintzakotzat hartuz, bi egoeretan (birgaitzearen aurretikoa eta ondorengoa) erreferentzia etxebizitzan lortutako emaitzen arteko konparazio bat egin zen, hilabeteroko balioak eta etxebizitzan 16 gradu baino gutxiago daudeneko ordu kopuruak T5.21 eta T5.22 tauletan aurkezten dira hurrenez hurren.

[Ordu kopurua]	Egongela	Gela1	Gela2	Gela3	Batez Bestekoa
URTARRILA	99	34	64	32	68
OTSAILA	70	31	42	20	44
MARTXOA	43	17	32	12	30
APIRILA	12	2	12	2	8
MAIATZA	1	0	1	0	0
EKA –IRA	0	0	0	0	0
URRIA	2	0	1	0	2
AZAROA	44	14	33	9	28
ABENDUA	98	33	57	30	64
NEGUKO TOTALA (AZA - API)	366	131	240	105	242

T5.21. Etxebizitzan 16 Gradu baino gutxiago daudeneko ordu kopurua (1. Egoera. 6.1.2. Eredua)

[Ordu kopurua]	Egongela	Gela1	Gela2	Gela3	Batez Bestekoa
URTARRILA	86	31	49	23	55
OTSAILA	56	29	36	13	39
MARTXOA	33	15	30	10	25
APIRILA	10	2	7	1	5
MAIATZA	0	0	0	0	0
EKA –IRA	0	0	0	0	0
URRIA	2	0	0	0	0
AZAROA	36	9	22	5	19
ABENDUA	80	30	46	20	50
NEGUKO TOTALA (AZA - API)	301	116	190	72	193

T5.22. Etxebizitzan 16 Gradu baino gutxiago daudeneko ordu kopurua (2. Egoera. 6.2.2. Eredua)

Beste balio batzuk aztertu ziren ere, esaterako hilabeteroko batez besteko tenperatura eta tenperatura minimoa. Balio estatistikoak T5.23 eta T5.24 tauletan aurkezten dira. Hilaberoko batez besteko tenperatura aztertzean, hobekuntza txikiak aurkitu ziren.

	Batez Bestekoa	Tenp. Min.	Desbiderapen estandarra	16 gradutik azpitik ordu (%)
URTARRILA	17.84	12.16	1.48	%9.1
OTSAILA	18.09	12.86	1.49	%6.5
MARTXOA	18.96	13.48	1.72	%4.0
APIRILA	20.28	15.00	2.01	%1.1
MAIATZA	23.81	16.22	3.34	%0.0
URRIA	22.03	15.80	2.64	%0.3
AZAROA	18.45	14.05	1.32	%3.9
ABENDUA	17.84	12.43	1.44	%8.6
NEGUKO TOTALA (AZA - API)				%5.6

T5.23. Etxebizitzan birgaitzearen aurretik lortutako tenperaturen balio estatistikoak (6.1.2. Eredua)

	Batez Bestekoa	Tenp. Min.	Desbiderapen estandarra	16 gradutik azpitik ordu (%)
URTARRILA	17.96	12.55	1.43	%7.4
OTSAILA	18.23	13.27	1.44	%5.8
MARTXOA	19.16	13.81	1.68	%3.4
APIRILA	20.57	15.37	1.98	%0.7
MAIATZA	24.10	16.51	3.31	%0.0
URRIA	22.29	16.10	2.60	%0.0
AZAROA	18.59	14.36	1.27	%2.6
ABENDUA	17.95	12.79	1.39	%6.7
NEGUKO TOTALA (AZA - API)				%4.4

T5.24. Etxebizitzan birgaitzearen ondoren lortutako tenperaturen balio estatistikoak (6.2.2. Eredua)

Azkenik, landa - azterketan neurtutako datuetan oinarritutako emaitzen eta bibliografian oinarritutakoen arteko konparaketa kualitatibo batzuk egin ziren. Bero - eskariak (eta ez berorako energia - kontsumoa) aztertu zen, hau da, une bakoitzean, setpointean finkatutako tenperatura lortzeko energia kopuru zehatz hornitzen duen berokuntza sistema ideal bat hartzen da. Horregatik, neguan neurtutako balioak aztertzean, analisi hau setpoint finkatzen tenperaturarik ez zen epeetan (gauaz) baino ez zen arreta jarri, eta eraikinak eraikin astable bat bezala egiten du.

Tenperatura astableak eraikinaren barne tenperatura kanpoko giroarekin oreka termikoan ez berokuntza ezta hozte sistemarik ere erabiltzen ez denean erakusten du. Negualdian zeuden tenperatura astablearen (hau da, 0 - 8 am) analisi bat egin zen. Helburu honekin, aste hotz bat aukeratu zen azterketa hau egiteko, hain zuzen ere urtarrilaren 13tik 19ra (I5.22eta I5.23 irudietan irudikatuta).



I5.22. 6.1.2 ereduak kalkulatutako barne airearen tenperatura [ºC]



I5.23. 6.2.2 ereduak kalkulatutako barne airearen tenperatura [ºC]

Bi azpi - epe ezberdinak bereizten dira aipatutako epean: lehena, gaueko hamabitik goizeko zazpitara; bigarrena, goizeko zazpitatik goizeko zortzitara, aireztapen tasa bat hartzen deneko ordua dena. Zazpietan zegoen barne airearen tenperaturan arreta berezia jarri zen, aireztapen tasa hastean eta berokuntza erabilerarik ez zazpi ordu ondoren. Orokorrean, ordu horretan lortutako tenperaturak leiho - aldaketaren ondoren ordu horretan lortutakoak leiho - aldaketaren aurretik baino 0.5 gradu inguru altuagoak ziren.

7.3 Bi egoeren arteko konparaketa

Lehen aipatu bezala, bi egoeren arteko diferentziarik handiena bero - eskariaren balio absolutuak aztertzean aurkitu zen. T5.20 taulan ageri den bezala, landa - azterketan oinarritutako erabilera - profilak erabiltzearen bidez kalkulatutako bero - eskaria bibliografian oinarritutakoaren bidez kalkulatutakoak baino %40 baxuagoak ziren. Leiho - aldaketaren aurretiko egoeraren bero - eskaria landa - azterketan oinarritutako erabilera - profilak hartuz, leiho - aldaketaren aurretikoarena bibliografian oinarritutakoak hartzearen %57.3 izan zen; birgaitzearen ondoren, %56 izan zen. Egoera antzekoa aurkitu zen energia - aurrezteen balio absolutuen arteko konparaketak egitean.

Alderantziz, energia - aurrezteen balio erlatiboak elkarrekin konparatzean, bi kasu antzekoak ziren, hartutako erabilera - profilak edonolakoa zirela ere (9.22% eta 11.23%, T5.20 taulan ageri den bezala)

8 Ondorioak

Baliozkotzerako prozesuak kasu - azterketa etxebizitza bat denean kontrolatu ezin diren aldagaien (esaterako alboko etxebizitzen erabilera - profilak) eragin handia erakutsi zuen. Arazo hau sarritan murrizten (are eta mespretxagarria bihurtzen) da kasu - azterketa eraikin bat izatekotan (eta horren ondorioz, mugalde - baldintzen informazioa lortzea askoz errazagoak da, egoera klimatikoaren informazioa, adibidez).

Aukeratutako erabilera - profilen eragina energia - aurreztearen emaitzetan nabarmengarria da ere, 7.3. atalean aipatu bezala. Alderdi hau ez da adierazgarria helburu nagusia birgaitze energetikorako estrategia ezberdinen eraginak elkarrekin konparatzea denean, zeren eta energia - aurrezteen lortutako balio erlatiboak oso antzekoak ziren bi hipotesitan. Ordea, ezberdintasun hauek kontuan hartu behar dira balio absolutuak elkarrekin konparatuz gero, esaterako berreskuratze - denborak kalkulatzean, edo produktuaren bizi - zikloaren azterketak (BZA) egitean. Kasu hauetan, erabilera - profilak ahalik eta errealaren antzekoagoak hartzea emaitza zehatzagoak lortzearren faktore giltzagarria da.

Beraz, nahiz eta etxebizitza bakoitzaren erabilera - profilak biztanleen arabera izan, eta horren ondorioz, biztanleen portaera zein izango den ezagutzea ez da posiblea askotan, erabilera - profil estandar batzuk xehatzea posiblea da, biztanleen profil ezberdintasunen talde - sailkapen baten arabera, batik bat biztanle sektore espezifiko bat aztertuz gero (tesi honen kasuan, gizarte etxebizitza). Lagin txikia izanda ere (hamar etxebizitza soilik), hirugarren kapituluan sektore honen biztanle arruntaren erabilera - profilen eta IDAE-k proposatutako profil estandarren arteko diferentziak erakutsi ziren.

Azkenik, tesi honetan erakutsi bezala, landa - azterketan neurtutako datuetan oinarritutako erabilera - profilak erabiltzearen bidez lortutako energia - aurrezteak espero denak baino balio txikiagoak izan daitekeela azpimarratu behar da. Hala ere, hau ez da oztopo bat izan behar gizarte etxebizitzetan birgaitze energetikoak egiteko. Ostera, tesi honen lehen kapituluetan jadanik aipatu bezala, birgaitze energetikoak irizpide anitzeko ikuspegi batetik aztertu behar dira, hau da, alderdi ekonomiko edo energetikoak ez kontuan hartu soilik, baizik eta alderdi sozialak eta osasunari lotutakoak (barne erosotasunari lotutakoak, nolabait) ere.

9 Aipatutako eranskinak

5.1. Eranskina: Ereduen parametroen konbinazioa.

5.2. Eranskina: Baliozkotutako ereduaren emaitzen analisia.

CHAPTER 6

GREY BOX MODEL BASED IN RC – NETWORK. MODEL DEFINITION.

LABURPENA

Kapitulu honetan RC ereduaren garapena erakusten da. Eredu honek laugarren kapituluan xehatutako erreferentzia – etxebizitzaren portaera termikoa irudikatzea du helburu. Eredua aipatutako kapituluan zehaztutako lehen monitorizazioaren bidez lortutako datuak (hau da, birgaitze egin aurretik bildutako datuak) erabiliz garatzen da.

Beraz, RC ereduen erabilerari buruzko sarrera labur bat aurkezten da lehenik. Bigarrenez, jarraitutako ikuspegia eta ereduaren diseinua deskribatzen dira, baita bere oinarri matematikoak ere. Gero, ereduaren lortutako parametro karakteristikoak erakusten dira, eta parametro hauek barne hartu ondoren ereduaren erabilera zehazten da. Geroago, baliozkotze – prozedura erakusten da, eta eredua erabiltzen da aurretiko kapituluan erabilitako base kasua simulatzeko. Gero, bi ereduen bidez lortutako emaitzak (TRNSYS eta RC ereduak) elkarrekin konparatzen dira. Ondorioak, bai kapitulu honen ondorioak, baita tesi honen hirugarren atal osoarenak ere, zerrendatzen dira.

ABSTRACT

The development of a RC model is described in this chapter. This model is led to represent thermal behaviour of the reference dwelling, presented in Chapter 4, and it is developed based on data obtained during the first monitoring described in mentioned chapter, i.e. data corresponding to the reference dwelling before window replacement.

Thus, a brief introduction of the use of RC models in buildings is presented. Secondly, the followed approach and the model design are described, as well as its mathematical bases. Then, characteristic parameters calculated for the model are shown, and the way that model works after including those parameters is defined. Afterwards, validation procedure is presented, and the model is used for simulating the same base case used in the previous chapter. Then, results obtained by both models (TRNSYS and RC) are compared. Conclusions, both of this chapter and of this Part 3 "Mathematical models" are numbered.

1 Grey box models

1.1 Introduction

Different ways to analyse thermal performance of a dwelling or building have already been dealt with in the previous chapters. The field study on occupied dwellings carried out in Bilbao was described in Chapter 3, whereas in Chapter 5 the development of a TRNSYS model to define the thermal behaviour of the dwelling was presented. For that development, data gathered in the monitoring study described in Chapter 4 was used.

Thus, the usefulness of the white models, namely TRNSYS model, has been shown in the previous chapter. However, this kind of models usually requires a significant computational time to perform a yearly simulation. For that reason amongst others, these tools might not be the best option when the user requires running a large number of simulations.

As Ramallo - González et al. refer in [84], some authors have faced this problem using simpler building simulators [85,86]. Some of them were developed in the seventies and are based on linear dynamic models, based on classical heat transfer theory and resistance – capacitance analogues. In fact, the equation of heat transfer through solids could be assumed lineal, and can be represented with the so called electrical analogy. Within this analogy, conductivity of materials is processed as electrical conductivity, and thermal capacity of materials as electrical capacity.

Thus, these models, so called lumped parameter models, simplify the description of the behaviour of spatially distributed physical systems into a model consisting of discrete entities that approximate the behaviour of the distributed system under certain assumptions.

An example of a simulator using this electrical analogy was published by Balcomb et al. in 1977, where the thermal behaviour of a building heated with solar gains was modelled with a simple network of resistors and capacitors (RC network), representing conductivities and capacities of the studied building ([87], quoted by [84]). Another example of one of the first useful approaches for the development of such models is described in [88], which represented component materials in an assembly as an equivalent network of thermal resistances and thermal capacitances.

1.2 Advantages of RC models in building simulations

One of the main advantages of using this kind of models to represent the building performance is therefore the aforementioned low computational cost required in comparison to white box models. As Ramallo - González et al. affirm in [84], RC networks can be mathematically modelled by a set of first order differential equations, also called state - space systems and they provide the temperatures of building elements and zones.

Their mentioned short computational times made these models popular during the seventies when computational resources were limited. However, despite the fact the huge increase of computational resources have reduced this problem nowadays, RC models are still used when quick building simulations are needed [72,85,86,89].

Moreover, the large amount of information required in white box models was already mentioned in the previous chapter. RC models require a smaller quantity of information to be developed, obtaining accurate results of the thermal performance of the building. Besides, required data can be directly obtained from on field measurements. It makes the development of the model easier, when it is possible to carry out a monitoring study of the building or dwelling.

1.3 Steps for the development of a grey box model

In this chapter, the development of a grey box model which represents the thermal performance of the reference dwelling is presented. The eight steps depicted in Fig. 6.1 are followed for that purpose.



Fig. 6. 1. Steps followed to develop the RC Model of the reference dwelling

As a matter of fact, the four first steps depicted in Fig. 6.1 have already been presented and thoroughly described in previous chapters. Thus, building assessment, monitoring design, monitoring period and analysis of data were dealt with in Chapter 4. The second row depicted in Fig. 6.1 (i.e. RC model definition, the model parameter identification, model validation, and finally, use of the model) is described in this chapter.

Data corresponding to the first monitoring period is used to define the model. Due to the necessity of controlling (amongst other variables) the heat input in the dwelling, as well as monitoring different heating system routines, this methodology is more suitable when it is possible to monitor an unoccupied dwelling, preferably during the winter time.

1.4 Workflows with models

